



Iturria: *Jesukristo, Maria eta Santuen bizitzak*, Joakin Lizarraga
(Juan Apecherearen eta Francisco Ondarraren edizioa). Nafarroako Gobernua, 1994.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LizarragaKristoBirjina.htm>

JESU KRISTOREN BIZITZAREN HISTORIA LABURKIRO; ETA BERAREN AMA BIRJINA MARIA SANTISIMARENA BIDANABAR

**Berexis misterio zelebratzen direnak
urteaz Elizan;
kontatzeko itzez itz, nai badu,
bakotxa bere aldian**

Joakin Lizarraga

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Ama Birjina Maria Santisimaren Konzepzione garbia, Abenduaren 8.an

1. Jangoiko andiak, guzien Jaun ta Jabeak bere karidadezko amoreagatik, zeñeki amatu ginduzan gizonok eternidadetik, (utzirik galtzera Zeruko Aingiru errebelatu zirenak erremediorik gabe sekulakos, zein baitire Demonio ta Deabru deitzen direnak) gizoneki, zein alaber izan ziren desobediente bere Majestadeai Deabruaren inspirazios, etzue nai izan du egin justizia, baizik miserikordia, erreskatatus ta erremedius Deabruaren eskupean paratu zirenak miserias beterik presentean izateko galduak sekulakos eternidadean. Baña nola in zue lan on gau gureki? Ori da zoratu bear ginduzana gizonok amores ta agradezimentuz Jangoikoagana! Mereji ginduzan ira, ta su, ta pena erruen lekuan nai izan zue bere Majestadeak jautsi bake, ta piedade, ta karidade andiareki: nai izan ze agertu bera gure desterru gontan gure ertean: nai izan ze egin gizon errealki errestitus bere Majestadea gure naturalezaren zamarra pobreas: eta etzeien keja justizia, Jangoikoai gizonak eginik agrabio, iten zela gizonareki sobra miserikordia, ta Jangoikoareki ez aski errekonpensa, atra ze erdira Jangoikoaren Seme Jangoikoa dena, ta gizon egin zena, bitarteko Jangoikoaren ta gizonen ertean, emateko Jangoikoai satisfakzio, ta gizonzi erremedio. Ala konpondu zire justizia ta miserikordia gizon dibinoaren medios. *Justitia et pax osculatae sunt.* Ala gizon baten kasos galduba ze gizagendea, berze baten kasos erremediatu ze. Lenbiziko Adam izan baze gure galmendearren kausa, gure erremedio ta salbazioaren kausa izan da Jesu Kristo, deitzen dena bigarren Adam. O grazia graziosoa!

2. Berze grazia bat ere iago. Zeikelaik egin gizon Amarik gabe, nola Adam, nai izan zue izan Ama, jaintsis gure naturaleza emasteki baten entraña sanduetan. Eta ortako zukelaik eskojitu nai zuena munduan izan ta izanen diren emastekietaik, eskojitu zue Maria Santisima eternidadetik, klaro da, oben obena bekala. Urbildus ia denbora eternidadetik alaber



señalaturik zeukana, prebenitu zitue beraren jendakia, ta etorkia, Abraham Patriarkaren, ta Dabid Erregearen odolirik, ta beraren Aita eta Ama S. Joakin ta Santa Ana esposu sandu eskojituak, ura Nazaretgo, ta au Belengo humeak, elkarreki ezkonduarik ogei urte egon zirenak: eta gero ere anitz orazio, limosna, ta obra onen medios logratu zute izatea fruitu bedeizioskoa, fruitu atra den ta atra daiken obena gizonki ta emastekiren obras. Abenduaren zorzigarrenean izan ze konzebitua bere Ama Santa Anaren sabelean Maria Santisima bekatu orijinalaren mantxarik gabe grazian ta santidadean Jangoikoaren pribilejio espezialez. Au deitzen da Maria Santisimaren konzeptione garbia, sinestatzin dena piadosoki, ta zecelebratzen dena alegreki Elizan, ta Patronatako artu dena Españan; naiz orano ezten deklaratu egia gau artikulo fedeskoa bekala, baña eztago apart.

3. Bekatu orijinale jenerazioskoak etzue ukitu Jesus nola iruzki berex bakarra, ezeta ere bere Ama Santisima, nola iruzki garren mendortz, edo aurora ederra. Iruzki ere da Maria Santisima bere gradoan, non paratu zuen bere tronoa errege zerukoak: etzue beñere maxkaratu bekatuaren ilunak. Maria ta bekatua ain daude urruti, ezi lenago argia ta iluna izain dire elkarreki. Aingirua, Adam, ta Eba izan zireneko izan zire grazian: Zenbat obeki Maria, aien ta guzien erregina, eta Jangoikoaren Ama eskojitua? Guziek in zute bekatu lenbiziko Aita Adanenbaitan, diote: baña eztire guzietan sartzen Jesus ta Maria: Biz gañarako guziak, baña salbo Jesus ta Maria, Jesus dretxos, Maria pribilejios. Jesusek erredimitu zitue guziak erremediatus; Maria berex preserbatus, ta guardatus, etzeien heritu. Jeremias, S. Juan Bautista, ta berze bat edo bat santifikatu zitue beren Amaen sabeletan garbitus jaiobaño len: Gexago ze arrazio egitea Ama Santisimareki, ez permititus mantxa zeien. Dilubio unibersalean ondatu zire guziak urean: salbo Noe ta bere familia inarazi zion arkan. Arka biz Jesus, edo biz Maria, biok dire odol batekoak ta elkarrenak. Asuerok lege paratuas iltzeko Judatar guziak erraten zio Ester erreginari, *etzaitela lotsa; etzara ilen zu, ezi ezta paratu legea zureta, baizik guziendako*. Guziok jenerazios izan gara Jangoikoaren iraren hume, ta Deabruaren eskupeko, libratu arteo bataioan Jesusen birtutez: Maria iraren hume, ta Deabruaren eskupean egon zela istante batez ere, aipatzeas ere lotsatzen da bat, ez dezaket sinesta: erran ziolaik Jangoikoak aspaldirik serpentegarri Marias, *arrek autxiko dik iri buruoi*. Biz bekatu orijinala petxa bat jenerala guziek pagatzen dutena: Nork sinesta erregina dela petxera, pagarazteko petxa gisa goi? Jangoikoaren Ama izatea da dignidade kasi infinitoa: diot bada orai, autara eman balekio zein nai duen bietaik edo dignidade gau, edo

grazian beti egotea bekatutik gabe, eskoji lezake au obeki ezi ura: baña bata eman zionak eman zio berzea ere: eskojitu zuenak bere Amatako guardatu zue bekatutik beti.

4. Berze pribilejio bat ere eman zio lenbiziko instante gartan, baita, nola etzuen bekatu orijinalerik, ala ez izatea arren efektorik, au da, bekatutako sukai, ta inklinaziorik, ezeta ere entendamentuaren iluntasunik; baizik ere egotea arima ta gorputz sandu gura guzis ongi ordenaturik biziorik gabe, ta alako erreto ta erresabiorik gabe: baizik nola sugarrak duen inklinazioa gora, ala Mariak Jangoikoagana. Irugarrena konfirmatzea grazian seguratus etzeien erori bekatuaren batean, nola ezpaize erori sekula bere bizian: nola deklaratu duen Elizak ia egietafedea bekala: Trid. s. 6. can. 23. Eta lenago erranik zeuka S. Agustinek, *bekatus tratatzen delaik, etzuela nai aipatu Maria Santisima*: ta ez izana gero bekatutik, dauka progutako, etzuela len izan ez orijinala ere. *Pro ectó peccatum etiám major fecisset, si parvu us habuisset*: lib. 5. contra Jul. 9. ad finem. Laurgarren pribilejioa, istante lenbizikoan izatea Maria Santisimak iago santidade ta grazia, ezi Sandu andienek azkenean. *Fundamenta ejus in montibus sanctis*, Beraren zimenduak oian sanduen kaskoan, au da, Gorago santidades ze Maria astera-koan, ezi Sandu guziak bukatzerakoan. *Opus grande est & erran ze len Salomonen tenplo andi gartas*, Obra andia da, fabrika miragarria, zeren ezi ezta prestatzen palazioa gizon baten, baizik Jangoiko andiaren. Tenplo ta palazio gau izan ze Maria Santisima Jaun andienari ongi zegokiona. Ontan bizi bear zenaren ariora bear ze izan fabrika, perlaren ariora kontxa, tesoroaren ariora kaja, depositoaren ariora arka: Orai bada nai duenak neurritu nolakoa zen Maria, neurri bez lenik nolakoa zen Jesus Jangoiko-gizona. Neurri goi dezake artu Jangoikoaren besoak fabrikatu zuenak Maria daiken obena Jangoikoas landara: ta bere podore, ta jakinde infinitoa obeki agertu zue fabrikatzean sollik Maria Santisima, ezi Zeru guzien, iruzki, ilargi, ta izarren fabrikan: Maria Santisimak berak erran zue gero, *gauza andiak egintu nereki poderoso denak; enpleatu du bere besoaren podorea edo indarra*. Luc. 1. Beras zimendua bear ze izan ario gortara, ta atariak konforme, au da, beraren prinzipioak: *diliget Dominus portas Sion & ps. 86. Jaunak estimatzentu Siongo atariak iago ezi Jakoben tabernakulo guziak*, dio Dabidek. Nauzu xakin, dio S. Eukeriok, nolakoa den Maria? Ikasazu lenik nolakoa izan zuen Semea. Egia ta arrazio andiareki deitu zue S. Gabrieleke *grazias betea, ta bedeikatua emastekietan*. Egia ta arrazio andiareki erraten dio Elizak, *Guzioi zara ederra, Maria, ta mantxarik ezta zurebaitan: zu Jerusalemgo gloria, Israelgo alegria, gizagende guziaren honra*: Jangoikoaren maite bakar eskojitua, len ta gero ta beti sanda.



Maria Santisimaren Jaiotzea

Urriaren 8.an

5. Konzebiturik Maria Santisima Abenduaren 8.an, jaio ze Urriaren 8.an Nazaret berean Jangoikoaren gloriatako, Zeruaren admirazio ta gus-totako, munduaren erremedio, konsolazio, ta alegrianziatako, nola gau luze ilun baten ondorean goizeko argibegi ederra, ekarri bear zuena gero-xago iruzki dibinoa. Zorzigarren egunean paratu ziote izena *Maria* Jan-goikoak berak manatu zuena, ta dakiena paratzen egiaz izena izanaren konforme: ezi Maria nai du erran *Señora*, *itsasoko izarra*, *argi-emanzalea*, *era-ziasko itsasoa* &. Ori guzoi eta iago ere ze Maria. Maria izen miragarria; gozo ta konsolagarria gizonen, Sanduen, ta bekatariendako; fuerte ikara-garria infernukoendako: aipatus ere doaz iges lotsaturik aiek, ta alegratzen dire zerukoak, konsolatzen dire lurrekoak, ta konfianzas akorritzen beka-tariak. O aur zori onekoa, aur andia, Jangoikoaren begietan, *zu aurkitzen zaituenak aurkituko du bizitza ta salbazioa!* O Maria amagarria ta amorosga-rria! Irur urteen buruan presentatu zute tenploan, ofrezitu zioten bekala Jangoikoai, eskatu ziotelarik, izan baño len. Aurttoa bera ofrezitu ze gogotik ere, ta gelditu ze an azitzeko erretiroan berze donzella azitzen zirenen konpañian Sazerdoteen kargura beren Maestra ta Erakustunei. Nola azi zen an, nola maneatzan zen, nola zoeien ikasis emastekien habi-lidadeak, lanak, ta gauzak, nola zoeien iganes birtutez birtute Aingiruen gañetik, nola zen bere konbersazioa Jangoikoareki zeruan kontino, nork explika? Nork erdetxi pensamentuas ere? An zegon bitartean, iltzire lenik bere Aita S. Joakin, gero bere Ama Santa Ana: eta gelditu ze Maria Santi-sima emazurz, Sazerdote Sumoaren, Maestra, ta berze kargudunen kon-tura.

6. Ameka urtes egon omen ze tenploko erretiro gartan bere adina-ren amalaurak bete arteo. Azkenerat izan zue Jangoikoaganik errebelazio, bear zela akomodatu matrimonioaren estadoan. Pensa nolako admirazioa ta kuidoak kausatu bide zuen berri ustegabeko gonek donzella Santisi-maren biotz jeneroso gartan, etziolaik oraño deklaratu misterioa, eta zeu-kalarik eginik Jangoiko beraren inspirazio aspaldirik boto kastidade per-petuoaren. Guziareki utzi ze Jangoikoaren eskuan konfiaturik inen zuela bere Majestadeak kunpli zezan, esperatus esperanzaren kontra: ala nola Abrahami ofreziturik, arren jenerazio ta jendakitik atrako zuela jende anitz bere zerbitzuko, gero probatzeko ta errefinatzeko arren obediencia,

manatu zion sakrifika zezola bere seme bakarra Isaak maitea; naiz artara zoeielaik ia ia goraturik ezpatareki besoa deteniarazi zuen. Iagokoa izan ze Maria Santisimaren obediencia, iagokoa ofratu zion sakrifizioa, zeren Abrahamek Isaak baño iago nai zue Maria Santisimak bere kastidade bir-jinala.



Desposorioa

7. Bitartean Sazerdote Sumoak, Aita ta Amaren partez zuenak kuida-do emazurtzas, bildurik gañarakoak batzarrean proponitu ziote, nola zen aien obligazio erremediatzea donzella sanda gura bakar solla, ta bere etxe ta haziendaren heredera, naiz etzuen inklinaziorik matrimonioaren estadora, baña etzela ongi atratzea tenplotik estado artu gabe. Azertatzeko señalatu zute egun bat, noiz bildurik tenploan Dabiden kasta errealetik ziren libreka, in zeien orazio Jangoikoai, eman zezan señalaren bat, ezauntzeko zein zen Jangoikoaganik eskojitua bere maite garren Esp osotako. Baña berari lenik eman zio kontu disponitu zenas. Donzella soberanak, aurpegia alkes gorriturik, errespondatu zio humil humila, Jauna, nik beti nai izan dut igatu ene bizi guzia kastidade perpetuoan tenplo gontan enpleatus guziau Jangoikoaren zerbitzutan: eta au da nere intenzioa: baña berorrek Jangoikoaren lekuan dagonak bekala erakutsiko dida zer den Jangoikoaren borondatea. Sazerdoteak erreplikatu zio, naiz ona izanik beraren intenzio gura, etzutela uzten denbora gartan Israelgo donzellarik paratu gabe matrimonioaren estadoan, alik eta jaio zeien arteo Mesias, edo Kristo esperatzen zutena: baña inen zutela otoitz Jangoikoak, emateko Esposo bear bekalakoa, ta berareki konforma zeiena: ta berak ere ori beroi eska zezola. Eskatzen zio kontino biotzezko negarrez otoi otoi, guarda zezan Birjin garbi osoki beti berari konsagratua bekala. Konsolatu zue Jaun dibinoak, ta seguratu zue bere podorea dela infinito, ta jui-zioak sekreto: bazegokela trankil sosegu onean...

8. Ellegaturik egun señalatua, noiz kunplitzen ziren txustoki adinaren amalaur urte, bildu zire tenploan sazerdoteeki Dabiden jendakiko gizonak, ta aien erlean Josef Nazaretarra, ura ere ogeitamirur urtetakoa, arimaren ta gorputzaren disposizio ederrekoa: eta guziak paraturik orazioan, ansiatus bakotxak beretako fortuna, logratzeas alako donzellaren eskua; sollik Josef humilena kontatzen ze indigno ainberzeko ondasunaren: Sazerdote Sumoak errepartitu ziote guziei eskura barabana: eta orazioa egin bitartean agertu ze S. Josef en bara loraturik, ta uso eder bat jau-tsi goratik ta jarri zela arren buruaren gañean: eta bateo mintzatu omen zio biotzera, *O Josef ene Sierboa, zure esposa izanen da Maria; admiti zazu atenzio eta erreberenzia andiareki, ezi da kuadrablea ene begietan, sanda guzis ta garbia gorputz ta ariman; eta eginen duzu erraten dizuna.* Señale goneki guziek eman ziote zori ona: eta deiturik donzella soberana agertu ze ederra ezi

iruzkia beterik modestias, honestidade, ta grazias iago ezi Aingiru bat. Desposatu zuzte sazerdoteek bi esposo ta bizikide oben izan direnak, ta zelebratu ze matrimonio gura estado gorren honra, ta exenplu. Despeiturik gero tenploko sazerdoteak, ta donzella bere lagunak, joan ze S. Josefeki bere sortuerri ta etxera, non bizi ziren elkarreki anaia ta arreba bekalala honestidade ta santidade guzian, deklaraturik elkarri boto eginik zeukana ala bata, nola berzeak, mantenitzeko birjin bizi guzian. S. Josef enpleatzen ze zurgingoan: Maria Santisima eskulanetan, atratzeko sustentu prezisoa pobreak bekala. Ziote elkarri amore ta errespeto sandua: Zeude kontent elkarren konpañias, ta konformidade osoas: Pleitu gisa bat sollik zute, bata berzeari zerbitzatu naiez: baña nork garaitu humiltasunean Maria Santisima humilen humilena? Lenbiziko konzebitu zen instantetik Maria zerama disponitus Jangoikoak, ta prestatus egiteko Jangoikoaren Ama, baña prinzipalki desposatuas geros sei ilabete ta iagotan egunetik egunera iago ta iago. Orai emen zenbaitek agian naiko dute xakin, zer motibos Jangoikoak nai izan zuen bere Ama izan zeien desposatua S. Josefeki, etzuelaik arrenaganik konzebitu bear seme gura, baizik Espiritu Sanduaren birtutez? Lenbiziko motiboa Ama Birjinaren honore, pensa etzeien gaizki Ama Santisimas, beiratus bazuela seme, ta esposozik ez; orgatik eman zio esposo. Bigarrena izan zeien esposo gau testigo bekala beraren birjinidadearen. Irugarrena engañazeien etsai infernukoa misterio gartan pensatus seme gura zela berzeak bekala konzebitua. Laugarrena izan zezan Ama dibinak lagunzale bear izan zuen bide ta lanetan, azitzeko ta guardatzeko Aur dibinoa. Eta Jangoikoak daki zertako iago.



Anunziazioa, ta Enkarnazioa

9. Ellegatu zelaik denbora ditzoso gura, noiz Jangoikoa nai zen egin gizon, zituelaik munduak eginik ia kasi bortz milla ta berreun urte, eta Maria Santisimak amalaur terdi ta gexago, ta zego, aik prestaturik birtutez, graziaz, orazioz, ta ori guzies daiken diña persona humanoan, orduan bere Nazaretgo etxetto gartan gauerdirat orazioan zegolarik, agitu ze misterio soberano admirable gura: ta konta zagun, Ebanjelioan kontatzen den gisara. *Biali zue Jangoikoak* Gabriel Aingirua Galileako ziudade batera, deitzen baita Nazaret, Birjina batengana, zein baizego desposaturik Josef deitzen zen gizon bateki: eta Birjinaren izena Maria. Eta sarturik Aingiruak beragana egin zio diosalea, ta erran zio, *Agur grazias betea; Jauna zureki: bedeikatua zu emasteetan*. Aditu zuelarik turditu ze itz gebetan: eta zego pensatzen zertara ote zen diosale gau. Ta erran zio Aingiruak, *etzazula beldurrik izan, Maria, ezi aurkitu duzu grazia Jangoikoaren begietan. Bada orra konzebituko duzu sabelean, ta emanen argira Seme bat, ta deituko duzu beraren izena Jesus. Au izanen da andia, ta gorenaren Semea deituko da; ta Jangoiko Jaunak emanen dio bere Aita Dabiden tronoa, ta erreinatuko du Jakoben jendakian betikos, ta bere erregetasuna izanen da mugarik gabe*. Erran zio Mariak Aingiruari, *nola eginen da ori, bada eztut ezauntzen gizonkirik?* errespondatu zio Aingiruak, *Espiritu Sandua etorriko da zuregana, ta gorenaren birtuteak obratuko du zurebaitan: Eta orgatik ere zureganik jaioko dena sandua deituko da Jangoikoaren Semea. Eta orra zure aidea Isabel ere dago seme bateki sabelean bere zarzutuan, eta seigarren ilabetean doaie, antzu deitzen zutena; zeren ezi Jangoikoari ezta gauza inposiblerik batere*. Orduan erran zue Mariak, *Ona Jaunaren eskla: egin bedi nereki zuk erran bekala*. Onaraño Ebanjelioa: orai onen konforme doktrina. Emanik ala Maria Santisimak bere konsentimentua, edo baimendea, bereala obratu ze istante batez Enkarnazioko misterioa. Nola? Jangoikoak Maria Santisimaren odol garbitik formatu zue gorputz bat: kriatu zue deusetaik arima bat: gorputz ta arima gura elkarreki uniturik unitu zitue bereki Jangoikoaren Semeak Trintateko bigarren Persona dibinoak: eta ala len zena Jangoiko sollik gelditu ze Jangoiko ta gizon eginik Amaren sabel birjinan. Eta orra ia Jangoikoa gizon; ta gizona Jangoiko, deitu zena gero Jesus, ta Kristo, baitare Jesu Kristo, persona bat dibinoa, bi naturaleza tuena dibinoa ta humanoa. Orra gloriako Errege bakarra jaintsirik gure naturalezaren zamarra pobrea gutartean gure desterru gontan... Orra Aingiruen ta guzien buru dena gizonen aide ta anaia eginik; ta gizontasuna honratu-

rik ta goraturik Aingiruen gañetik. Orra guk ofenditurik gindeukan Majestadea bota ginduzkena gu infernuetara Deabruuki, bera jautsirik bere tronotik gure desterrura gure kidea eginik, ta gure fiadore atrarik pagatzera gure partez, erreskatatzeko gu Deabruaren eskutik, ta eramateko bere zerura. O bekatari fortunosoak logratu dugunak alako Redentorea, Jangoikoa bera, ofenditua bera. Ain ona ofendizaleeki, zerik bide da amazaleeki! Orra zeruetan kabitu eztaiken Majestadea bildurik donzella baten entrañetan. Orra Maria Santisima, gure naturaleza ta lekukidea eginik Jangoikoaren Ama, Ama ta Birjin bateo, duela bereki bere sabeleko fruitu bedeikatua utzi gabe Birjinidadearen lore ederra... Ia klaro ageri da, Jesu Kristok gizon den aldetik eztuela Aitarik; baizik Ama sollik milagrokoa, nior ez bekalakoa: eta S. Josef eztela Aita errealidadean, baizik jendeen opinionean, eta nonbrean: Amaren esoso bai, ta Jesu Kristo aur dibinoaren aurzai. Misterio gonek ongi pensaturik bear ginduzke zoratu kontentuz gizonok; nola, kastigatu bearrean, erremediatu, erregalatu, ta honratu gaituen Jangoiko onak iago ezi espera ta pensagin dezaken sekulan... O Jangoiko onaren amorezko milagroak gure alde! Sinesten baitugu, bear dugu esperatu ere, bear dugu guzien gañetik amatu. Dugu obligazio gizonek iago ezi serafinek. Nola Ama berriak estimatzen zuen, ezta entendamenturik erdetxi dezakinik. Zer amoreak, zer afektoak bereki zeukan Jaunari, nork entenda?...



Bisitazioa

10. Aingiruak erranaren, ta Jangoikoaren inspirazioaren birtutez jaiki ta joan ze prisaka Santa Isabelen bisitatzerat montañarat Judako ziudade-ra Maria Santisima, dio Ebanjelioak: eta prisaka ordea zergatik ote? Ia bere honestidade, modestia, ta erretiroaren amoreagatik, ezi donzella soberana gura etze ibildari agertu naia etxetik kanpoan: ia zeren bere sagrarioan zeramanak igiarazten zuen, santifikatzeko Juan Bautista len baño len. Ellegaturik etxe gartan egin zio diosalea Isabeli; eta agitu ze, onek aditu zueneko, saltatu ze Juan aurra sabel-barnean gozos, ta bete ze Espiritu Sandus Ama Isabel, ta exlamazio bateki erran zue, *Bedeikatua zu emasteetan, ta bedikatua zure sabeleko fruitua. Eta nondik niri ainberze ondasun, nola etortzea enegana ene jaunaren Ama? ezi aditu duteneko zure mintzoa, saltatu da kontentuz ene aurra ene sabelean. Zori onekoa zu sinetsi baituzu, zeren ezi kunplituko dire zurebaitan zuri erranak Jangoikoaren partetik.* Orduan erran zue Maria Santisimak kantiko famatu gura, egunoro bezperetan kantatzen dena, asten dena *Magnificat*, ta euskaras dio ala: *Estimatzten agitz, ta laudatzen du ene arimak Jauna, eta alegratzen da ene Espiritua ene on guzia den Jangoikoan: Zeren beiratu dion bere esklaba gonon humiltasunari, bada orgatik zori oneko ditxosa deituko naute jenerazio guziek: Zergatik ezi gauza andiak egin ditu nereki poderoso denak, ta bere izena da sandua: Eta beraren miserikordia jendamentes jendamente beraren beldur direnendako. Agertu du bere beso poderosoaren indarra: desgintu ta urratu suberboak beren biotzaren presunziotik. Botatu poderosoak beren tronotik, ta goratutu humilak. Goseak zeudenak betetu ondasunes, eta aberatsak utzitu gabe uts. Artu du bere anparoan Israel bere humea, oroiturik bere miserikordias: Nola ofrezitu zuen gure aizinekoei Abraham ta arren jendakiaren faboretan betikos. Auxe da kantiko gura, non itz adiña misterio baita Jangoikoaren honratan. Bisitazio gau egin zue Maria Santisimak Martxoaren azkenerat; eta egon zela etxe gartan irur ilabete guti gorabera, dio ebanjelioak: beras, jaio arteo Juan Bautista, gero itzuli zela bere etxera Maria.*

San Josefi errebelazioa

11. Bitarteo S. Josefek etzekie zuen ondasun guzia bere Esposan: etzekie tesoro altxatua arren sabel birjinalan: etzekie milagrosko konzeptione gura: baño pasatus ilabeteak, azis aur dibinoa, zoeie nabarmendus amatasuna. Asi ze lenik dudaketan erreparatzen: gero guti guti seguratzten, bere Esposa zegola aurdun. Jakinik ori; etxakin nondik edo nola: Milagroaren bernnk ez: alako personas gaizkirik ezin pensa, baño begis ikusten zuena ezin uka: nolako prensan prensaturik bide zegon biotz on gura? Bazekie Maria Santisimak arren biotzaren berri: arren penas bazue pena: Zer eginen zue? baizik enkomendatzea Jangoikoai erremedia zezan. Nola etzio deklaratzten zer gisas konzebitu zuen? diozu. Baña ori etzekio iduri prudenzia: Eta nork sinesta emastekiari, berak erranagatik in dela Ama Jangoikoaren milagros? Utzirik Jangoikoaren eskura konfiatzen zue atrako zuela egia bere Majestadeak bear orduan: eta ala izan ze. Sandua zebilalaik dudaketan gorabera, alde bat eznaiz egon presente jaio arteo aurra beraganik etzena: berze alde eznaiz utzi lagun bat ain amablea, eze-taere kontu eman nai, ta adiarazi munduari; zer eginen zue gizagaizoak? Azkeneko artu zue erresoluzio, joatea urrun apart, utzirik ixil ixila, Jangoikoak lagun dakiola. Ortan dagolarik, ecce *Angelus Domini*. & dio ebanjelioan, ara non Jaunaren Aingiruak agerturik lotan erraten dion, *Josef Dabiden semea, etzazula izan beldurrik artzeas ta idukitzeas Maria zeure Esposa, ezi berabaitan jaio dena da Espiritu Sanduaren birtutez. Emanen du argira Seme bat, ta deituko duzu arren izena Jesus, Salbazalea, zeren berak salbatuko du bere jendea beren bekatuetaik. Ala gelditu ze Josef kontent admiratus bere ditxa, ta estimatus iago bere Esposa...*



Jesu Kristoren jaiotzea

12. Kunplitu-urran zirelaik bedratzi ilabeteak, agitu ze diona Ebanjelioak, atratzea Zesar Augusto enperadoreaganik manamendu, lixtatzeko mundu guzia. Ortako zoezi guziak nor bere etorkiko ziudadera. Igan ze Josef ere Nazaretetik Bethleena, zeren baize Dabiden jendakitik, asentatzera lixtan, Maria bere esposareki, zein baizego ia erditzeko egunetan. Zenbat pensatzeko duen arima kristioak emen! lenik gure Jaun andiaren probidentzia miragarria, nai izateaz jaio gizontasunes ain pobre gisa, ez bere Amaren etxean berere, baizik erdis-kanpoan: gero Ama Birjinaren biaje luze gura estado gartan: astoko baten menean: bideko molestiak eta nekeak: denboraren ekaitzak neguaren biotzean: ostatuetako desatenzioak, ikusteareki pobre: baña zeruak zeude beira gure peregrino amableak Jesus, Maria, ta Josef. Pensa, nola bi esposok etzuten kupidarik munduko gauzes, paraturik biotzak Zeki zeramaten tesoro altxatuan! Ellegaturik Bethleena borzgarren egunean arratsalde apalerat, uste zue bai S. Josefek aurkitu deskansu on bat bere esposa dibinaren, nola baizue an asko ezaun, aide, ta adiskide: baña jendeketa andiaren kasos, ta pobre iduritus gure peregrinoak, etze izan lekuri ebendako, naiz billa ibilirik asko denboras. Zoeie alzinean S. Josef etxes etxe, ataris atari eske ta eske Jangoikoaren amoreagatik aterbe pixka bat. Errespuesta ze, ezta lekuri. Segitzen zue Birjin Ama honestisimak baratus atarietan etxideten eza. Pensa Birjin Amaren modestia, alkea arrosa-koloreak ainberze jenderen ertean, ez usatu bekala, ta adin gartan, eta estado gartan! Pensa S. Josef gizagai-zoaren biotzeko pena ta aflikzioa, ezin aurkituas non alojitu bere esposa eta Jangoikoaren Ama! Prensaturik biotza penas bi begietaik negarra zeriola, erran omen zio, ene erregina ta esposa dulzisima, biotzau erdis-katzen zaida penas, ezin aurkitus, eztiot etxe bat berorri dagokiona, ezeta ere aterbe pixka bat edozein pobrerri ematen zaiona. Oroitzen naiz, an errira urbil bazela etxola bat, nora biltzen ziren haziendak ta altsaiak. Fortunaz balego utsik, an luke zerbait alibio zerutik berere, lurretik eztugulaik. Nai badu, goazen arara. Ori izanen da lekuri obena ene gustorako, errespondatu zio Ama Birjinak amore andiareki, ene esposo Jaun ona: In bezada plazer ez izateas penarik, baizik konformatzeas gure Jaunaren borondateareki. Goazen goazen kontent etxola gartara. Joan zire, ta Jangoikoak nai ta aurkitu zute etxola utsik. Kontent Maria Santisima gelditu ze an, xakinik, gau gartan iruzki dibinoa jaio bear zela an... Au izan ze

palazio erreala erregeen erregek prebeniturik zeukana, egiteko bere lenbiziko agertzea mundu gontara. Segitzen du Ebanjelioak:

13. Eta agitu ze, an zeudelaik, betetzea Maria Santisimari egunak libratzeko, ta eman zue mundura bere seme bakar lenbizikoa, *et peperit filium sui primogenitum*; Au da diona Kredoan, *Jesu Kristo Jangoiko Aitaren Seme bakar gure Jauna, zein konzebitu baize Espiritu Sanduaren birtutez, jaio ze Birjina Mariaganik*: Konzebitu milagrosoki, ta milagrosoki jaio: Birjinaganik, dio, au da, gelditurik Ama Birjin erdibaño len, erditzean, ta erdias geros beti Birjinik, errateko erdi zela doloreik gabe, miseriaik ta mellaik gabe. Konparanzas: ala nola pasatzen den iruzkia kristale batetik autxi gabe ta mantxatu gabe kristalea: ala Jesu Kristo agertu ze mundura, utzirik ain oso mellarik gabe Ama, ain Birjin, ain argi ta garbi eder nola len. Nola ori? Obratus Jangoikoak sobrenatural ta milagrosoki len ta gero. Milagro gisa gau egin zue bizian ere, ibilis ones itsasoan, idiki gabe urak: il ondoan biziturik atra zelaik obiatik, mogitu gabe gañeko ar-lauza, eta sartu zelaik Apostoluen ganbaran, idiki gabe ataria: ezi Jangoikoarendako ezta inposiblerik. Ama dibinak ikusi zuelaik bere eskuetan bere Jauna ta bere Semea, pensa nola eman zion ongietorria! nola adoratu ta apatu zition oñak, eskuak, aurpegia! nola eskatu zion lizenzia ta grazia, tratatzeko ongi! Nolako amoreak, demostrazioak, eta festak, eta erreberenziak egin zition! nola ofratu zion Aita eternoari beraren seme gura bestiturik gure naturalizaren zamarras! Bada zer erranen dugu S. Josefes, idatzarririk bere lo sobrenatural izan zuenetik, beiratu zuelaik Ama Birjinaren eskuetan iruzkitto berri gura? Zer admirazioa? Zer afekto amorosoak? Zer humiltasun, erreberenzia, esker milla, ta negar gozoak? Joanen lekio an arima gozo geiegis, ezpalo konserbatu Jangoikoak urrengo itekoetarako...

14. Segitzen du Ebanjelioak, *et pannis eum involvit*, maiolatu, edo inbolokatu zuela oialtotes, ta erreklinatu zuela an ganbela batean, ezipaizute berze lekuri etxolan... Palazioaren ariora ze kuna... O errege andia berez, bear ezipaitu mundukoen ponpa ta itxurarik, ta burrunbarik, izateko andi poderoso inmenso txipian oroat nola andian! Nork ikusi du alako gorabera? O Jangoiko andia, ta aur txipia! Ain poderoso, ta ain amoroso! ain admirable ta ain amable! An goiti trono gorenean inguraturik glorias adoratzen dutela serafinek! Emen beiti ganbela batean maiolaturik agoztto batzuen gañean, idi baten ta asto baten erdian! *Ain andia, ta ain txipi Jesus on negatik! Badakusat zergatik, Amoroateagatik ni! Barin badut biotzik, Jesus nai dut ilartaño Iago ori guziak baño, ori nai dut bakarrik... Jesus onak maite ni, Nik ere maite Jesus, Oh! amore gonon sus erre ta il banindedi...* Idi bat etorri omen ze kanpotik arara bere etxera bekala: arrek eta astoko eraman zutenak hon-



ratu zute beren gisara aur jaioberria, kunplitzen zela Espiritu Sanduak errana, *Cognovit bos possessorem...* & Isai. 1. *Ezaundu zue idiak bere jabea, ta astoak bere Jaunaren ganbela: baña Israelek eznaue ezaundu ni.* Ganbela gontan anitz ikusteko ta ikasteko dugu: On da itzultzea onara berriz ere.

15. Segitzen du Ebanjelioak, *Et pastores erant in.* & Zeudela Artzai batzuk inguru gartan beren saldoen guardian gauaz. ellegaturik an Jaunaren Aingirua, eta beterik guzia inguruan zeruko argitasunes, lotsarriturik aiek, Aingiruak erran ziote, *etzaiztela lotsa, zeren ezi ematen diziet berri on alegre andi bat guzien onerako, baita jaio zaizela Kristo Jauna Dabiden ziudadean: ta au izanen duze señaile, aurkituko duze aurra inguraturik oialtoes, ta paraturik ganbela batean.* Nor ezta admiratzen ematen dioten señaileas ezauntzeko gloriako errege Jauna, ta guzien salbazalea? Jaun andienaren señaile mantillak, paxak, ganbela, agozttoak! Eta bai ala ze egia: ezi ganbelan emen beiti dagolarik, an goiti mogiaraztentu zeruak, eta zeruko soldadeska: bereala bildu ze inguru gartan tropa bat laudatzen Jangoikoa, ta erraten, *Gloria goraetan Jangoikoi, eta lurrean bakea borondate oneko gizonen.* Au izan ze lenbiziko pregona errege dibino ta humanoaren: *gloria Jangoikoi, ta bakea Gizonen:* beti gero ere predikatu zuena, karidadea, onetsi Jangoikoa guzien gañetik, eta proximoak Jangoikoagatik. Enten da pregoa andi gau ongi: Jangoikoi gloria, ta gizonen bakea. Bake gau gauza andia bide da. Zer bake gisa ote da? Jangoikoaren bakea, Jesus onak sollik paratu zuena: Jangoikoaren baketzea gizonen. Pleitu gisa batean zeude len miserikordia ta justizia: onek eman bear zela Jangoikoi satisfakzio gizonen inikako agrabioes: arrek berriz eman zezotela gizonen barkazio uts eginas Deabruaren engañuz. Nola konpondu pleitu gau? *Veritas de terra orta est:* jaio ze Jangoikoaren Semea Jangoiko, ta gizon egiaskoa lurretik: *et justitia de caelo prospexit,* eta justiziak beiratu zue zerutik: bereala konpondurik pleitua, *justitia et pax osculae sunt,* besarkatu zire justizia ta miserikordia bake onean. Nola? edo noren medios? noren kostus? Jesus Jangoiko-gizona atrarik bitarteko Jangoikoaren ta gizonen erlean obligatu ze gizonen partez ematera Jangoikoi satisfakzio, bere buruai ez barkatus barkatzeagatik gizonen: eta orra Jangoikoi gloria, ta gizonen bakea emanik. Bake zori onekoa deseagarria, biotzaren erreparua Jangoikoaren amorean ta grazian. Baña errepara: eztiote, ezi gizon guziei, baizik borondate onekoei. Borondatea da naikundea: beras borondate onekoei da ongi nautenei. Beras ontaik ere klaro ageri da, Jesus berak ere, Salbazale berak ere ezti-tuela salbatzen guziak, baizik borondate onekoak, ongi nautenak. Gure naieras geros, diozu, segur da salbazioa, ezi guziek nai dugu segurki. Bai ote guziek? eta guziek ongi? Nai dute ongi salbazioa salbazioko bideas

eztoazinek? Erregeren kortera nai duela batek, dio: au da badea, erakusten diote dakitenek: eta arrek ura utzirik artzen du kontrakoa: nola nai du? Nola bada nai du salbazioa eztoaienak Salbazaleak erakutsirikako bideas, baizik kontrakoas? Salbazaleak tira goitirat: munduak, demonioak, aragiak, ta pasione gaixtoek tira beirirat: gizonak ezta indar egin nai gora; uzten da erortzera bera: ezta alakoendako Jesusen bakea, ezpaitire borondate onekoak, ezpaitute gusto ona... Ez ote dute erremeriorik? Bai, ta da aldatzea borondatea: izan borondate onekoak; izan gusto ona Jesusen konforme.

16. Artzai fortunoso gaiek aiturik Aingiruen proklamazioa mintzatu zire elkar, goazen Belen alderat, eta ikusagun agitu dena, Jaunak guri adiarazi diguna. Joan zire prisaka, ta aurkitu zute Maria ta Josef, ta aur dibino paraturik ganbelan. Ezaundu zute egietafedea, ta gozos beterik adoratu zute; ta itzuli zire laudatus Jangoikoa, ta kontatus guziei prodijio miragarria... Dezakegu imitatu guk ere adoratus Bethleen. Betleem nai du erran ogiaren etxea, au da sakramentu aldarekoaren lekua: aldare gura, edo sagrarioa kontu dela ganbela Majestade andiaren konparazioan. Baña konparazio ez, baizik errealdadez ango Jesus berbera da emen altxaturik dagona: an paratu zue karidadeak; emen dauka preso bekala guri digun amoreak, amore geiegiak, *propter nimiam charitatem suam.* Ezpadakigu amaitzen, estimatzen, festejatzen, nola Maria Santisimak, nola S. Josefek, nola Artzai on gaiek, bentzait adora, ta errespetazagun, nola ango idi ta asto garrek. Eskergaitz txarra da guzis eztena konbertitzen estimatzera Jangoiko andia beiratus aur txipia ganbelan... Naiz zen guzis poderoso, uzten ze gorputz artu zuen gartan tratatzera nola aur txipittoa, sufritus aurren penalidadeak, paxaturik egotea, otzak, ta gañarakoak. Negar ere iten zuela, diote, aldarte, ez ainberze bere trabajues, nola gizonen bekatues. Sustentatzentuen bizi diren guziak, sustentatzen ze bera bere Amaren esne birjinalas: usten ere ze S. Josefek besoetan, faboratzeko Sandu glorioso. Itz batez: Judako leon fuerte gura egin ze Jangoikoaren axuri manso amablea. Ikusagun ia axuri gau antxume larruareki gañetik gure amorez...



Zirkunzisioa

17. Justoak deitzen dire axuri, ta bekatariak antxume Ebanjelioan. Antxume-larrua bekatariaren iduria. Antxume-larruareki axuri dibinoa da Jesus bekatariaren iduriareki. Nola ori? Zeren arturik bere gain gure bekatuak goiz-eder asi zen pagatzen, nola bekatari balitz, sufritus zirkunzisioaren lege dolorezkoa zorzigarren egunean. Etzue obligatzen, klaro da, lege garrek Jesus bekaturik etzuen ta etzukuena. Zergatik bada utzi zen, ezta zer galdegin: Zergatik jaio, zergatik pasatu pasio dolorezkoa, ta iltzen gurutzean, argatik. Orduan paratu ere ziote izena *Jesus*, baita Salbazalea, Jangoikoak manatu zuena paratzeko. Jesus izen dulze konsolagarria, ta egiaz iten duena diona: zeren beraren deseo, jenio, ofizio, ta gusto ona baita salbatzea. Ezta atzenduko salbatzeas, nola eztaiken atzen bere izen propioas. Dagolaik ere asarre gure kontra justiziaz, bere izenak oroiaraziko du miserikordias. Kondenatzea iten du bortxaz ezin berzeas: salbatzea iten du bere naiez gusto andiareki. Jesus etorri zena salbatzeagatik bekatariak, bekaturen etsaiik andiena, ta bekatarien adiskiderik obena, ala nola Ama onak maite baitu bere hume gaizki dagona, ta aborrezitzen arren gaitza. Mediku dibinoa Jesus, borz letra izenean, ta borz prenda errealidadean. Lenbizikoa guzis jakintsua, baitaki sendatzen heritasun ta eriotze guziak. Bigarrena agitz poderoso, sendatzen baititu osoki istantean, utzi gabe errestorik ere, nola sekulan ezpalitz egon heri. Irugarrena agitz miserikordioso, bisitatus heriak graziaz pagurik gabe, ta bera alzinatus deitubaño len ere. Laugarrena agitz liberala, egines bere kostus erremedioak, ta aplikatus bere eskus. Bortzgarrena agitz ona, sekulan aditu eztena, berak sano dagolaik artu erremedioa, sendatzeko heri dagona; berak sufritu pasio doloreskoaren sangria, ta pasatu Purga, ta trago samiña, sendatzeko gure gaitzak. Nork ikusi edo aitu du alakorik? Au da Jesus Janoikoaren axuri ona kentzentuena munduko bekatuak.

Epifania, Erregeen adorazioa

18. Jaio Jesus ta amirurgarren eguneko ellegatu zire irur Magoak urrutitik Jangoikoaren inspirazios adoratzera Bethleenan aur dibinoa. Kontatzen du ala S. Mateok Ebanjelioan: *Jaio zelaik Jesus Judako Bethleenan, Herodes erregeren denboran, etorri zire Magoak iruzkiaren sortaldetik Jerusalem, galdegiten zutela, Non da jaio dena Judatarren erregea? Zeren ezi ikusi dugu beraren izarra gure leku-aldean, ta eldu gara adoratzera...* Aditurik ori, *Herodes erregea turbatu ze, ta Jerusalem guzia arreki. Eta bildurik sazerdoteen prinzipalak ta letra-dunak, konsultatzen zue non bear zen jaio Jesu Kristo. Aiek errespondatu ziote ezi Behleenan: ala baizego eskribiturik Profetaganik...* Orduan *Herodesek deiturik apart Magoak informatu ze ebeneanik, noiz agertu zekioten izarra: eta bialtzen zituela Bethleena erran ziote, Zoazte, ta informa zaizte ongi aurras, eta aurkitzen duzielaik, biali zadaze mezu, joateko ni ere arren adoratzera. Errege aditu ondoan joan zire aiek andik; eta ara non ikusten duten izarra beren alzinean ellegatu arteo lekura, non zegon aurre, ta baratzen dela gain gaiñean. Ikustearreki izarra alegratu zire gozo andiareki: eta sarturik etxe edo etxola gartan aurkitu zute aurre bere Ama Mariareki: eta paraturik lurrean auspeska aduratu zute: ta ofratu ziote present urre, inzensu, eta mirra: eta izanik abisu ez itzultzeko Herodesengana, berze bide batetik joan zire beren lekuetara. Onaraño dio Ebanjelioak itzez itz. Orai errepara,*

19. Lenbizikoa Jaunaren aldetik izar gura, kidatzeko beregana errege gaiek. Gure izarra espiritualkiro da fede kristioaren argia ta doktrina ematen diguna ezaumentu Jangoikoas ta Jesu Kristos, ta beraren gauzes. Bigarrena aien aldetik obediencia, segitzeko dilijent Jaunaren deia. Irugarrena turbatze gura Herodes ta bere gisakoak, alegratu bearrean. Laugarrena berek berzei erakuste gura non bear zen jaio Salbazalea, ta alaere deskuidatzea berak geldi galdus eskalda ona. Borzgarrena Herodesen falsu traidore hipokrita, beterik biotza malizias, naiz mia on iduri: *adoratzeko nik ere, zio, baña akabatzeko, zue intenzioa. Baña nork engañatu Jangoikoa?* Seigarrena irurgaien konstanzia segitzean billa, ta premio ona aurkitzea. Zori onekoak aiek, baitare imitatzentutenak segitzean konstante Jangoikoaren bideas. Zazpigarrena errate gura aurkitu zutela Jesus bere Ama Mariareki: bai, ezi Maria duenak bere izain du Jesus ere. Zorzigarrena adoratzeko gura auspeska erreberente: Ori in bear dugu lurreko arttoek Jangoikoaren presenzian maiz paratuz auspeska lurrean adoratzeko bere Majestadea. Bedratzigarrena ofratze gura presentak aur dibinoai dagoz-kionak ongi; erreareki mostratus errege dela, inzensuareki Jangoiko, ta



mirrareki gizon mortala. Guk ofra urre biotzezkoa amoresko afektoak ta obra onak: Inzensu orazioa, deseo, ta antsiak Jangoikoagana: Mirra mortifikazioa, penitencia, ta pazienza. Daizke ere errepara misterio gontan bortz jende-mota: Batzuk billatzen zutenak Jesus, ez ones, bai gaitzes ilarazi naies, nola Herodesek ta bere gisakoek: alakoak dire infielak, herejeak, kristio falsu hipokritak. Berze batzuk sarturik beren iteko, bizio, ta banidadeetan etzutenak ajolarik Jesus onas, jaio edo ez jaio: segi aiek burus bera infernurat: ala orai asko munduko farraskerietan zebaturik, ta Jangoikoas atzendurik. Berze batzuk pasatzen etxola garren aldakatik, sartu gabe, edo sartra bat egin bidanabar deboziorik gabe: orra kristio epelak fede guti ta karidade gutiago dutenak. Berze batzuk Artzai, ta errege gaiek estimatu ta adoratu zutenak amore andiareki, ta ala logratu asko grazia: Alakoak dire kristio sanduak. Berze batzuk kontino estimatu, onetsi, ta kuidatu zutenak aur dibinoa, aiek zire Maria Santisima ta S. Josef Aingirueki: non da alakorik?

Purifikazioa, ta Elizara atratzea

20. Judatarrek zute lege, libratuas geros egotea erretiraturik berrogei egunes, deitzen zirenak purgazio edo purifikazioaren egunak: Klaro da lege gonek etzuela obligatzen Ama Birjina purisima: baña nola seme dibinoak kunplitu baizue Zirkunzizioaren legea, ala Ama Santisimak Purifikazioarena. Berze lege bat ere bazute, presentatzeko tenploan seme lenik jaioa, ta ofratus an bi usakume edo usatortola zerbait mondaeki, ala erreskatatzea bere seme gura. Pasaturik bada egun gaiek, dio Ebanjelioan, eraman zutela aur dibinoa presentatzeko Jerusalemgo tenploan, baizego Belendik bi lekoka-bide. Ze an gizon zar, justo, ta Jaunaren beldurdun bat, esperatzen zuena Israelen erremedioa, ta Espiritu Sandua zego arregi: ta izan zue beraganik errebelazio, etzuela ikusiko eriotzea, ikusi gabe Kristo erredentorea. Joan ze bada gizonoi egun gartan Espiritu Sanduaren inspirazio tenplora: eta presentatu zutelaik Jesus aur dibinoa, zar benerebleak artu zue bere eskuetan, ta milla bedeizio, ta esker milla eman, eranzue, *Orai, Jauna, da ordu despei nazar mundo gontaik bakean, zeren ikusi baitut neure begis berorren salbadorea eman duena jende guzien alzinean nola argi bat argitzeko jendeari, ta berorren jendakia den Israelen gloria...* Eman ziote Simeonek bedeizioa, ta Amari erran zio, *Ona aurto gau izanen da askoen erorzeko ta goratzeko Israelen, ta jomuga bekala, zeñen kontra emanen baitute; ta zure arima traspasatuko du doloresko ezpatak.* Ordu berean ellegaturik laur ogei ta laur urtetako andre sanda bat, Ana deitzen zena, onek ere bedeika ta laudatzen zue gure Jauna, ta ematen berri onak artas guziei. Guziau dio Ebanjelioak. Zelebratzen da otxallaren bi arrenean: deitzen da Ama Birjinaren *Purifikazioa*; baitare Jesus onaren *presentazioa* tenploan; baitare Simeonen *aurkintzea*: baitare *Kandelera*, edo zeren Ama Santisimak presentatu zuen Semea kandelareki, edo zeren akonpañatzentugun prozesioan kandelaei, edo zeren Simeonek deitu zuen Jesus *argia*, argitzeko guziei. Edozem gisas kandela itxekiak signifikatzen du Jesus dibinoa: Artan tuzu irur gauza, *argizaria, metxa, ta argia*: Ontan berze irur, *gorputza, arima, ta dibinidadea* edo Jangoikotasuna. Simeon zarrak aur dibinoareki besotan kantatzen despeida mundutik adiarazten du Kristioa iltzerakoan bear dela eutxi Jesus onari salbatzeko eternidadean. Orgatik agian lengo denboretan *Kristioei* iltzerakoan paratzen ziote kandela eskuan, mostrapzeko Kristio dela, ta Kristoren fedean, es3eranzan, ta karidadean doaiela, eta Jesu Ziristo dela bere argia ta kidaria biaje gartan... Orgatik ere errezi-



bitzen dugu presente bera sakramentuan *Biatiko* gisa, au da *Biderako*, urtikigaitzen beraren besotan konfiaturik diogula Dabideki, *etsi ambulavero in medio* & ps. 22 naiz nabilan eriotzearen ilunbearen erdian, eztut gaitzen beldurrik, zeren ori baitago nereki, *Jesus ona*. O Jesus, biz enetako Jesus... Amaren besotan adiarazten du Amaren medios logratzen dela Jesus onaren grazia: orgatik Ehzak erakutsi digu erraten, *Santa Maria Jangoikoaren Ama*, zuk otoitz egizu gu bekatariengatik orai ta gure eriotzeko orduan. O Ama, mostra bez dela Ama...

Jesusen Ejiptora iges joatea

21. Jesus ona pobre gisa naiz jaio ta azitzen zen, baña errege gaien etorriareki adoratzera, Artzaien, Simeonen, ta berze anitzen berri on ematen zuzteneki errege berri gontas asi ze famatzen aur dibinoa: baitare Herodes erregea erretzen inbidias, zelos, iras ta errabias Jesus onaren kontra, ustes eldu zen kentzera korona eldu zena ematera gloria ta on guzia. Nai zue arrapatu, ta ilarazi Jesus ona azibaño len: eta eskapa etzekion niolater, determinatu zue ilaraztea bi urteetaik bera ziren aur guzi guziak Bethleenan ta inguru gaietan. O Jesus ona, zein goizik nai duten bota mundutik, eztiolaik niori gaizkirik egin nai orren Majestadeak, baizik ongi guziei! O munduko miserableak, nola beti aizaraten zeuren kontra ofenditus Jaun ona, norenganik datorren on guzia! Bitarteo Jaunaren Aingiruak abisatu zue S. Josef, erraten ziola, *Arzazu aurra ta bere Ama, ta zoaz iges Ejiptora, ta zaude an, nik abisatu arteo*. Sanduak egin zue, manatu becala; eta bizitu zire Ejipton, iltzen artaño Herodes. Bitarteo inhumano krue-lak ilarazi zitue aur inozente guziak bi urtetarañoakoak: ta ebek dire deitzen direnak Martir inozenteak: ezi inozente eztu erran nai zoro edo fatuo, nola uste duten eztakitenek, baizik kulp gabe niori gaizkirik iten eztiona. Alakoak izan zire aurtto esneko gaiek, Martiren primiziak eta loreak, konfesatu ta pregonatu zutenak Jesu Kristo ez mies ta itzes, bai odolas ta eriotzeas. Emen agian noribaiti eldu zaio tentabide; Zergatik gure Jaunak guzis poderoso izanik, ta zukelaik desegin Herodes ain aisa nola ar txar bat, utzi zuen degollatzera ainberze inozente, ilarazi naiez Salbazalea? Ontara errespondatzen da apaldus burua, ta adoratus Jaunaren sekretoak, baña justoak: Eztago ditxa gorputzaren on aisa emengoan, ez, baizik arimaren salbazioan. Orra naiz desdixatu iduri aurtto gaiek, istantetto batez aurkitu zire paraisoan nola etzekitela; txostaketan bekala arrapatu zute palma ta korona eternoa. Ala axuri dibinoak, nola axuritto gaiek utzi digute exenplu, sufritzeko kulparik gabe arimo onareki bizi labur gontan, logratzeko erreinatzea glorioso Zeruan, erre ta errabiatzen dau-den bitarteo infernuan munduari sobra apegatu zirenak...

22. Ejipton bizitu omen zire Jesus, Maria, ta Jose zazpi urtez guti gora era: pensa nola! ain urrun beren etxetik! berzerenean alokatutrik pobre gisa deus gabe lenbizian, gero beren eskuen lanas bizia atratzen, ta bear orduan limosnas ere. Ilas geros Herodes, erran ziola Aingiruak S. Josefi, dio Ebanjelioan, itzultzeko aurra ta Ama Israelgo lekuetara, ezi



iltzirela il nai zutenak aurrera. Itzulirik baratu ze familia sandua Nazareten beren etxean. An pasatu zue Jesus onak bizia ogeitamar urteak arteo, guti gorabera, obediengan, erretiroan, silenzioan, orazioan, penitengian guregatik... Zer ta zer pasatu zen bitartean, Jangoikoak daki: Ebanjelioak ezti, baizik lanze gau, nola amabi urtetakoa zelarik, bazkuan iganik Jerusalem, usatu bekala, itzuli zirela Maria ta Josef egun bateko bidean bera gabe, ustez eldu zen aida ta ezauneki. Falta zela ikusirik, ta nion ezin aurkitu, Jerusalem itzuli, ta irur egunen buruan aurkitu zutela tenploan Maestruen erdian aditzen ta galdegiten aiei: eta guziak zeudela arriturik beraren prudenzia ta errespuetaeki... Ama Santisimak erran zio, Ene Seme, nola in duzu ala gureki? Orra gu penas beterik ibili gara zure billa. Erres ondutu zue amoltsu, Eta zertako ibili ene billa? Etzekite ni bear nai zela enpleatu ene Aitari dagozkion gauzetan? Baña bereala joan ze aieki Nazareta, ta zegokiote obediente; ta zoeie alzinatus jakindean, adinean, ta grazian Jangoikoaren ta gizonen alzineko. Guziau dio ebanjelioan: Eta tugu bi exenplu on ikasteko: lenbizikoa buratsoei altxatze gura edo galtze gura gelditus tenploan doktrina Kristioaren erakusten erakustunei, ta errate ura enpleatzea ortan dela bere enplegua ta bere Aitaren gustokoa: berzea itzulirik bereala egote gura obediente ez solamente Ama Santisimari, baita S. Josefi ere. Oh! zer exenplua gasteen!

23. Ogeitamar urtetan zegolarik ia, ta ellegaturik denbora agertzeko munduari Jesus ona, ala nola iruzki berri dibinoa, argitzeko guziei, ta erakusteko zerurako bidea, ta paratzeko erremedioa, ta obratzeko salbazioa, zeuka prebeniturik bere alzindaria lentsago atra zena prestatzera Jaunaren bidea. Au ze S. Juan Baptista aurzututik bizitu zena eremuan orazio ta penitengia admiragarrian. aunaren manamenduz atra ze gizon berri bat bekala pregonatzera penitengia, ain beterik santidades ta grazias, ezi jendeek pensatzen zute ote zen Kristo bera, eta biali zitiote mandatariak galdegitera nor zen: Eta desengañatu zitue, etzela bera Kristo, ez, baizik boza klamatzen zuena desertuan, prestatzeko Jaunaren bidea; eta bataiatzen zitue jendeak Jordango ugaldean prebenzios. Berzeen ertean Kristo bera ere, emateko exenplu, ellegatu zekio bataia zezan. Sanduak Jangoikoaren argis ezaundurik, ta erreberenzias ta admirazios beterik erraten zio, Jauna, ni bear naiz izan bataiatua orren eskus: eta berori eldu da enegana? Errespondatu zio Jaun dibinoak, *utzazu orai, ezi ala da konbeni kunpli dezagun on den guzia*. Bataiatu zue bada S. Juanek, eta andik deitzen da *Bautista*, nai baitu erran *bataiazalea*: Eta bereala idiki zire zeruak, jautsi ze Espiritu Sandua Jesus onaren gañean uso baten idurian, eta aditu ze Aita Eternoaren boza ziola, *au da ene Seme onetia, zeintan baitut neure plazer, edo*

*konplazenzia. Adi zaze berori. Itz gebek aditu zire gero ere berriz Taborko oianean transfiguratu zelarik. Orra testimonio emana Zeruak ta lurrak Jesu Kristos. Orgatik dio S. Juan Ebanjelariak S. Juan Bautistas, izan zela Jangoikoaganik bialia, emateko testimonio argias: ezi bazela argi egiasko bat argitzen duena mundura eldu diren guziei: munduan zegola, ta mundua beraganik egina dela, ta munduak ezaundu etzuela. Bere propioengana etorri, ta bereek etzutela errezibitu: baña errezibitu zuten guziei eman ziotela esku, egiteko Jangoikoaren hume, Jangoikoaganik jaiok bekala. Eta Berboa egin zela gizon, ta bizitu zela gutartean. Au da Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoa, zeintas ematen zuen testimonio S. Juan Bautistak. Ala erran zioite Judatarrei, zuek uste duzien Kristo ez naiz ni: baña zuen erdian egon da zuek ezauntzen eztuzena. Eldu bada ere geroago ni baño, ni baño len da bera, zeñen oñetakoak lazatzeko ere ni ez naiz digno: zeñen eskuan dago sardea, aizeratzeko bere eulzia, eta granoak bildukotu bere graneroan, eta lastoak errekotu itzali ezaiken suan, au da, gozarazi onak Zeruan, penarazi gaixtoak infernua. Berze bein eldu zelaik Jaun dibinoa beragana, sanduak eskuas erakutsis zio, *Ona Jangoikoaren axuria, kentzentuena munduko bekatuak*. Orgatik pintatzen dute S. Juan Bautista axuri bateki aldaikan, mostratzen duela eriareki. Azkenean preso zegolaik S. Juan karzelean, andik biali zitio Jesu Kristori bi diszipulo galdegitera *ia erori den etorri bear dena, edo berzerik esperatzen dugun?* Ori etze ikasteagatik berak bazekiena, baizik munduari erakusteagatik nola zen. Errespondatu zue Jaun dibinoak, erran zoze *Juan, aditu ta ikusi du zena,itsuak ikusten, sorrak aditzen, ilak bizten, estropeatuak ibiltzen. &**

24. Bete zelaik denbora, joan ze Jesus ona lenik eremura, ta barutu ze berrogei egunes, guri emateko exenplu, ta konsagratus ala garizuma sandua: gero Satanaz tentatu zuena gulas, kodizias, eta banidades bota zue garaitus osoki, erakutsis ala guri, nola bear dugun garaitu bere graziareki. Gero agertu ze munduari gure Salbazale-Jangoikoaren grazia erakutsis ongi bizitzen. Agertu ze beraren humanidade ta benignidadea, au da Jesus gizon dibinoa, ta Jangoiko humanoa, zeintan ikusiarazi zuen Jangoikoak Jangoikoaren ona, ta benignoa gureki. Agertu ze gure Redentore, Medik, Maestru, Alzindari, Artzai, ta ongiegille soberanoa, salbatzeko nauten guziak ta gaitz guzietak. Nork pinta gizon berri gaste eder gura, zein ona ta amablea alde guzietak? Humanidade sandu gura ain admiragarri; senblantea ain sereno; begitarte aia amoroso; mintzaera ain afable humil manso alde bat, berze alde ain grabe poderoso efikaz! Biotz gura ain noble jeneroso; jenio gura ain suabe esneskoa; modua ta grazia ain ona; ta guzia ain perfekto kuadrablea guziei ezin iagos, ezi beiratzien ziotenei begi ones kausatzen baiziote amore ta errespeto! Nola ageri zen Jangoi-



kotasunaren Majestadea gañeko aldetik ere! Nola konsolatzen zituen biotzak beiratzas ere; maneraz, ezi omen ze erran komuna, *goazen Mariaren Semeagana alegra gaitzen!* Nork explika beraren manso onegia baizuke erran egiaz erraten zuena, *ikasazie eneganik, bainaiz mansoa ta humila biotzez?* Deitzen baizue ongi S. Juanek *Jangoikoaren axuria*, eta ala mostratu baize errealki obraetan Belengo ganbelatik guruzeraño, admititus ongi, tratatus amoltsu guziak, zirenak zirela, pobre edo abrats, gizonki edo emasteki, andi edo txipi, on edo gaixto! akonpanatus arranzari pobreeki, konbidatus bekatariak, besarkatus aurrak, konsolatus beartsuak. & Nork adiarazi beraren karidadea ta pazienza? Izanik Jangoikoa bezain ona, ta guziei ongi-naia ta ongi- egillea, alaere izatea persegitua ain malamente; ta alaere ain ongi eramatea, ta pagatzea ones gaizkiak, ta eskatzea etsaien faboretan! Nork erran beraren modestia, agradoa, zeloa, nekeak, orazioak, ongi eginak, prendak, eta birtuteak? Ezta mirik explika dezakenik. Aski da erratea, beraren onetik ta ongi eginetaik zeikela ezaun Jangoiko zela, ala nola argi-errañuetaik iruzkia atra dela. Orgatik erraten zue, *Ezpadidaze sinestatu nai niri, sinesta obra oneri; ebek ematen dute testimonio nitas...*

25. Amabi gizon berexi zitue beregana, deitu zituenak *Apostolu*, nai baitu erran *bialiak*, bialtzeko mundua barna, erakusteko beraren doktrina Zerukoa, ez aberatsak, poderosoak, letradunak, bai geienak arranzari pobreak ignoranteak, konbertitzeko mundua aieki, nola konbertitu baizue, ageri daien ontan ere Jangoikoaren eskua, ez gizonen indarra. Guzien buru señalatu zue S. Pedro, zeñi erran zion, *tu es Petrus*. & *Zu zara Pedro, edo arria, ta arri gonon gañean fundatuko dut nere Eliza, eta infernuek eztute indarririk, onen urratzeko diña. Eta zuri emanentizut Zeruetako erreinuaren giltzak, eta zuk lotzen duzun guzia lurrean, lotua kontatuko da Zeruan: eta zuk lazatzen duzuna emen, lazatua an.* Konfirmatu zio potestade andi gau, erresuzitatuas geros, zegolaik igateko Zerura, erranes irur aldis, *maite nauzu ni, Pedro?* arrek errespondatus irur aldis, *baietz:* irur aldis manatus bere Majestadeak, *bada guarda nere axuriak, kuida nere ardiak.* Gañarakoei eman ziote alaber potestade bere ariora barkatzeko bekatuak, konsagratzeko, ordenatzeko, egiteko sakramentuak, konjuratzeko, bedeikatzeko, predikatzeko, itz batez, egiteko bear den guzia bere Elizan. Ala utzi zue plantaturik Kristiandadea, eta emen depositaturik bere doktrina, bere sakramentuak, bere pasio, eriotze, ta odol preziosoaren merejimentuak...

26. Baña itzulis aixtekora, nai nuke flik emen aipatu berere, nola Jesus ona azken irur urte gaitan zebilan Artzai ona bekala antsiatu-rik, nekaturik, ta izerditu-rik askotan bere ardien billa, deitzen, konbidatzen, predikatzen, erakusten ia anitzei batean, ia bakotxai oroat, ia tenploan, ia

kanpoan, ia etxeetan, itsaso, oian, ta edozein lekutan, Misionari dibinoa bekala... Predikari onak beartu irur gauza; *doktrina ona: mintzaera ona, ta bizimodu ona.* Jesus onaren *doktrina* etzeke izan onago zen baño. Zer manamenduak! Zer konsejuak! Zer sentenziak! Edozein dela kunpli dezkiena sandu izanen da. Bada beraren *mintzaera*, modua, ta grazia zereki konpara? Zire propioiki gizon dibinoarenak. Erakusten zue *sicut potestatem habens* potestade zuen bekala, biotzen Jabe ta Jaun bekala, ez solamente bialis adimentura itzak, baita sartus biotzen barnean, ez itz uts ilak, baizie itz biziak sutan, argitzeko ta berotzeko biotzak. Predikuaren arima bekala da *bizimodu* sandua: ta zein sandua ze Jesus onarena? Mostratzen ze obra onetan ta milagroetan. Nork konta in zituen obra onak? Nork milagroak? Pasatu zuela bere bizia, dio eskritura sagratuan, *benefaciendo, et sanando omnes*, Act. 10 ongi egiten, ta erremediatzen guziak, zuelarik Jangoiko ta gizon bekala podore ta amore, salbatzeko gizagendea genero guzietan, erremediatu beartsuak, konsolatus tristeak, garbitus leprosoak, argitus ituak, sendatus heri-mota guziak, biztus ilak, libratu endemoniatuak, desengañatus engañatuak, barkatus bekatuak, ondus Ara ta onak obetus, eta ainberze obra on obratus, ezi guziak eskribitzekos, ezin kabi leizke munduan libru inen zirenak, dion bekala S. Juanek ebanjelioaren akaban-zan. Obrarik obena, andiena, ta prinzipalena izan ze plantatzea munduan errelijione bakar egiaskoa, honratzeko gizonak Jangoikoa.

27. Oh! zenbat daiken erran errelijione gonon gain! Zenbat on letor-ken, ongi guarda baledi, oraiko, gero, ta betiko! Da preziso zerbait erratea onen gain, estimatzeko ta logratzeko fortuna duguna izateas Kristio Jangoikoaren graziaz. Laur erruedaetan inguratzen bekala da errelijione Kristioa: bi prinzipalenak *Fedea ta legea*: berze biak *orazioak* eta *Sakramentuak* Elizaren gañarako auxilioeki. Fedea da sinestea ikusi gabe, zeren Jangoikoak errebelatu, ta Elizak ala erakusten duen. Fedesko egia dire emateko notizia ta ezaumentu Jangoikoas, Jesu Kristos, bizitza sekulakoas, ta gañarako sinetsi bear direnes. Oh! zein notizia onak ematentuen errelijio- ne sandu gonek! Zer falsedadeak, ta Jangoikoai eztagozkion gauzak sal- tzen diren munduko berze sekta, eta errelijione falsuetan! Legea da nola erregla kidatzeko bizimodua, ta ibiltzeko zuzen Jangoikoaren bideas, zerurako bideas. Ezta posible izatea lege obeagorik lege Kristioa baño: batere gaizkirik ez admititzen, ta ez permititzen: kontra bai on guzia manatzen edo konsejatzan. Fundatzen da zerurako eskalera amar manda- mentuena karidadearen bietan, *onestean Jangoikoa, ta onestean proximoa Jan- goikoagatik*. Goardabaledi ongi, pensa zein ongi ginazken! Gloria gero seguro, ta bitarteo gloria gisa bat lurrean ere. Guardatzen laguntzeko, ta



autxi ondoan erremediatzeko, or tuzu Elizako orazioak, ta sakramentuak, ta predikuak, ta doktrinak, ta gañarako auxilioak: guzien gañetik Sanduen, Aingiruen, ta Maria Santisimaren enpeñues landara, Jesu Kristoren odol prezioso ta merejimentuen birtutea utzi duena depositaturik bere Eliza gontan, salbatzeko Kristioak, nai baute: zeren ezi Eliza gau da Jangoikoa-ren familia, zeñen buru baita Jesu Kristo, Ama bere Ama Santisima, anai eta arrebak Sanduak eta Sandak, soldado guardiakoak, ta kuidazaleak Aingiruak. Zer fortuna ezta alako etxean alako familian kontatzea bat? Nori zor diogu fortuna gau, baizik Jesu Kristori, zeñek plantaturik munduan berexi gaituen gu bere etxe ta familiarako, egines gu Kristio bataio sanduan?...

28. Nork daki ordea, diozu, au ote den Jangoikoaren errelijione bakar egiaskoa? Ortako Jangoikoaren itzas landara tuzu señaile klaroak, itsuek ere kasi dezazketenak ikusi, nai badute. Bat da izatea ain konforme fedean ta legean errelijione izan dutenari Sanduek mundua munku denas geros, egia berberak sinesten, gauza berberak manatzan len ta gero Jangoikoa-ren gustora. Berze bat da lendanik Jangoikoak emanikako profeziak, ta señaileak beiratzeta kunpliturik Elizan ofrezitu bekala puntualki. Berze bat da Kristiandadearen plantazio miragarria gizon pobre ignorante zirenen gaien medios lurreko armarik ta indarrrik gabe infernuaren, ta munduaren, bizio ta kostunbre gaixtoen kontra. Nork eztakusa dabilala emen Jangoiko andiaren esku poderosoa? Berze bat da errelijione Kristioaren unio-nea, konformidadea, ta konstanzia beti batean leku ta denbora guzietan, bentzait sustanzian, bat den bekala Jangoikoa beti. Kontra berriz munduko sektaetan, nola baitatoz gizonen buru ta gogoetaik, ainberze diferenzia ta aldaketa Ubora ta lekuetan. Berze bat da irautea errelijione Kristioa ainberze kontrarioen erdian, naiz onen urratzeko ta desegiteko enpeñaturik infernua ta mundu gaixto guzia indar, ta injenio, ta malizia guziareki. Berze bat da Martir Kristioen martirio ta triunfo gloriosoen admiragarria, sufritus suak, ezpatak, tormentu-genero ainberze ain ikaragarriak pazienza ta arimo onareki, baitare alegiareki, oroat gizonkiek, oroat emastekiek, ta gastettoek. Nork in zuke lan gau, baizik Jangoiko onak faboratus bereak? Berze bat da milagroketa obratu duena Jangoikoak ainberze ta ain klaro, ta ones guziak. Indute herejeek ta infielek ere zenbait miragarri Deabruaren arte gaixtos, ez ones, ez onerako, bai gaitzerako, ta engañutako. Berze bat da komunikazio duena Jangoiko onak Kristio oneki, espezialki orazioan fabore ta erregalo itentiotenak: Emendik gero aien santi-dade, argitasun, arimo ta koraje andia, obratzeko gauza prodijioso onak. Berze bat da Sakramentu Kristioen efektoen mostra zenbait ageri direnak

ta sentitzen askotan, ala nola konfesio onari askotan darraion konsolazio ta konfianza gozoa, Komunioneiko gusto ta deboziosko negarrak, ez guzietan, bai zenbaitetan, aski baita, ezauntzeko Jangoikoaganik direla. Azkenik ezauntzeko Jangoikoaganik dela errelijione Kristioa, señaierik obena da onen ona ta sandua alde guzietaik Jangoiko beraren konforme, zeren ezi, naiz gu gaixtoak garen ta bizioetara inklinatuak, Jangoiko Jauna bear dugu pensatu dela libre gure pasioneetaik, guziz ona, perfektoa, ederra, garbia, sandua: bada ario gortara da bere errelijione Kristioa, doktrina sandua, sakramentuak sanduak, lege, ta gauza guziak tu sanduak: eztu permititzen gaizkirik batere: manatzentu gauza onak, konsejatzan obeagokoak. Kontra berriz munduko sekta gaiek permititzeunte asko zikintasun ta gauza gure pasioneen ariora, ez Jangoikoaren gustora. Alegatzen dutenai infielek ta herejeek, badirela Kristioetan anitz gaixto, bear da erres ondatu baietz, baña alakoak direla Kristio falsuak errelijionearen kontra, ezi gaixto den guzia aborrezitzen ta debekatzan du errelijione Kristioak plantatu zuenak Jesu Kristok Jangoiko bezain onak...

29. Milagro egin zituenak Jesus onak dire ezin konta ala. Baña kontatzkigun zenbait agerrian in zituenak. Lenbizikoa izan ze Kana deitzen zen erri batean Galilean, zelebratzetan boda bat, non aurkitu zen konbit bere Majestadea bere Diszipuloei: ta bere Ama Santisima ere zego an. Ezpide zire abratsak desposatuak, ezi obenean faltatu ze ardoa. Enpeñaturik Ama Santisima mintzatu zekio bere seme dibinoari erraten ziola, *eztute ardorik*. Jaun dibinoak manaturik bete zuzte ures an ziren tinaja edo kantaro batzuk, gero atratzeko: eta atra ze ardo exzelente bat, milagroskoa bekala. (Joan. 2) Berze aldi batez jendetze andia bildurik Jesus onaren atzean eremu batean, erran zio S. Feliperi, nondik erosiko dugu ogi ebendako diña? Apostoluak errespondatu zue, anitz diru bear zela, ematekos pixka bana ere. S. Andresek erran zue, bada emen mutiko bat tuena borz ogi, ta bi arrai: baña zer da ori ainberzeendako? Jaunak manatu zue jarriarazteko jendea: eta bere esku dibinoetan arturik ogiak bedeikatu zitue, ta arraiak oroat, ta emanik jatera guziei, guziek nai adiña jan ondoan, sobratu zire amabi esporta, zirelaik bortz milla persona. (ib. 6.) Berze ainberze egin zue berriz gero: baña erreparatzeko zena ze bere biotzaren beratx onegia erratean, *lastima dut jendeas, baitatoz ene atzetik irur egun ebetan, eta baru despeitzen baditut, angabetuko dire bidea*. Math. 15. O Jesus, zein Aita on amoro-soa den! Manatu zio bein S. Pedrori, botatzeko sareak arranzurako. Jauna, zio arrek, gau guzian nekaturik lan ortan, ezin deus ere atra dugu: baña berorren manura botako dut sarea. Bota zue, ta ainberze logratu zue, ezi auxten ze sarea pizuegis, eta atratzekos bear izan zue deitu lagu-



na... Luc. 6. Gisa berean kasi agitu zekio, erresuzitatuas geros Jaun dibi-
noa. Joan. 21. Eta nork daki zenbat aldis iago ta iagotan? Maneraz ezi arri-
turik bein S. Pedrok erran zio, *Jauna, aparta bedi eneganik, bainaiz gizon beka-
taria ni*. Bein trebutuen kobrazaleei pagatzeko, manatu zio S. Pedrori, *zoaz
itsasora, eta botarik hamua, lenbiziko atrako duzun arraiaren hagoan aurkituko
den moneda emozute ene ta zure partez* Math. 17. Itsasoan garenas geros, noaie
kontatzera berze milagro bat. Enbarkaturik bein bere Majestadea Diszi-
puloeki agitu ze itsasoaren nastekazio erru bat: uraldies onzia estaltzen ze:
guziak ikar ikar, ta bera lo. Joan prisaka, ta idatzarri zute, *Jauna, libra gai-
tza, galduak gara*. Jaun dibinoak sereno amoltsu, erran ziote, *o fede gutitako-
ak, zertas zarate beldur?* Jaiki ze ta manatu ziote aizeei ta itsasoai: eta guzia
istantean gelditu ze trankil sosegu andian: baiziote jendeek arriturik, Nor
da au, ala obeditzen baitiote aizeek eta itsasoak? (Math. 8.) Berze bein
itsasoan barna joanik Diszipuloak, gelditu ze Jaun dibinoa oianean ora-
zioan: bitarteo aize erru bateki zebila itsasonzia gorabera. Gauerdias
geros joan zekioe Jaun dibinoa uren gañean oñes. Aiek ustes fantasma-
ren bat zen, lotsatu zire. Jaun dibinoak oiur in ziote, *ni naiz: etzaiztela lotsa*.
S. Pedrok erran zio, *Jauna, berori barin bada, mana bez noaien ni berorregana
uren gañean*. Bai, errespondatu zio, *atoz*. Bazoeie S. Pedro uren gañean ones
tieso: baña aize erru bat goratzeareki beldurtu ze, ta asi ze ondutzen; oiur
egin zio, *Jauna, guarda benaza*. Bereala edaturik eskua Jaun dibinoak goratu
zue, erraten ziola, *fede gutitakoa, zergatik dudatu duzu?* (Math. 5.) O ene
Jesus ona, poderoso bezain amoroso, nork galduko du konfianza orren
piedadean? barin balego ere arrixkorik andienean, ta eriotzearen ilunbea-
ren erdian ta ia ia ondatzeko infernuan? *Etsi ambulavero in medio umbrae mor-
tis*. &. ps. 22. Orreki barin banago nonnai seguro nago. *In te, Domine, spe-
ravi*.

30. Bada gorputzen gaitz sendatu zituenak nork konta? S. Pedrok
dio, pasatu zela Jesus ongi egiten, ta sendatzen guziak. Act. 10. S. Luka-
sek ere dio (6.) jende guziek nai zutela ukitu, zeren beraganik atratzen zen
birtutea, ta sendatzen zituen guziak. S. Mateok ere dio, libratzen zituela
gaitz ta malhur guzietatik. Asis leprosoetaik, bat bein urtiki zekio oñetan
ziola, *Jauna, nai badu, banazake garbitu*. Jesus onak bereala ukitus bere
eskuas erran zio, *nai dut bada, geldi zaite garbi*. Erran ta egin: istantean gar-
bitu ze arras. (Math. 8.) Berze bein amar leproso urrundarik asi zekizkio
oius, o Jesus, urrikari bedi gutas. Jaun onak erran ziote, *Joan ta ager zaizte
Sazerdoteeri*. Joaterakoan aurkitu zire garbiturik (Luc. 17.) Juntazagun
emen berze gau: emasteki pobre bat gastatu zuena zuen guzia medikueki
sendatu naiez odol jariatik amabi urtes, ta ezin sendatu zena, zoeie bein

Jesusen atzetik jendearen ertean ellegatu naiez ta ezin ellegatus, ziola
berebaitan, ellega banedi ukitzera solamente bere bestimentaren kanton
bat, senda nindeike: Noiz ere bait ukiturik gelditu ze sana guzis. Jesus
onak itzulirik galzezin zue, nork ukitu nau? Errespondatu ziote, Jauna,
ainberze jendeketak ertxitzen du, ta galdegiten du ori? Bai, erran zue,
badakit atra dela eneganik birtutea norbaiten onerako. Orduan pobre
garrek alketurik humil konfesatu zue agitu zekiona: eta Jaun onak amol-
tsu erran zio, *konfia, ene humea, ezi zeure fedeak baliatu ditu* Math. 8. Prinzi-
pe Jaun batek eskatu zio nai bazio mextxede egin joateas arren etxera, ta
sendatzeas seme bat zeukana ia iltzat. Jaun onak erran zio, ezpada ikusis
milagroak eta prodigioak, eztuzie sinetsi nai. Arrek, Jauna, otoi, betor, il
baño len ene semea. Jesus onak, zoaz, ezi zure semea bizkortu da. Bazo-
eie ura, ta bidean opatu zitue mutilak eldu zirela erratera nola ongitu zen:
eta galdegini orduas aurkitu zue izan zela Jesus onak erran zion ordu
berean (Joan. 4) Zenturion edo kapitan batek eskatzen zio senda zezon
bere mutiko bat zeukana perlesiatuak goatzean. Jesus onak errespondatu
zio, neuronek joan ta sendatuko dut. Zenturionak orduan erran zio,
Jauna, ni ez naiz digno orren Majestadearen errebitzeko nere etxean,
baizik solamente erran bez itzez, ta sendatuko da nere mutikoa. Zoaz
bada, erran zue Jesus onak, ta nola sinetsi duzun, egin bedi. Denbora
berean gelditu ze ura sano ta sendo. Berze perlesiatu bat ekarri ziote etzi-
nik bere goatzean, eta lekurik ez izanes ataritik, tellatutik sartu ta paratu
ziote alzinean. Jesus onak alako fedea ikusirik erran zio heriari, konfia, ene
humea, ezi barkatuak dire zure bekatuak. Presente zeuden Eskriba ta
Fariseo batzuk asi zire marmar beren baitan ziotela, onek blasfemia dar-
duka. Ikusirik aien gogoia Jesus onak erran ziote, *Zergatik zauzte pensatzen
gaizki zeuren gogoan? Zein da aisago? edo erratea, barkatuak dire zure bekatuak,
edo jaikizaite ta zoaz zeure ones? Bada Jakin dezazen duela Birjinaren Semeak
potestade barkatzeko bekatuak*, erraten dio heriari, *ea, jaiki, artu soñean zeure
goatze goi, eta zoaz zeure etxera*. Erran bekala egin zue (ib. 9.) Berze batena
izan ze agitz famatua. Ze Jerusalem pizina bat, nora jautsis aldarrez
Aingiru batek mogitzen zuen ango ura, eta gerostik lenbiziko jausten zen
heria sendatzen ze. Orgatik zego ingurugura beterik heris, estropeatus,
malhurres, ertxi deten eskaida, alzinatzeko. Pobretto bat zego an heri ia
ogei ta emezorzi urte gaitetan. Urbildurik Jesus onak erran zio amoltsu,
pobretto, *nai duzu izan sendatua?* Arrek, *ai Jauna, eztut gizonik laguntzeko jau-
tsitzen, eta ala berzeak alzinatzen dire, eta ni emen beti erremediorik gabe*. Bada ots,
erran zio Jaun onak, *jaiki ta arzazu soñean zeure karretan goi, eta zoaz emen-
dik*. Ala egin zue istantean sano ta sendo. Eskriba eta Fariseo hipokritek



erraten ziote sendatuari, jaieguna da, ezta zillegi soñean eramatea egun karreton goi. Arrek zio, sendatu nauenak erran dida eramateko... (Joan. 5.) Berze aldi batez sartu ze aien sinagogan, edo batzarrean: Presentaturik an gizon bat zeukana esku bata earturik, Jaun onak galdegin ziote hipokrita gaiei, zillegi da jaiegunean sendatzea? Aiek ixil. Orduan Jaunak, zuetaik bati eror balekio azekian bere ardi edo hazienda jaiegunean ez lezake atra bereala? ta zenbat obeago da gizona hazienda baño? *Diot bada, zillegi dela jai egunean ongi egitea.* Orduan gizonai, *edazazu esku gori.* Edatu zue, ta aurkitu zue berzea bezain sano. (Math. 12.) Oroat sendatu zue hidropiko bat, galdegines lenik aiei, ia zillegi zen: ta erranik ezi aien idi edo astoren bat eror baledi butzuan, naiko luketela atra jaian oroat. Luc. 14. Oroat emasteiki bat ezin goratu zuena burua emezorzi urtes (ib. 13.) Zein ona Jesus! Zein gaixtoak hipokrita inbidiosoak beren kaltetan!

31. Itsu pobreendako ere ze Jesus ona. Jerikotik atratzean bein, an bide-ondoan zego itsu bat eskean: Oni erran ziote, an zoeiela Jesus Nazarenoa. Asi ze pobrea oius, *o Jesus Dabiden Semea, urrikari bedi nitas.* Erraten ziote askok zegola ixilik. Ark iago oiui, *o Dabiden Semea, urrikari nitas.* Baratu ze Jesus ona, ta ekarrarazi zue itsu gura beregana. Erraten ziote arri, *konfia, deitzen zaitu.* Bereala botarik tresena joan ze saltoka. Jaun onak erran zio amoltsu, *Zer nauzu in ezazuten?* Arrek, *Jauna, ikus dezaten.* Jaunak, *Bada ikusazu: eta zoaz, ezi zeure fedeak in dizu on.* Bereala ikusirik klaro zoeie Jesusen atzetik alegre. (Marc. 10.) Berze alako bat argitu zue gisa berean. (Math. 20.) Eta norktiki zenbat? Baña famatua izan ze jaiotzez itsu zen batena, kontatzen baitu S. Juanek. (c. 9.) Ikusi zue pasatzean Jesus onak. Bere Diszipuloez galdegin ziote, Jauna, nork ote du kulpia, beronek edo bere buratsoek, jaiotzeas au itsu? Errespondatu zue, *ez onek, ta ez buratsoek, baizik manifesta daien Jangoikoaren podorea ontan.* Beraren obrak obratu bear tut nik nagon bitarteo munduan; munduaren argia naiz ni. Au erran ta bere lixtuas ta lurreko autsas egin zue loi, ta oneki untatu zitio begiak: ta biali zue garbi zeien Siloeko balsan. Joan ze, garbitu ze, ta itzuli ze ikusten zuela ia klaro. Ezauntzen zutenek ziote, ezta au pobre gura zegona limosna eske? Batzuek ziote, au da: berze batzuek ezetz, baizik berze bat arri iduritua: baña berak zio, ni nerai nai zela. Galdegiten ziote, nola idiki zaizkizu begiok? Errespondatu zue, Jesus deitzen den gizon garrek loi eginik lixtuas untatutida begiok, ta errankida, zoaz Siloeko balsara, ta garbi zaite an. Joan naiz, garbitu naiz, ta ikusten dut. Aiek, eta non dago gizon gura? Ark, eztakit. Daramate bada itsu izana Fariseoengana: ezi jaieguna ze noiz Jesusek loi egin, ta idiki zition begiak. Fariseoek berriz galdegiten ziote, nola izan zen ikuste gura. Arrek zio, paratu dida loa begien gañean, ta

garbitu naiz, ta ikusten dut. Ziote aietatik batzuek, ezta Jangoikoaren partetik gizon gura, eztuena guardatzen jaieguna: Berze batzuek ziote, nola gizon bekataria dezaske egin alako seña: eak? eta ala diskordia zute elkarren artean. Erraten diote bada itsuari, zuk zer diozu idikitizunas begiok? Arrek zio, zela Profeta sandua. Etzute nai sinetsi, itsu izan zela ta argitu zela, deitu arteo arren buratsoak. Ebei galdegin ziote, au da zuen semea itsu jaiotzea diozeta? Nola bada orai ikusten du? Errespondatu zute, bada-kigu dela au gure semea, ta itsu jaiotzea: baña nola ikusten duen orai, eztakigu: edo nork idikition begiok, eztakigu: berorri galde bezote, badu adin, erran bez bere buruas. Au ziote buratsoek Judioen beldurrez, ezi ia manatu zute Judioek botatzeko nornai konfesa zezana ura zela Kristo. Deitu zute berriz itsu izana, ta erran ziote, emozu gloria Jangoikoai: guk badakigu gizon gura dela bekataria. Arrek erran ziote, bekataria barin bada, eztakit: dakitena da, itsu nitzalaik ni len, orai ikusten dutela. Erran ziote aiek, zer egin dizu? Nola idikitizu begiok? Errespondatu zue, ia erran diotet, ta aditu dute ia: zergatik naute berriz aditu? Naute agian arren Diszipulo izan oriek ere? Madarikatu zute aiek, goaie i, arren Diszipulo izan adi: ezi gu Moisesen Diszipulo gaituk. Guk bazeakitau Moisesi mintzatu ziola Jangoikoak: baña au nondik den etzeakitau. Errespondatu ziote Igonarrek, ori da iago arritzeko, eztakitelaik nondik den, argitu baititu ene begiok: eta dakigu Jangoikoak eztituela aditzen bekataria, bai bere zerbitzukoak, bere borondatea iten diotenak. Sekulan ezta aditu argitutuela niork ere itsu jaiotzea begiak. Ezpaliz au Jangoikoaren aldetik, ezin lezake deus egin. Errespondatu zute, bekatuetan jaiotza aiz guzioi; eta ik nai diguk erakutsi guri? Eta bota zute kanpora. Aditurik Jesus onak bota zutela, opatu zuelaik, erran zio, Zuk sinesten duzu Jangoikoaren semea? Arrek, eta nor da, Jauna, sinesteko nik? Jesus onak, Ikusi duzu, eta zureki mintzatzen dena da bera. orduan arrek, Sinesten dut, Jauna. Eta urtikirik lurrean adoratu zue beraren Majestadea...

32. Bada espiritu gaixtoetaik libratu zituenak zenbat dire? nork kontatzen? Bakotx batzuk aipazkigun. Aita batek bein ekarri zio bere semea zuena espiritu mutua, botatzen zuena askotan lurraren kontra, ta maltratzen asko maneras: Jauna, zerbait al badezake, in bezagu fabore, zio Aitak. Jesus onak errespondatu zio, *al badezakezu sinetsi, guzia da posible sinesten duenai.* Aitak negarrez, *sinesten dut, Jauna, bizkor bez ene fede heria.* Jaunak bereala manatus atrarazi zue espiritu gaixtoa, ez itzultzekotan. Mark. 9. Berze bi Demonio ikaragarri bota zituela, dio S. Mateok. c. 8. Berze bat c. 9. Berze bat itsua ta mutua c. 12. Eta berze asko berze lekutan: konfesatzen zutela oius, zela Jangoikoaren semea Jesus botatzen zituena. Eta



zenbat iago dire kontatzen eztirenak? Kontagarri da berex agitu zena Kananeareki, ikasteko eskatzen bear orduetan. Erris-kanpokoa ze, erre-medio billa etorri zena urrundani. Eta ikusirik Jaun dibinoa jende askoreki, oi u iten zio gogotik, *O Jauna, urrikari nitas, baitut alaba bat Demonioak maltratatzeko duena*. Jaunak itzik ere ez: bere bideas segi. Arrek iago klamatzen, urrikari nitas. Diszipuloez erran ziote, *Jauna, despei bez, ezi oi u beti eldu da atzetik*. Errespondatu zue, *Israelgo ardi galduen billa etorria naiz ni*. Bitarteo ellegaturik Ama gaixo gura paratu zekio belauriko, *Jauna, otoi otoi fabore in bezada*. Jaunak grabe dio, *ezta ongi, humeen ogia ematea txakurrei*. Andreak humil, *bai, Jauna, ezi txakurttoek ere jatentute Nausiaren maietik eror zen diren pixkak*. Orduan Jaunak, o emastekia, *andia da zure fedea*. Egin bedi nola nauzun. Ordu berean alaba gelditu ze libre espiritu gaixtoaganik bere etxean. Erran emen, ta an egin. Oh! zenbat balio duen humiltasunak ta konstanziak eskatzean! Bitarteo arritzeko da, nola Judio hipokrita sandu presumitu gaiek zeuden ain itsuturik esus onaren kontra ziotela, barnean zeukala Demonioa, onen medios botatzen zituela berze Demonioak.

33. Ilak ere bizten zitue Jangoiko bekala; norktaki zenbat? Irur kontatzen dire Ebanjelioan: bat Prinzipale baten alaba, amabi urtetakoa. Onen Aitak eskatu zio sinki, Jauna, oraletan il da ene alaba: *baña betor, ezi orren eskuak biztuko du*. Joan ze etxe gartara, ta apartarazi zue jende bildu zena an, erranes, *aparta emendik, ezi eztago ilik neskattoa, baizik lo*. Au zio, zeren ezpaizego illik betikos biztu bear zuena berla: eta lo zegola, zeren ain aisa nola idatzartzea lo dagona baize biztea ila beraren podorearen. Sarturik kuartoan artu zue eskutik ila, erraten ziola, *ea donzella, jaiki zaite*; ta jaiki ze bizi ta bizkor. Berze il bat opatu zue Naingo portalean zeramatela ortzitzera alargun baten seme bakarra: asko jende zoeie akonpañatzen, ta Ama negarrez. Jesus onak urrikariturik erran zio, *ezdezala negar egin*: eta ilari erran zio, *mutila, nik manatzen dizut, jaiki zaite*. Jaiki ze ila bizirik, ta entregatu zio Amari. Nork in zuke alakorik berez, ezpada Jangoiko denak, biziaren ta erioaren Jabe ta Jaunak? Famatuago izan ze biztea Lazaro S. Magdalenaren ta S. Martaren anaia. Heri zegolarik au, bi aizpaek biali ziote Jaunari mezu gau, *Jauna, orrek maite duena, heri dago*. Jauna egon ze geldi zenbait egun joan gabe: ta bitarteo iltze Lazaro, ta ortzi zute. Orduan Jesus onak erran ziote bere Diszipuloei, *gure adiskidea Lazaro dago lo: banoaie idatzarri dezaten*. Erres ondatu ziote, lo badago, ongi dago. Baña Jesus onak zio erioaren loas: ta bereala erran zue klaro, *Lazaro il da. Eta zuengatik plazer dut ezpainego an, sinetsi dezazen: baña goazen bergana*. Joan ze bada, aurkitu zue ortzirik zegola ia laur egun gaietan. Martak aditu zuelarik etorri zela Jesus, bidera atrarik erran zio, *o Jauna, ori egon*

baze emen, ene anaia etze ilen. Baña oraño ere badakit, edozein gauza eska dezan orrek Jangoikoi, emanen diola Jangoikoak. Jaunak erran zio, *biztuko da zure anaia*. Martak, *badakit biztuko dela erresurrekzioko azken egunean*. Jesus onak emen, *Ni naiz erresurrekzioa ta bizitza*. Sinesten duena enebaitan, *naiz il daien, biztuko da: eta bizi ta sinesten duten guziak ni baitan, eztire ilen betikos*. Sinesten duzu au? Martak, *Bai Jauna, nik sinetsirik daukat, berori dela Kristo Jangoiko biziaren semea mundu gontara etorri dena*. Gero obiara joanik manatu zue Jaunak kentzeko ar-lauza gañekoa. Martak berriz, *Jauna, ia urrintzen asi da ila, baitu laur egun*. Jaunak orduan, *eztizut erran, sinesten baduzu, ikusiko duzula Jangoikoaren gloria*? Ellegaturik urbil egin zio oi u andi bat ilari, *Lazaro, atoz kanpora*. Istantean jaiki ta atra ze ila bizirik bere mortaxareki loturik esku oñak, ta aurpegia pañolo bateki, zeudelaik guziak arriturik: manatu zue Jaunak lazatzeko ibili zeien. Ikusi zute Judatarrek Lazaro ila, ez solamente bizirik, baitare txutirik ibiltzen, ta gero jarririk maian jaten, edaten, jardukitzen, ta gero asko urte bizitzen. Izan ze lukro Marsellako Obispo Franzian. Irur il biztu gaietan bada misterio. Lenbizikoak bere ganbaran oraño, signifikatzen du bekadari erori dena mortalean, baña munduaren begietarako sekretoan, ezi Jangoikoaren begietarako ezta sekretorik. Bigarren ilak karrikan mostratzen du bekadari erortzen dena mortalean agerrian ere. Lazaro il ortzi urrinduak obian adiarazten du bekadari eroria kostunbre gaixtoan, nola animalea bere ongarrian, eztuela ajolarik jaikitzeas, baitu in ernu-urrian. Bata berzea baño iago kostatzen da biztea, diot, bekadari beraren aldetik, ezi Jesus onaren aldetik guziak daizke biztu ta sendatu, nai baute berek, infernura baño len. Eta nork sinesta eztutela nai berek beren ona guziek? Baña egia da nai eztutela askok. Nork sinesta alako ongi eginek etzuztela inzitatu guziak onestera ta estimatzera Jesus ona ongiegille dibinoa? Baña anitzei su eman ziote, persegitzeko beraren Majestadea, ta botatzeko mundutik len baño len. Baike beti bekadariak beren kontra; ezi Jesus onaren kontra direnak nola eztire beren kontra? Jesus ona berriz beti bekadarien fabore. Au dugu ikusteko orai.

34. Zertan geienik agertu zuen bere ona, podore ta amore infinitoa Jesus onak, izan ze bekadarien faboretan, billatzean, barkatzean, salbatzean bekadariak: Ori ze bere pretensioa, ori bere ofizioa, ori bere gustoa, bekadarien Redentore, fiadore, ta pagadore etorria bekala; orren konforme du izena ere Jesus Salbazalea. Etze bekadari Jesus, ez: bai bekadarien adiskide ta amazalerik obena ondu naies: bekatuen kontrario, bekadarien amante, ala nola Ama onak amatzen duen hume heria, aborrezitus arren gaitza. Orgatik murmuratzen ziote sandu presumituek, *onek admititzentik bekadariak, ziote, ta bazkaltzen dik aieki, ta aieki tratatzen*. Zer dio ontara



Jesus onak? Eztio ezetz: Diona da, *eztutela Mediku-bearrik ongi daudenek, baizik gaizki daudenek. Ez naiz etorri ni, dio, deitzera justoak, baizik bekatar-riak*. Ortako kontatu ziote ardi galduaren parabola, nola billaturik Artzaiak, ta arturik soñean itzuli zen kontent. Ortako kontatu ziote seme Prodigio galduarena, nola Aitaren etxetik joanik, ta miserias beterik, bere bearres itzulirik, ellegatubañ len atra zekion Aita bidera, besarkatu, bes-titu, ta zebratu zuen alegre arren oneratuas. Bietan dio, ala alegratzen direla Aingiruak Zeruana, penitentzia iten duelaik bekatar batek lurrean. Ortako utzi zue bere Elizan potestade, barkatzeko bekatuak: Ortako in zitue Juez munduan ez Aingiru zerukoak, baizik sazerdoteak, gizon lurre-koak, bekataria, ta nonnai, barkatzeko piadosoki, ta edozein bekatu anitz eta andi naizbai, non ta konfesa dezkiten humil ongi penaturik. Ortako ere, ta desengañatzeko sandu presumituak, kontatu zue Luc. 18., nola bi gizon joan ziren tenplora, bata Fariseoa, berzea publikanoa, edo bekatar publikoa. Fariseoak txutirik ziola, O Jauna, esker milla diot, ezpainaiz ni nola berzeak, la urrak; injustoak, deshonestoak, ala nola publikano gau. & Publikanoak berriz an zokoan humil humila, goratzera ere begiak trebe etzela, bularra golpatu ziola, *ene Jangoikoa, izan bez piedade ni bekataria: barka bezada*. Erraten dizet, dio Jesus onak, ezi au itzuli zela barkaturik, ura ez bekala, ezi humillatzen dena izanen da goratua, ta goratzen dena humillatua. Guziau zio salbatu naies bekataria, ta salbatu zitue nai izan zutenak.

35. Kontazkigun zenbait: lenbizikoa Magdalena. Konbit zegolaik Fariseo baten etxean Jesus ona ia jarriarik maian, ara non eldu zaion emas-teki bat bekatar izana, ta paraturik beraren oñetan asten da *negar ta negar oiñ sandu gaiek erregatzen*, dio Ebanjefioak. Luc. 7., ta apatzen, ta unjitzen ungendu preziosos. Jesus ona geldi beira, nola negarres garbitzen den perla prezioso gura loietik. Fariseoa marmar berebaitan diola, au balitz Profeta, ezaun lezake, nolakoa den oñetan dagona, baita bekatar. Jesus onak errespondatu zio gogora, *Simon, erran bear dizut gauza bat: Artzeko zuenak bati barkatzen dio berrogei ta amar, berze bati borts eun: zeñek maitatuko du iago? Arrek, Jauna, uste dut ezi nori iago barkatu dion, arrek. Ongi diozu, erran zue Jesus onak; ikusten duzu emasteki gau? Zure etxera etorri naiz; ezti-dazu garbitu oñak ures: onek erregatutida negarres: eztidazu unjitu burua olios: onek bai onok ungendu preziosos. &. Orgatik erraten dizut, barkatzen zaizkiola anitz bekatu, zeren anitz onetsi baitu. Eta emastekiari dio, barkatzen zaizkizu beka-tuak. Asi zire maiekoak murmuratzen, nor da au, barkatzen ere baititu bekatuak? Baña Jaun onak erran zio Magdalenari, *zeure fedeak salbatu zaitu: zoaz bakean*. Orre zein onegia Jesus bekatarien, ez solamente barkatzen,*

baizik ere defendatzen du bekatar penitentea. Orre beraren piedades Magdalenari bekatar izanak etzio estorburik egin, izateko sanda lenbizi-koa litanian. Berze bat deitua Zakeo berze ziudade batean zego ikusi naies Jesus ona pasatzerakoan, ta ezin ikusis, txipittoegi izanes, jendetzearen ertean, orgatik alzinatu ta igan ze arbole batera ikusteko andik: baña Jau-nak ikusi zio lenik biotza, ta oiua egin zio pasatzean, *ola Zakeo*, jautsi laster, ezi egun zure etxeko aldi naiz. Jautsirik bereala akonpañatu zue arrek etxera kontent. Mar mar Judatar hipokritek Jesusen joateas bekatar garren etxera, baña orgatik etzue utzi bere ongi egitea. Zadueok erran zio, Jauna, ene ondasunen erdia biz pobreendako, eta noribaiti perjuiziorik in badiot, errestituzioa laur doble in nai dut. Jesus onak orduan, *dio ezi egun obratu dela salbazioa etxe gontan, au ere baita Abrahamen hume. Birjinaren semea etorria da billatzera ta salbatzera galdu zena*. O Jesus ona, ta onegia, bekatariek bear bekalakoa! Orre arrek solamente ikusi nai zue orren Majestadea, eta bidanabar solamente pasatzean; baña berorren Majestadea alzinatzen zaio, ta sartzen zaio beraren etxera, emateko on guzia. Ikusagun berze bat zegona jarriarik bere tratuen alkian. Ellegatzen da an Jesus ona pasatzean beiratzen dio ta erraten dio, *segi nazazu ni*. Bereala guzia utzirik, segitzen du Jaun dibinoa: eta orre tratante zena eginik A postolu, ta gero Ebanje-lari: Au da S. Mateo. Ikusagun berze bat oroitzen ere etzena Jesus Salba-zaleas, ta ain guti salbazioas: nola billatzen duen Artzai onak. Ellegatu ze Samariako ziudade Sikar deitura nekatuak ia eguerdirat: jarri ze an butzu baten pokalean: bitarteo oanze arara emasteki bat ur eske: Jaun dibinoak eskatzen dio trago bat ur: Ark erraten dio nola izanik Judatar, mintzatzen zaion? zeren ezi bi jende gaiek etzute tratatzen elkarreki. Jaun dibinoak orduan erran zio, oh bazindeki Jangoikoa in dizun faborea, eta nor den mintzatzen dizuna! Segitus itzketan konbertitu zue onera; eta utzirik an bebutzatore, edo onzia, joan ze ziudadea barna oiua ematen berri onak aurkitu zuen Salbazaleas: eta ekarrarazirik ikustera konbertitu zire berze anitz.

36. Berze bat aurkitu zutena bekatan ekarri ziote Jesus onari inten-zio gaixtos erraten ziotela, Moisesek bere legean utzi zue manaturik arri-katzeko au bekalakoak: eta berorrek zer dio? Jaun dibinoak ikusirik bio-tzen malizia, kurturik eskribitzen zue lurrean erias: gero txutiturik erran zue, *nork ere zuetaik eztuen bekaturik, arrek tira bezo lenbiziko arrukaldia*. Erran ta berriz kurturik zegon bitarteo, joan zire andik akusazaleak utzi-rik an ekarri zutena, zeñi erran zio Jesus onak, *Niork etzaitu kondenatu? bada nik ere etzaitu kondenatuko. Zoaz bakean, ta ez berriz admiti bekaturik*. (Joan. 8.) Preso egiterakoan bere Majestadea, len lenik bota zitona eskuak



izan ze Malko mutil bat Pontifizearena: S. Pedrok ezin sufritus maldade gura tiratu zio ezpataz, ta ebaki zio bearri bat: Jesus onegiak erran zio, *Pedro, itzulazu ezpata gori bere magira. Ene Aitak brinda zendidan tragoa eztuzu nai pasa dezaten nik?* Eta bereala an berean eskuas ukiturik bearria utzi zio sendaturik Malkori. S. Pedro berak geroxago ukatu zue irur aldis bere Majestadea, etzuela ezauntzen ere. Ain zego lotsarriturik! ain zego atzen-durik ofrezitu zuenas etzuela ukatuko, ta Jaunaren erranas ukatuko zuela ollarraren kantua baño len gau gartan. Kantatu zue ollarrak: Pedro etze akorritzen: Beiratu zio benigno Jesus onak: orduan akorritu ze, atra ze andik, eta negar egin zue amargoki. Zer gero? Agian Jaun dibinoak mendekus bota zue bere familatik, bear etzuela? Ez alakorik, baizik egin zue guzien buru, ta bere Bikario, emanik Zerueta erreinuaren giltzak. Bada bere laguna S. Pablo nork eztaki len izan zela Saulo Jesu Kristoren eta Kristioen kontrario > Iras eta furias beterik zoeie Damaskorat arrapatze-ra preso Kristio berri gaiek: bere Majestadeak oi u egin zio, *Saulo Saulo, zer-gatik persegitzen nauzu ni?* Eroririk lurtean galzezin zio arrek ia humil, *Jauna, nor da berori?* Jaunak, *ni naiz Jesus persegitzen nauzuna zuk.* Onek orduan, *Jauna, zer nai du in dezaten?* Manatu zio joateko Ananiasengana: au prebe-nitu zue errezipitzeko: guzia Jesus onak. Orra persegizalea barkaturik, ta bere adiskide andia eginik graziaz... Zer iago? Iltzerakoan Jaun dibinoa gurutzean bi ladronen erdian etze atzendu miserikordias: iago pena zue galtzeas bere etsai guruzifikazaleak, ta ilzale infameak, ezi bere iltzeas gisa gartan. Eta ala lenbiziko itza gurutzetik erran zue, *Aita, barka bezote, ezi eztakite zer ai diren:* Zer iago erran daike Jesus onaren nobletasunas, ta barkatu naias? Aizagun pasatu zena bi ladron guruzifikatueki Jesu Kristoren bi aldeetaik. Batak aburriturik erraten zio, on barin bada Jangoikoaren seme, libra bez bere burua, ta gu ere bai. Berzeak akar iten zio lagunai, ik ere eztuk Jangoikoaren beldur ta atenziorik, agolaik iltzeko ia. Baña guk arrazioreki pagatzen diau mereji duguna geuren gaizki egines: onek ordea eztik batere gaizkirik egin. Eta mintzatus Jesus onareki eskatu zio humil, *Jauna, oroi bedi nitas, doaielarik bere erreinura.* Jaun dibinoak bereala agotik agora errespondatu zio, *egiaz erraten dizut, egun berean egonen zarela nereki paraisoan.* Eta kunplitu zio itzadudarik gabe. Orra bizi guzia gaizki pasatu zuena guruzetik paraisora momentu batez esus onaren graziaz. Nork eztu konfiatuko berorren piedadean, o Jesus onegia? Nola bada utzi zitue gal-tzera judas ta Judioak? nai izan zutenak salbazioa salbatu zitue; eta bere aldetik nai zitue salbo guziak ere; berek nai izan bazute ain gogotik, nola Jaunak, salbo izanen zire. Galdu zirenak galdu zire beren faltaz, ez Jesus onaren faltaz. Galdu gaiek berak dire testigo onak Jesus onaren. Zer iago

in bear zue, edo zer iago in zuke in zuen baño? Judas traidorea manteni-tu zue bere maian asko denboras. Azken arratsean ere adiarazi zio bere perdizioa, egin zio karidadearen demostrazio, eman zio ogia bustirik pla-terean erregalo, garbitu zitio bere eskus oñak zikinduak traizioaren pausu gaixtoetan, komekatu ere zue sakramentuas, diotenez: Azkenik joan zelaik ura guzien lenean preso arrapatzera bere Majestadea, ta alzinatu zelaik ematera apa falsu gura, erran zio amoltsu Jaun dibinoak, *adiskidea, zertara etorri zara? Apa baten señalearaki entregatzen duzu Birjinaren Semea?* Orduan berere etze penatu bear ura bere gaizkias? Eta uste dut orduan ere barkatuko ziola, urrikitu baze, ta eskatu bazio. Biramonean urrikitu ze, ez bear bekala ones, baizik desesperazio, ta ala urkatu zue bere burua, ta eraman zute Demonioek infernura. Noren faltaz? Ez Jesus onaren faltaz, ezi sobra ere egin zio oneratzeko. Bada Judio infameek parazaririk Jaun dibinoa guruzean oraño ere iten ziote eskarnio lastimatu bearrean: baña Jaun onegiak oraño ere eskatzen zue aiendako barkazio. Ezta au sobra ere egitea salbatu naiez? Klaro aski da gure Jaunak nai gaituela salbatu gizon guziok, eta dela Jesus salbazalea izenes ta izanes.



Transfigurazioa

37. Irur urte ta gexago enpleatu ze aun dibinoa erakusten Zerurako bidea itzes, obras, milagros, niori gaizkirik iten etzekiela, ta etzukela, bai ongi gorputz ta ariman guziei. Akre oposizio artu ziote inbidias ta iras: Nork ori? Sandutako zeuzkitenek beren buruak. Zergatik ori? Zergatik erraten zituen egia, egiten milagroak, ta barkatzen bekatuak... nai izan-zute lenago ere arrikatu, preso egin, ta botatu burusbera batetik ilarazteko: baña ezin logratu zute, alik eta utzi zen ta entregatu zen arteo bera bere borondatez, ellegatu zelarik bere garaia... Urbildus bekala, zoeie deklaratus noizean noiz bere Majestadea, ta agitu bear zena, konfirmatzeko Apostoluak eta gañarakoak beraren fedean. Bein arturik apart S. Pedro, S. Tiago, ta S. Juan, igan ze oian gora batera, deitzen baita Tabor, an agertu zue kanpora barnean altxaturik zeukan gloria Jangoikoarena, ikusiarazis argi eder bere begitarte iruzkia bekala, eta tresenak ain txuri nola elurra: agertu zire an Moises ta Elias tratatzen bere pasioaren exeso amoresko agituko zenas Jerusalem. S. Pedrok xoraturik gozos erran zio, Jauna, ongi gaude emen. Nai barin badu, eginzkigun emen irur denda, edo etxola, bat berorrendako, berze bat Moisesen, berze bat Eliasen. Eta bere buruas ta lagunes ez memoriarik ere. Mintzatzen zegon bitarteo, estali zitue lañu argi batek, ta andik aditu ze Aita eternoaren boza ziola, *Au da nere seme onetsia, zeintan baitut neure konplazenzia: au bear duze aditu. Apostoluak lotsaturik erori zire lurrean; eta Jesus onak ukitus erran ziote, ots jaiki, ta etzazela izan beldurrik. Aiek goraturik begiak ia etzute ikusi nior, baizik sollik Jesus. Eta jausterakoan oianetik manatu ziote Jaun dibinoak ez errateko niori bisionea, alik eta erresuzitarteo bera ilen ertetik. Gero arturik bere amabi Apostoluak, erraten diote, orra bagoazi Jerusalem, eta kunplutuko dire Profetek erran zuzten egia guziak Birjinaren Semeas, ezi entregatuko dute Jentilei, eskarnio inen diote, azotatu ta lixtukatuko dute; ondorean ilen dute, ta irugarren egunean biztuko da.* (Luc. 18.) S. Pedrok zion amore andi garreki erran zio, Jauna, ez alakorik permiti, ezta izanen alakorik berorreki. Itzulirik Jaunak egin zio akar erraten ziola, zoaz ene atzetik Satanas: eskandalo zara enetako, ezpaituzu Jangoikoai dagokiona, baizik gizonaren gustora entendatzen. Orduan Jaun dibinoak erran ziote guziei, nai duenak etorri ene atzetik, errepugna bere naikundeei, ar bez bere gurutzea, ta segi benaza ni. Zeren ezi nai duenak libratu bere bizia, galduko du: galtzen duenak bere bizia negatik, aurkituko du. Zer balio dio gizonai naiz irabazi mundu guzia, galzen barin badu bere arima?

*Eta zer trukada inen du bere arimagatik? ezi Birjinaren Semea etorriko da bere Aitaren glorian bere Aingirueki, ta orduan emanen dio bakotxari bere obraen ariora. Sei egun pasiora zegola, itzuli ze Jesus ona Betaniara, non lenago biztu zuen Lazaro; erreizibitu zute debozio andiareki beti bekala S. Martak, ta S. Magdalenak arren bi arrebaek: disponitu ziote afaria: eta maian zegolarik bere Majestadea bere Apostolueki, S. Magdalenak unjitu zitio oiñ sandu sagratuak, eta burua ungendu edo likore agitz prezioso bateki, zenen fragranzias atxundu ta bete zen etxe guzia. Judas Apostolu, traidore bezain berekoia, baizue ofizios limosnen administratzea, asi ze marmarketan, zertako malogratzen zen ungendu gura; zeikela saldu irur eun dirutan, eta eman pobreei. Au ziola, dio S. Juanek, ez zeren zoeikion deus ere pobrees, bai zeren baize lapur txarra sisatzeagatik. Jesus onak erran zue grabe, *Utzaze in dezan lan gau ene iltzearen ta ilariaren señaletan, ezi pobreak beti iza-mentu ze, ongi egiteko, baña ni ez beti. Egia erraten diziet sin si nes, ezi nonnai predika dadien Ebanjelio gau mundu guzian, publikatuko ere da onek egina beronen memoriatan.* Profezia gau ikusten da kunpliturik osoki, Eliza denas geros munduaren akabanzaraño. Jangoikoa ze erran zuena.*



Erramu-igandearen Triunfoa

38. Borz egun bere pasiora zegola erramu-igandean bekalakoan, preso artzera utzi zen baño lentxago, nai izan zue Jesus onak egin bere podorearen mostra-iduri bat. Ekarrarazi zue astoko bat, ta onen gañean paraturik sartu ze triunfoan bekala Jerusalem, alzinetik ta atzetik akonpañatzen zutela jendeek, eta proklamatzan guziek beterik debozios ta aleganzas, batzuek botatzen zutela beren tresenak bidean, nondik bear zuen pasatu, berze batzuek artus palma ta olibaen arramak eskuetan, eta aurrek eta guziek andik eta emendik klamatzen zutela, *biba Dabiden semea, Israelgo Errege, biba. Bedeikatua eldu dena Jangoikoaren izenean: lauda goraetan. Ala sarturik triunfante Ziudadean joan ze tenplora, non ikusirik saltzen ta erosten zeudenak, eginik azote-iduri bat kordetas, botatus lurrera maiak eta diruak, atrarazi zitue andik tratanteak ziola, ken emendik gauza goiek guziok, ezi dago Eskrituran, ene Aitaren etxea dela orazioaren etxea, eta zuek egin duzie tratuaren etxea eta lapurren kubila: guziok arriturik alako zeloas ta podoreas, nior etzela trebe itzultzera. Inbidias Eskriba ta Sazerdoteak ezin dijeritus alako miragarriak, ta mutikoen bibatze gura indignatu zire, ta erraten ziote, ezta aditzen klamatzen dutena ebek? Jesus onak, bai, ta ezta zie leitu beñere, ezi aurren ta esnekoen agotik atrakotuela bere laudarioak? Erraten dizet zuei, ezi ebek ixiltzen badire, klamatuko dutela arriek ere. Luc. 19.) Orduan izan ze, noiz Ziudadera ellegatzan beiratus, asi zen negar ta negar ziola, o ezaun bazindez zuk ere, eta egun gontan berean zure onetan dena, baño altxaturik dagona zure begietarako! Ellegatuko dire denborak, noiz zeure etsaiek inguraturik zaituten, ta ertxituko aide guzietatik, eta lurreratukozaitute zu ta zeure humeak emen direnak, ta eztaute utziko arririk arriaren gañean, zeren eztuzun estimatu Jangoikoaren etorria zure bisitatzera. ib. Profesia andi gau kunplitu ze Bespasiano ta Tito enperadoreen denboran, Kristoren 66 urtetaik 70 urtetaraño, bazkoaren egunetan ertxiturik infinizio bat jende barnean, gosea ain errua zela, ezi ez solamente jaten zuzte zapeta-zolak, baita Amaek ere beren hume propioak, ellegaturik saltzera erregu-ongarria sei eun eskututan. Iltzire goses, pestes, beren ta berzeen armes ameka eun mula persona, edo millon bat ta eun milla Jangoikoaren permisos, zeren Jangoikoaren axuria Jesus onegia iltzuten an gurzifikaturik malamente (Florez clave sigl. 1.) Triunfoaren egun berean errezibitu ondoan ainberze festareki, desengañatzeko munduaren inkonstanzias, etze izan bat berere konbidatu zuenik bere etxera Jesus ona, ezeta ere eman ur trago bat. Eta ala bear*

izan zue itzuli Betaniara Lazaroren ta arrebaen etxera: Eta geiago arritze-ko dena, andik borz egun egin zute preso egun gartan festejatu zutena Errege Jangoikoak emana bekala: Egun gartan proklamatzan zutena biba-biba, andik guti oius gurzifika bez gurzifika bez. Egun gartan kenzen zuzte beren tresenak botatzeko lurrean pasatu bear zuen bidean: berze egunean kendu zizkiote berarenak, azotatzeko ta ilarazteko gurutzean. Egun gartan akonpañatu zute deitus bedeikatua: berze egunean ia sentenziatua ta madarikatua. Baña ia egun gartaik ere asi zire Eskribak ta Fariseoak tratatzen ilarazteas: Ortako determinatu zute arrapatzea preso, noiz zezaketen, ez ordea jai-egunean, eztaien agian goratu jendea fabore. *Zer ai gara? ziote, ezi gizon gonek iten du anitz señaile ta milagro: eta uzten badugu ala, etorriko dire Romatarak, ta galduko dute gure lekua ta jendea.* Kaifas Pontifizeak erran zue, *eztakize deus zuek: ta ezta ze pensatzen konbeni dela iltzea gizon bat jendeagatik, eztaien ia galdu.* Au dio S. Juanek c. 21, etziola Ze burutik Kaifasek, baizik nola baize Pontifize urte gartako, erran zuela profesia bat, nola il bear zen Jesus jendeagatik, eta biltzeagatik batera Jangoikoaren humeak barraturik zeudenak. Berritus batzarreak maiz ziote Fariseoek, *badakusaze eztugula protxurik deus atratzen: orra mundu guzia doaie beraren atzetik.* Azkenean nola Jesusen ongi egitea guziei balitz aien kalte, zebiltza afanaturik kuidadotan bota naiez mundutik guzien Salbazalea. Joanze9uiote judas Apostolu traidorea, ta erran ziote, *Zer nai didate eman? Eta flik paratuko dut oien eskuetan.* Aiek eskindu ziote ogei ta amar erreal; eta gerostik alzina zebila eskaida on baten billa, entregatzeko Jesus ona. O Jesus, eta zein merke saltzen ta erosten duten orren Majestadea, ez jabetzeko ta gozatzeko, ez, baizik akabarazteko!

39. Eskaida ona izan zue Judioen bazkoa: ortzegun sandu egunean bekalakoan prebeniarazi zue Jaun dibinoak Jerusalem bazkoako afari zebratzen zena arrats gartan, janes guziek zeremonia batzueki axuri bat Jangoikoak manatua signifikatzen zuena Jesus bera, baize axuri dibinoa, zekiena ziertoki, gau gartan asi ta biramonean akabatu bear zela sakrifika-tus. *Zoazte, erran ziote S. Pedrori ta S. Juani, zoazte Ziudadera, ta aurkituko duze gizon bat daramala kantaro bat ur: segizaze: ta etxeko Nagusiari erran zozie, ene denbora urbildu dela; orren etxean zebratu bear dutela bazkoa nere diszipuloe-ki. Non da ganbara, jateko bazkoa nere Dzszipuloe-ki?* Eta berak erakutsiko dizie sala bat andia prestaturik. Joan ta aurkitu zute guzia erran bekala.



Bazkoa-afaria, ta oñen garbitzea

40. Jerusalem ellegaturik, ta afaltegian bildurik zeudelaik ia, erran ziote Jesus onak amoroso, *Deseos deseatu dut artzea bazkoa gau zueki pasiora baño len*. Jan zute axuri misterioso gura, Jesus beraren señaile zena, baitare azken otronze izan bear zena munduan beraren bizian. Bitarteo Jaun onak maian tristura andiareki aipatu ziote inen zekion traizioa gau artan berean: *traizio iten didanaren eskua emen dagola nereki maian*. Egiaz zierto erraten dizet, *zuetatik batek entregatuko nauela ni*. Apostoluak zeude elkarri beira etxakines nor ote zion. S. Juan zego erreklinaturik Jesusen bularretan: S. Pedrok arri keñu egin zio, jakin naiez nor ote zen ziona. Galdegin zio S. Juanek Jesus onari, *Jauna, nor da?* Jaunak errespondatu zio, *nori ematen dioten nik ogia bustirik, uraxe da*. Eta bereala eman zio judas Iskarioteri. Apostoluak beldurrak asi zire bat banaka galdegiten, *Jauna, ni ote naiz agian?* Errespondatu zue, *eskua nereki sartzen duena plater batean, ura da, entregatuko nauena*. Birjinen Semea badoaie, *no la artas dagon eskribiturik: baño ai gizon traiziatzen duen artas! Obe luke, ezpalitz jaio alako gizona*. Judas traidore txar galduak ere izan zue atrebenzia galdegiteko: *Jauna, naiz ni?* Errespondatu zio grabe, *zuk erran duzu*. S. Juanek dio, arren biotzean sartu zela Satanasek gura artuas geros: *baña sartu ze lendaik ere biotz txar gartan, baño orduan egotez betekos ez atratzekotan, zeren ezi artu zue ia tema ta porfiaitsu errabiata Jaun on onaren kontra, egin bear zuela lan gaixtoa, ermako bazue ere Deabruak*. Egin zue, ta eraman zue.

41. Afari garren ondorean Jesus onegiak zekielerik ellegatzen zela bere ordua, joateko mundugontaik Aitagana, *maite izan zituelaik beti bereak munduan zirenak, azkenerat ta azkeneraño maite izan zitue*, dio S. Juanek, *au da, egin zitiote amorearen demostrazio espezialak*. Eta zekielaik bere eskuetan guzia utzi ziola Aitak, eta Jangoikoaganik etorri, ta Jangoikoagana doaiela, jaiki maietik, ta uzten du bere manto gañekoa, ta eskutako-oial bat inguraturik gerruntzean, ta palangana batean ur botarik, asten da garbitzen Diszipuloen oñak. Ellegatu zelarik S. Pedrogana, Sanduak arriturik erraten dio, *Jauna, berorrek niri garbitu oñak?* Jesus onak erraten dio, *nik egi ten dudana zuk eztakizu orai: baño jakinen duzu gero*. Sanduak, *Jauna, eztut utzi ko garbitzera nere oñok orren eskus sekulan ere*. Jaunak grabe, *ezpaitizut garbitzen, eztuzu eneki izanen ikustekorik*. Orduan S. Pedrok, *Jauna, beras ez oñok solamente, baita eskuok ere ta buru au*. Jesus onak erraten dio, *Garbi dagonak eztu bear baizik oñen garbitzea: eta zuek garbi zauzte, baño ez guziok*. Au zio,

baizekie nor zen traidore, orgatik zio, *etzauzte garbi guziok*. Ellegatu ze alaber traidorearen oñetara Jesus onegia, biotz beratx noble jeneroso kariatades beteareki, aurpegi eder sereno bakesko apazible amorosoareki, ezi Jaun soberano gura gorputzaren disposizio ere ze guzis perfektu kua drablea ta amablea, kausatzen zuena amore ta errespeto beiratzan ziotetan intenzio onareki. Beira gloriako errege galant amablea ta admirablea kurturik belauriko agos bera, munduko gizatxar indigno gaixtoenaren oñetan, nola dagon garbitzen oñ gaiek zikinduk beraren kontrako bideetan; nola ertxitzentuen esku dibino gaieki; nola arrimatzentuen bere bularretara; nola mintzatzen dion amoroso ta lastimoso biotzera! Baña biotz gura zego ia Satanasi emana; ez beraxtu, bai iago irritatu ze ikustearreki Jaunaren humil onegia: *etzio beiratu nai ere zuzen, baizik trabeska ilun asarre ikusi nai etzuela*. Oh! noraño daiken ellega gizona gaixtakerian, uzten badu bere eskutik Jangoikoak. Orra Judas Iskariote Jesusen Apostolu izana, beraren fabore espezialeak logratu zituen, beraren maiean beraren kostus mantenitu zena, beraren potestades milagroak ere egin zituen, orra itzulirik etsai rabioso aborrezitus bere amazale amable gura salduartaño ta entregatuartaño diru pixka batengatik! Eta zer irabazi? Urkatus bere burua biramonean akabatu emengo bizi miserablea, bizitzeko eriotze perpetuoan infernuan! Bukaturik Jesus onak lan admirable gura, paraturik bere mantoa, ta maiean berrito jarririk erran ziote, *badakize in dutena zueki?* Zuek deitzen nauze *ni Maestru ta Jauna: eta ongi dioze; ala bainaz*. Bada *nik Maestru eta Jaun nai zelaik, garbitu baitizet zuei oñak, zuek ere bear duzie egin ori elkarreki*. Exenplu eman dizet. Gero segitu zue prediku luze admirable bat despeiako bekala.



Eukaristiaren obratzea

42. Orduan izan ze noiz obratu zuen Jesus onak Jangoiko ta gizon egiasakoak, guzis poderosoak ta guzis amorosoak bere milagroen milagro andien andiena, bere lengo ta geroko ongi eginen bilgura ta memoria, re pasio ta eriotzearen oroipena ta errepresentazioa, erregalo bat soberanoa propioki dibinoa, konbita bat sagratua Zeruko; non gozatzen den Kristo bera, berritzen bere amoresko exzesoen memoria, betetzen arima grazias, ta ematen geroko gloriaren prenda; deitzen dena sakramentu aldarekoa, au da, señaile sagratu sekreto soberanoa; ta Eukaristia, au da grazia ona, ta grazia guzien iturria; non erauntsituen bere gureganako amorearen ondasunak: Baña ezta iduri agerrira den adiña: Eta ala onen ezauntzeko, ezta gizonak gobernatu bear sentitzen dutenas sentidoek, gustatzen duenas agoak, ukitzen duenas eskuak, ikusten duenas begiak, ezeta ere erdexten duenas sollik entendamentu pobreak, baizik guzien gañera iganik, erraten duenas bere Majestadeak, sinetsis, naiz ezin erdetxi ta entenda den adiña, sinetsis, diot, firmeki itsu itsua, zeren baita Jangoikoren obra, ta ala baitio Jangoikoak. Etze kontent bein solamente jauntsias Zerutik guregatik, ta bizituas gutartean ogeitamirur urte, eta padezitzeas pasio ta eriotze doloreskoa bein, ta gañarako ongi eginak egiteas bein sollik: nai izan zue gelditu gureki munduan, mundua den bitartano, naiz altxaturik sakramentuan; nai izan zue berritu kontino faboreak faboreen gain, ta segitu erredimitzen gu, erremediatzen, erregalatzen, ta faboratzen porfiaz presente bere Majestadeak ez gaituela nai utzi galtzera niolateko maneraz. O Jesus ona, o Jangoiko-gizona, gizonen fiadore ta pagadore atra zena, gure zorrak bere gain arturik, eman naitiguna bere ondasunak, guregana apasionatua, maiteago gaituena ezi geurok garen, oh nolako exzesu milagrosko amoreskoak egitentuen gure onnaiez! Nork ezta amatu bear alako amazalea? Nork ezta estimatuko alako faborea? alako porfia? alako miragarriak alako Jaunarenak gure amorez? *Et quare morimini, domus Israel?* eta zergatik galdu bear da orren etxekorik nior ere, berorren ogia jan duenik? Ez permiti, Jauna &...

43. Gau gartan bada, zeintan baizekie izanen zela entregatua iltzeko, arturik ogia bere esku dibinoetan, goraturik begiak Zerurat bere Aita Jangoikoagana, bedeikatu ta partitu zue erraten ziotela, *ar zazie ta jan zazie, ezi au da ene gorputza*: Gero alaber oroat arturik ardo kaliza edo baso batean erran zue, *ar zazie ta edan zazie ontaik guziek, ezi au da ene odola, zuen*

ta anitzen onetan ixuriko dena... Gisaontan obratu zue milagro miragarri gura konbertitus ogi ta ardoaren sustanzia bere gorputz ta odol preziosoen sustanziatan, gelditurik an ogi-ardoen iduri utsak, edo akzidentekak sollik beren sustanziarik gabe, ta aien pean altxaturik Jesu Kristo bera den guzia presente erreale ta sobrenaturalki. Orduan alaber ordenatu zitue Sazerdote lenbizikoak Apostoluak, emanik potestade konsagratzeko berek, ta ordenatzeko berze Sazerdoteak, manatur itz gebeki, *au egiten duzien aldiora, egin zazie ene memoriatan*. Ala beraren potestade ta itz errealearen birtutez dirau, eta iraunen du, mundua mundu den bitarteko, sakramentu soberano gonek, eta ontan bere Majestadearen presenzia errealeak. Eta ala kunplitzen da errealki eman zuen itza despedian, *et ecce ego vobiscum* &. Math. ult.: Eta ona ni zueki nago beti munduaren akabanzaraño. Ala injeniatu zue egotea bateo, dagon bekala, Zeruan, ta lurrean aldareko sakramentuan: Zeruan errealki: sakramentuan ain errealki: ezta diferentziarik sustanzian, baizik solamente maneran, edo egote-moduan: Zeruan baitago natural ikusi daiken gisan: sakramentuan sobrenatural, aragisko begis ikusi eztaiken gisan: an gora glorioso gloriastatzen Sanduak: emen apal humil amoroso graziazatzen desterratuak negarresko balle gontan. An gozatzen dutela osoki beiratus aurkez aurke ango gisara: emen solamente fedes ta karidades txastatzen dugula emengo gisa. Irur estado gisatan ematen da, *mezako sakrifizioan; sakramentu sollean; eta komunionean*. Komunionean ematen zaigu erregalo alimentatzeko arima, amentatzeko grazia, ta azitzeko Zerurako. *Sakrifizioan* ofratzen da egunoro Aitari presentatus bere merejimentuak, berritus bere pasioa ta eriotzea. *Sakramentuan* berriz dago presente kontino gau ta egun egiteko ongi nauten guziei, ala nola legoken limosnagille andi bat etxideten atari-pokalean emateko pobreei... Zer falta zaigu, ezpazaigu falta fedea ta karidadea? Edozein gisas ziona S. Pedrok egia da, *eztela nion, Jesusen baitan ezpada, salbaziorik*: Act. 4.: eta S. Pablok diona, *Jesu Kristo atzo ta egun, eta sekula guzietan dela gure on luzia*. Hebr. 13. Erregalo gonon postrean abisatu zitue agituko zenas gau gartan, zeudengatik prebeniturik, *zuek guziek izanen duzie eskandalo gaur ene kasos edo okasios, ezi eskrituran dago, Artzaia golpatu, ta ardiak barraiatu*. S. Pedrok erraten zio, *Jauna, naiz guziek faltaturik ere, nik eztiot faltatuko sekulan ere. aun dibinoak, ah Pedro, sines erraten dizut zuri, ezi gaur berean, ollarrak bi aldis kantatu baño len, zuk ni irur aldis ukatuko nauzula*. Arrek iago porfia, *il bearbada ere orreki, ezta ukatuko*. Gisa berean ziote gañarakoek ere: Gero ikusko da. Graziak eman ondoan atra ze etxe gartak, joateko orazio egitera kanpoan, kostunbratu bekala.



Barazeko Orazioa, &. Pasio-astea

44. Bazoeie Jesus ona bere Apostolueki orazioaren lekura, baize Jetsemani deitzen zen baratze bat Olibeteko oianaren saietsean. Bazekie leku gura Judasek ere: eta ala suponiturik arara zoeiela Jesus, ta au zela eskaidarik obena, utzis berzeak pasatzera alzina, gelditu ze atzerat bera, ta makurturik bidea gero asi ze prisaka joaten Judio Jaunengana, ematera abisu, non aurkituko zuten Jesus, arrapatzeko preso. Ellegatu ze zoraturik bekala konzienziaren turbazios. Aiek aditu zute kontent, eta asi zire biltzen Ministroak armaeki, linterna, zuzi, soka, ta berze instrumentueki. Ia bildurik jendeak zeude tratatzen nola in bear zuten arrapatzeko. Guzien ermean zebila Apostolu zori gaixtokoa listo ajent itekoso, etzeza-ten uts egin arrapatzean berzeren bat Jesusen lekuan, erraten ziotela, *aitzen, nori ere nik iten dioten besarka edo apa, ura izanen da; eutxi tieso, ta eka-rrri deskuidorik gabe, eztaien eskapa...* Etzio alako doktrinarik erakutsi Maes-tru dibinoak. Ah! nola zegon itsuturik kodizias eta malizias! Ah! zenbat gaixtatu daiken gizona edozein eskola, estado, ta lekutan deskuidatzen barin bada... Jangoikoak guarda. Utzirik emen kanalla gaixto gura, goazen ikustera zer ai den Jesus ona. Ellegaturik baratze gartara ameka Aposto-lueki, utzirik gañarakoak leku batean, erretiratu ze aratxago bera S. Pedro, S. Tiago, ta S. Juaneki: Enkargaturik ebei egoteko idatzarririk erne ora-zioan, etzeizengatik erori tentazioan; bera bakarrik apart paratu ze belau-riko ta auspeska lurrean orazio egiten, pensatus pasatu bear zuena bere pasio doloreskoan, ta erraten bere Aita eternoari, *Aita, posible barin bada, pasa bedi neganik trago gau: baña eztadiela egin nola nauten nik, baizik nola bero-rrek nai duen.* Ia ordu gartaik asi ze sentitzen tristurak, beldurrak, kongojak, ta agonia eriozkoak, gizon egiaskoa bekala, ta konsolurik gabe mon-dik, de manera ezi irurgaiei erran ziote aflikzioaren utses, *triste dago nere arima eriotzeraño.* Erran dezake agian emen norbaitek, bada Jesus delarik Jangoiko guzis poderoso ematen duena bere Sanduei arimo, pasatzeko martirioak, eta bera bere borondatez ofrezitu delarik pasatzera gizonen-gatik, nola orai, nola dago ain beldurri aflijiturik? Adiarazteko, dela ere gizon egiasko herikorra, zeramana konsolurik gabe trago samiñ gura, ta guk merejirikako penak, zeren bere gain artu zituen gure kulpak. Berriro manaturik aiei, egoteko orazioan alert, berriz eta berriz itzuli ze bere ora-ziora, eta agonian paraturik luzeago iten zuela orazioa, dio Ebanjelioak, ziola, *ene Aita, ezpadaike exkusa pasatzea trago gau nik, kunpli bedi orren boron-*

datea. Eta kongojaren indarrez eman zio odolesko izerdi batek pulpa pulpa eroris odol-tantak lurreraño: baita lanze lastimarazi dezakena bio-tzik gogorrena, beirutzen badu ongi. Jaun dibino gura zegokena ongi aisa eder bere glorian, bere kulparik gabe ala penaturik ta aflijiturik aurkitzea pasatu bear zuenaren pensamentuareki, lastimarazteko da gu eman dugu-nok kausa geuren kulpas! Ainberzeko agonia etzela solamente pasatu bear zituenen penen kasos, dio Agredako Benerableak, bai prinzipalki zeren kondenatuko diren geienak malogratus erremedio ainberze kosta zekio-na. Badu pausu gontan arima Kristioak zertan pensatu ta penatu amoro-soki beiratus arimen Esposo dibinoa ain beterik penas. Ellegatus garaia, zekiellarik ia urbildus eldu zirela bere etsaiak, itzulirik irur Apostoluenga-na opatu zitue lo, ta erreprehenditu zitue emekiro, *lo zaude, Pedro? Ezin egon zara idatzarririk ordu batez eneki? Lo egiteko denbora ona da: eztaude lo ene kontra eldu direnak urbil ia. Ea, ots, jaiki: goazen: ellegatzen da ordua, noiz Birji-naren semea entregatuko den bekatarien eskuetan. Eztago apart judas entregatuko nauena.* Erranta aieki joan ze gañarakoengana, zein orot lo opaturik ida-tzarri zitue, ta animatu lanzerako... An zego etxideten aieki etsaien etorria. Nork duda du emen, ezi zekien bekala guzia, noiz ta nola eldu ziren, bazeikela libra, nai izan bazue? Baña axuri dibinoa Jesus onegia, bera ofre-zitu ze bere borondatez...



Preso arrapatzea &...

45. Ellegatzen zire ia; ia senti ze mormorrotsa, eta oñen trapotsa: Jaun soberanoa alzinatu ze errezibitzera: baita judas ere len lenean eldu zena alzinatu ze emateko señaile konzertatu zuena, baize apa falsu gura: Izan zue atrebentzia ellegatzeko aurpegi dibino gartara bere ezpain likits madarikatuak, erraten ziola, *Agur Maestru Jauna*. Etzue apartatu aurpegia Jaun onegiak, naiz bazekien arren intenzio dañatua: erran zio bai grabe sereno emekiro, *Adiskidea, zertara etorri zara? Apa bateki entregatzen duzu Birjinaren semea?* Pensatzeko anitz da bi aldetara pausu gontan. Eta lanze gau iduki bez imajinazioan doaienak komekatzera konzienzia gaixtoan: *Adiskidea, zertara etorri zara?* dio, *adiskidea*, zeren beti onetsi zaitut, beti in dizut ongi, ta beñerez gaizki. *Zertara etorri zara?* Galtzera zeuroi galdus ni. Ni zure onnaiez beti, ta zu nere kontra zure kaltetan. *Besarka-itxuras in bear zindida traizio alakoa?*... *Adiskidea*: pena bekizu eginas orai berere; eta oraño ere artuko zaitut *adiskide*, izan zaiten salbo zu, naiz galdu ni. O Jesus ona, nork dezoke bere perdizioaren kulpata bota berorri? Nola ze arrazio, urrikiturik an berean judas bota zekion oñetara, konfesatus bere gaizki egin oius eta marroas? eta uste dut, oraño ere barkatuko ziola Jaun onegiak, naiz bera etzeien libra. Baña ura zego ia emana Satanasi... Emen agian naiko dute xakin zertan baratu zen zori gaixtoan jaio gura: konta zagun bidanabar eskarmentutako. Ikusi zuelaik geroxago zein gaizki tratatzen zuten Kaifasen etxean Jesus dibinoa, nai ziotela txupatu odola, ta akabarazi edozein gisas, munduko gaixtoena balitz bekala, ta axuri dibinoa zegola humil manso ixil utzis in zezatela nai zutena; asi ze ura pensatzen bere akzione txarrean, bera zela kaso tratatzen zutela ain kruekuro gizon on gura, ta anitz on egin ziona berari ere. Asi ze oroitzen bareren milagroas, faboreas, itz sandues: baitare Ama Birjinaren piedadeas ta kariño usatu zuenas arreki: eta nola orai itzuli zioten arrek alako ordaña, kausarazis bieñ ainberze pena: Pensamentu gebeki urrikiturik, baña bear bekala ez, baizik konfuso, turbio, ilun, rabioso asi ze bere buruaren kontra ematen. Gau gartan berean egon ze iganik Kaifasen etxeko ganbara gora batean botatu naiez andik bere burua: etzuke logra. Atra ze kanpora, ta errabiaturik bekala bere kontra ozkatzen zitue bere besoak, ta eskuak, ematen ze golpe temenariorak buruan, tiratzen zitue biloak, egiten marroak, ta botatzen maldizio ikaragarriak bere kontra. Biamonean etsitu zuelaik ilen zutela Jesus ona, joan tenplora ta an bota zitue ogeitamar

erreal eman zitiotenak, ziola *oius*, *bekatu egin dut entregatzean gizon justo gura*. Ango sazerdoteek, arren gisakoek, errespondatu ziote, *guri zer zaigu? beiratu al zindue: or konpon*. Oneki iago desesperaturik judas atra ze kanpora, ta urkatu zue bere burua arbole batetik eguerditsuan, Kristo il baño len guruzean. Arima eraman zute Demonioek bereala: gorputza gelditu ze arbole gartaik dilindan, lertu ze, ta erzeak atra zire lurreraño, ta irur egunen buruan kendu zute andik Demonioek, ta eraman zute arima zeuka-ten lekura, paga zezan an gorputz ta ariman betikos. Dio Agredako Benereableak, zegola infernuaren ondarrean leze bat utsik orduraño, destinatua Kristio gaixtoendako, eta len lenbizikoa sartu zutela an Judas lenbiziko kondenatua Kristioetaik: eta au manatu diotela eskribitzeko Kristioen, ta espezialki sazerdoteen eskarmentutako. (Myst. Ciud. p. 2, 1. 6, c. 14, n. 1246.)

46. Señalea emanik ia, ezauntzeko nor zen preso in bear zutena, urbildu zire armatuak. Jaun dibinoak galdegin ziote animoso, *Nor billatzen duzie?* Errespondatu zute, *Jesus Nazarenoa*. Erran zue Jaunak, *Ni naiz*. Aditu zuteneko itz gau, erori zire guziak atzerat agos gora, ilak bekala. Ala egon zire zerbait denboras, ta egonen zire sekulakos, ezpazioten eman lizenzia jaikitzeke. Jaiki zirelaik, berriz galdegin zue, *Nor billatzen duzie?* Aiek, *Jesus Nazarenoa*. Orduan Jaunak, *erran dizet ni nai zela: eta ni billatzen banauze, uzkie ebek doazila*. Pontifizearen mutil bat deitzen zena Malko, al zinduze botatzera eskuak. S. Pedrok, ori ikusirik, tiratu zio ezpataz burura, ta ebaki zio bearri bat. Jaun onak erran zio, *itzul azu arma goi bere magira*. *Eztuzu nai pasa dezaten nik ene Aitak brindatzen didan tragoa?* *Eztakizu banezakela ekarrarazi orai berean, nai banuke asko milla Aingiru?* Baña nola *kunplituko dire eskriturak?* Eta Malkogarri ukitus bearria istantean paratu zio sano, ta oso nola len: ta jende gaiei erran ziote grabe, *Ladron batengana bekala etorri zarate enegana palo ta armaeki, nindegolaik zuen ertean egunoro tenploan, ta ez nauzie preso egin: baña au da zuen ordua, eta tenebren potestadea*. Oneki gaixto gaiek bota zekizkio gañera, nola otsoak axuriei. Bereala Apostoluak lotsaturik eskapatu zire iges lasterka arat onat, utzirik axuri dibinoa desanparaturik otso gaien atzaparretan. Lotu zute katea ta sokae-ki alde guzietaik agitz ertxi, ez ladron bat bekala, baizik gaizki-egille ta Tirano gaixtoena bekala, belurak eskapa zekioten zenbait arte gaixtos... O Jangoikoaren juizio sekretoak, ezin konprinferendi daizkenak! Jaun guzis poderosoaz uzten da lotzera geldi geldia ta ixil ixila errenditurik, guri digun amore geiegiaren indarres! Ezperen, etzute etzute Judio Jaunek, ezeta munduko guziek ere infernuko guzieki, etzute, diot, indarrik ta inje-niorik aski lotzeko Judako leon deitzen dena, nai baluke agertu bere



podorearen azazkal bat sollik ere; bada lentxago errateareki *ni naiz*, erori bazire lurrean il-aintzu, zer kostako zekio botatzea orai ere txinurri gaiek infernuetara?... Eta o gizonen itsutasuna beren kontra! Balitz bekala Jesus etsaiik andiena, galdu nai dute beren ongiegille ta amazale dibinoa! Baña bera beti gaixtoen onnaiez: ez solamente egiten ongi, baita padezitu ere nai du aiengatik: aiek kendu naiak berari bizia, ta bera eman naiak aien fabore! Nork ikusi du, nork zuke gogoratu ere alako exzesu amoreskoa? alako nobletasuna? *Oblatus est quia ipse voluit*. Eman ze bera, zeren berak nai zuen: ardi mansoa bekala daramatena iltzera, eta nola axuria motxalearen eskuetan ixil ixila. Badu emen ere asko pensatzeko arima Kristioak.

Preso eramatea Anasen etxera

47. Preso dibinoa loturik katees ta sokaes lepotik ta gorputz guzitik, ta eskuak atzeko alderat, eraman zute txoil indezenteki, ta moldegaizki tiratus andik eta emendik, eroriarazis lurrean; ta ezin jaiki zeikelarik, golpatus armaes, eskus, ta ones ostikoka, anitz blasfemia, eskarnio, ta erronkaeki. Pensa nola sartu zuten Jerusalem gau gartan, zein diferente erramu-egunetik! Nolako arroitua zeramaten, ta algazara sendagallas, ala nola eizariek balemate arrapaturik artz edo otso temenarior bat, zeñen atzean zebiltzan aspaldian. Presentatu zute Anasen presenzian baize Kaifas Pontifizearen suia. Ikusteko ze, au jarririk Juez bekala gora aundi suber, ta Jesus guzien juez dena kulpante bekala beiti, humil txutirik, loturik, guardies inguraturik! Galdegin zio arrek bere Diszipulo ta doktrinaren gain. Diszipuloes etzue deus errespondatu Jaun dibinoak, bai bere doktrinas, baizegokio Jangoikoaren honrari. Erran zue bada grabe humil sereno, *Nik beti erakutsi dut agerrian mundu guziaren alzinean, eta ez sekretoan: Zergatik galdegiten dida niri? Galdegin bez aditu nautenei*. Au erran zueneko, eman zio ministroetaik batek bofetada bat aurpegian, erraten ziola bateo, Ala errespondatzen diok Pontifize Jaunari? Jesus onegiak pazienza andiareki erraten dio emekiro, *Gaizki mintzatu banaiz, errazu zertan dagon gaizkia: baña ongi erran badut, zergatik golpatzen nauzu?* Beira aurpegi eder dibino gura, zeñi beira dauden Ain giruek gozatzen, itsuski golpaturik ta ubeldurik! Pensa Aingiruen arrizioa ta mendekatu naia: baña lizenziarik ez! Pensa Jesus onegiaren manso ta pazienza admirable gura; ikasteko sufritzen guk ere, ta alketzeko ez sufritzeas gutiago dena, ta deus arren aldean!



Presentatzea Kaifasen batzarrean, ta S. Pedroren ukatzea

48. Andik eraman zute Kaifasen palaziora, non zeuden bildurik Eskriba, Fariseo, ta Judio Jaunak etxideten preso dibinoa, ez justizia in naies, ez, baizik ase naies beren odio, ira, eta inbidia ziotena. Beira ia otso gaien erdian axuri dibinoa, zeñen odolaren egarri ziren aspaldirik, ta gogo eginik ilarazteko alas, edo olas. Ia zer daike espera beras? Iduriazteko jendeari justizia-itxura ta kolore, zebiltza injeniatzen kausaren bat andik eta emendik gezurres. Billatu zuzte testigo falsuak: batak au, berzeak ura ziote, ta ezin konpon testimoniorik konforme, ez itxuras ere, niolateko maneran. Oh itsutasuna! nola dabilzan galdu naies Sandua, etzekiena gaizkirik egiten, etzukea ere egin, ta ez nai ere! O Jesusen ona, zein ona, ezpaitezokete aurki etsaiek ere faltarik! Baña emen utzirik batzarre infame gura berla arteo, goazen ikustera zer pasatzen den S. Pedroreki bitartean. Eskapaturik Sandua berzeak beka, preso iterakoan Jaun dibinoa, oni zion amoreagatik baratu ze S. Juaneki, eta eldu ze segitus Jaunaren pausak urrundarik, ikusi naiez zertan baratuko zen. S. Juan ezauna izateareki Pontifizearen etxean izan ze medio, idikitzeo ataria, ta sartzeko Pedro ere an. Ah! obeago zue, ezpaze sartu, baizik kanpotik egon iges, asi beka-la! Sarturik bada an, zegolaik jende txar gaien erlean ikar ikar beldurrak ezauntzeaten, ezaundurik norbaitek erran zio, *bada zu ere zindebila Jesus Galileako orreki*. Turditurik Pedrok ukatu zue, ziola, *eztut ezauntzen gizon ori*. Erran ta saietstu ze guti bat andik aratzago: baña an ere berze batek goarturik erran zue, *au ere zego Jesus Nazarenoareki*. Lotsarriturik ta zoraturik ukatu zue berriz *juramentatus*, *etzuela ezauntzen*. Baña Malko, zeñi ebaki zion bearria lentxago, Malko garren aide batek erran zio, *etzaitut ikusi neuronek baratzean berareki?* Aldakan zirenek ere ziote, *bai arren Diszipuloetaik zara zu, ta Galileatarra, mintzaeran ere ageri zaizu*. Emen arras zoraturik lotsamenturas asi ze *juramentu ta maldizio botatzen, etzuela ezaunzen arrek alako gizonik*. Ah! Pedro, Pedro, ain gizon gaixtoa da Jesus, ezpaituzu nai jakin daien ezauna duzula? Non dire orai promesa andi gaiek? Kantatu zue ollarrak, eta etze oraño akorduratzan Pedro. Beiratu zio Jaun dibinoak, eta beiratzereki argitu zitio arimaren begiak, goart emateko ta ezauntzeko egin zuen gaizkia: heriturik biotza kontrizio amoresko erruas *coepit flere* asi ze negar egiten, *et egressus foras*, atra ze leku gaixtogartaik, *flevit amare*, negar egin zue amargoki... S. Pedroren eroraldian dugu eskarmentu, ez fiatzeko

niork ere bere buruas, ta ez sartzeko tentabide ta peligroetan, ezi ala erori baze Pedro arri firme gura, zer izanen da autsesko bultoa eta kanaberas? Dugu ere enenplu penne nziaren, amore, fede, ta esperanza onareki, ezi gau triste gartan ukatuas bere Jauna mi sollas, ta eriotzearen beldurrez S. Pedrok, egin zue biotzez gogotik negar bizi guzian, eta diotenez, goizoro ollarraren kantura asten zue negarren musika, maneraz, ezi bi begien pean momenezkizkio bi arraia eta erreka negar jariatik: Guk mias ez, bai bizi-moduas ukatzen dugulaik Jesus ona desobeditus, ez iltzeko peligroagatik, bai pasione gaixtos, ta askotan protxurik gabe, ta geuren kaltetan, nola da arrazio in dezagun penitentzia ta negar? Baña itzuli gaitzen Kaifasen etxera, ia zer pasatzen den an Jesus onareki.

49. Zebiltza gaixtofikatuak, nola txakur txar errabiatuak aunka ta aunka andik eta emendik alegatus gezur klaroak, eta gezurres ere deus ezin proga Jesusen kontra! Azkenean atra zire bi testigo ziotenak aditu zutela Jesus erraten, urratutik naiz bai tenplo gura, berriz goratuko zuela irur egunen buruko. Baña etze konforme testimonio ezi on erran zue bere gorputz sanduaren tenploas: eta zer bekatu da goratzea berriro tenploa? Urratzea da bekatu, ta on egin zute berek gaixto gaiek. Guzietara zego ixil Jesus ona. Kaifas furias beterik jaiki ze bere katedratik, ta erran zio, *eztuk deus errespondatzen ebek diotenetara ire kontra?* Alaere ixil Jaun dibinoa. Orduan Kaifasek, *Konjuratzen aut Jangoiko biziagatik erran zagukela i aizen Jesu Kristo Jangoikoaren semea. Orrek erran du, errespondatu zue Jesus onak Jangoikoaren izenaren atenzios, orrek diona naiz. Eta seguratzen diotet ezi emen dagon gau ikusiko dutela bere denboran nola eldu den Jangoikoaren eskuieko aldean, ta lañuen gañean Majestade ta podore andiareki...* Nor etze quartuko itz andi gebetara, dudatzeko berere, ote zen edo ez ote zen ziona? Baña itsuturik zeude borondatesko gaitz ira ta inbidia renas. Pontifize hipokrita urratu zue eskus bere mantoa zelo-itxuras ziola, *egotzi du blasfemia. Zertako bear dugu testigorik ia? Zeurek aditu duze blasfemia. Zer iduri zaize?* Guziek errespondatu zute: *Itzea mereji du: il bear da*. Erran ta aikirik guziak asi zire preso dibinoaren kontra golpe andik eta emendik eskus eta oñes, batzuek lixtu tiratzen aurpegira, berze batzuek tiratzen biloak: guziak furias itsuturik. Ah! zer Juezak aiek! Zer justizia ura! Zenbaitek bendaturik begiak Jaun dibinoari, bofetada eman, ta galdegiten ziote eskarnios, *Kristo, adibinazak nor den eman dikena*. Zer iduri zaigu festa gontas, fielak? Nola jokatzen duten lurreko ar txarrek gloriako Errege Jauna? Eta zein ixil dagon sufritzen! Ezta beti ala egonen... Nekatu zirelaik gaizki egiten, nola baize ere ia gau erdia pasaturik, joateko beren etxeetara, naiz logale guti zuten gau gartan, utzi zute preso dibinoa ongi amarraturik kalabojoan guardia



onareki. Nola egon zen an, zein postura nekosoan, ez etzinik, ez jarririk, ez txutirik ere txoil, baizik kur kurra loturik peña-mutur bati; ta nola guardiek berritu ziozten tratamentu gaixtoak an ere, lixtukatzea, golpatzea, begien bendatzea, ta ganarakoak, badio Agrekako Benerableak, ta ezin daikela pondera Jaunaren pazienza ainberze penaetan, ezpaitire xakinen ere guziak juizioko eguneraño.

Biali Pilatosengana

50. Pasaturik gau penasko gura, argiturik biramon-goiza, ortzilar sandua bekalako eguna, egun oroigarria, bildu zire goixtar Judio Jaunak Kal las Pontifizearen salan, akabarazi naiez egun gartan Jesus dibinoa. Iganarazi zute preso on gura: agertu ze sereno bai ta manso beti bekal, baña ain kolore-gaitz desfiguraturik lixtuen, golpeen, ta gañarako tratamentu gaixto pasatuen kasos, ezi apenas zeike ezaun lenekoa zen, baizezake lastimarazi arrisko biotzak ere: baña aienak arria baño gogorrango zeuzkie Satanasek. Beren maliziareki manatu ziote berriz, *Kristo barin baiaiz i, erran zaguk klaro*. Bazekie Jaun onak etziotela galdegiten ikasi naiez zena egia, baizik arrapatu naiez kindar, nondik eutxi, akusatzeko ta kondenatzeko. Alaere errespondatu zue de manera, ezi nai bazute, bazezakete ikasi, ta ezpazute nai, berena ze kulpaz guzia... Erran zue, *nik erraten badizet baietz, eztidaze sinetsiko: eta galdegiten badizet zerbait, eztidaze errespondatuko, ta ez libre utziko ni*. Baña diot, ezi Birjinaren seme gau egonen dela jarri-rik Jangoikoaren birtutearen eskuieko aldean. Erreplikatu zute aiek, *Beras i aiz Kristo*. Errespondatu zue, *zeurek dioze nai zela*: baize anbat nola erratea, ala da egia... Aiek nola baizeukate gogoa determinaturik ilarazteko edozein gisas, erran zire elkarri, zer bear dugu testigoen, konfesatzen duelarik beronek bere ajos? Eta flik diot emen, zeren bear izanen du Jangoikoak juizioko egunean aien kondenatzeko, berak erranik ere, etzirelaik baratu nai dudatzen berere, pensatzen berere ote zen, edo ez ote zen ziona? Erresulta izan ze determinatzea eramateko preso Presidentegana, baize Ponzio Pilato Romako Enperadorearen ordes, zeren ezi Enperadoreak erreserbatu zitue bere tribunalerako kausa heriozkoak ta odoleskoak, zeñetan etzute eskurik Judioek, diot, etzuketela kendu bizia niori, ta orgatik nola uste baizute edozein kastigo gutiegi zela Jesusendako, ezpaze biziaren kentzea, ortako nai izan zute entregatu Gobernari Presidenteari: baitare iduriarazteko jendeari justizia-kolore, sentenziatzen zuelaik Presidenteak, nola ezpalire berak kausa prinzipala injustizia garren. O pasio- neen itsua!

51. Zego Jerusalengo ziudade andi gura beterik jendeas etorri zirenes zelebratzera bazkoa. Ia famatu ze nola in zuten preso Jesus gizon sandu gura, ainberze milagro egin zuena. Ia fama goneki bildu ze jendeketa andia Kaifasen palazio-alzinean ikustera preso atratzen eramateko Presidenteagana. Pensa zer juizioak, ta erratekoak bide zebiltzan gorabera:



batzuek ziotela, ederki egin zutela arrapatzean, il zezatela enbustero gura zeukana engañaturik mundua: berze batzuek kontra, etzuela iduri ain gaixto doktrina erakusten zuena, eta asko obra on egin zuela guziei: berze batzuek sinetsi zutenek eta progatu, egiten zute negar ta lamentu tragedia gartas: eta ala guzia ze konfusione, ta nastekazio. Ia S. Juanek Ama Birjiniari eman zio kontu pasatzen zenas, baizekie Jangoikoaren argis: Aditu zue Ama Santisimak beterik penas, ta erran omen zue Sanduari, S. Magdalena, ta berze andre akonpañatzen zuteneri, goazen laster, ikus dezaten ene begiek Aita eternoaren seme dibinoa ene entrañetan gizon egin zena; eta ikusiko duze ene Jaun onari zenbat inarazten dion amore geiegiak gizonei diotenak, ta zenbat kostatzen zaion eben erreskatatzea bekatutik ta eriotzetik, ta idikitzea Zeruko atariak. Atratzten dute ia atarietaik karrikara Jesus ona, ain desfiguraturik, ain amarraturik katees eta sokaes, ain inguraturik guardia armatues, baize arritzeko ta lastimarazteko biotz aragiskoak: eta ala ia iruzkiaren argian zeramate jendeen ertetik Pilatosen palaziora: eta ala beiratzen ziotelaik Zeruko Aingiruek beren Errege soberanoa, nolako admirazioa bide zute? bada Ama Santisimak ikusi zuelaik ala, nolako penak eta afektoak bide zitue bere biotz amantean? Ellegaturik Pilatosen palaziora, Judio Jaun akonpañatu zutenak araraño etzire nai izan du sartu pretorioan, edo justiziako salan eskrupulo-itxuras, etzegokiotela ongi sanduei leku gura, non sentenziatzen ziren iltzera gizonak: eta bitarteo etzute eskrupulorik egiteas eginala ilarazteko Sanduen Sandua! O sandu kontrakoak, nola engañatzen duzen mundua! baña Jangoikoa ez.

52. Atra ze bada Pilatos Presidentea aiengana, ta galdegin zioten, zer akusazio dakarrazte gizon gonon kontra? Errespondatu zute suber, *au ezpalitz gizon gaixto gaizki-egillea, ezkindue ekarriko berorregana*: baize anbat nola erratea, ekarrias geros aiek, etzela dudatu bear kausas, nola utsik ezpalezakete egin. Pilatosek alaere galdegin zue, *bada zer gaizki dire egintue-nak*? Aiek errespondatu zioten, *au progatu dugu dabilala nastekatzen ta galarazten gure jendea, debekatzen pagatzea Enperadoreai bere trebutuak, diola berau dela Kristo Errege, eta Jangoikoaren Seme, ta erakusten doktrina berriak, asi Galileatik ta onaraño*. Juezak orduan, *ar zaze bada zuek, eta zeuren legearen konforme in zaze justizia*. Aiek zioten, *guri eztagokigu iltzea nior ere: adiarazis ortan, iltzea mereji zuela preso garrek, baña aiek etzutela eskurik sentenziatzeko erio-tzera*. Ixil zego guzietara Jesus ona,; eta ortas admiraturik Jueza: Judio Jau-nek segi, oi, eta porfia, nola zen aundina bat, *nai zela egin Israelgo Errege, nasten ta inkietatzen zituela jendeak*. Jesus alaere ixil: Arriturik Juezak erraten dio, *etzuzu aditzen zenbat testimonio dioten zure kontra*? Alaere etzue atra itzik

preso dibinoak. Sartu ze Jueza berareki barnera, ta galdegin zio; *zara zu agian Judioen Errege*? Orduan mintzatu ze, *bere burutik dio itz goi, edo berzeek erranik nitas*? Pilatosek, *agian naiz ni Judioetaik*? Zeure jendeak eta Pontifizeek *ekarri zaitute enegana*: Zer egin duzu? erran zadazu: Errespondatu zio, *ene erre-getasuna ezta mundu gontakoa, edo mundukoen gisarakoa: ezi alakoa balitz, ene menekoek defendatuko nindute, ez usteko Judioen eskuetan: baña orai ezta emen nere erreinua*. Beras Errege zara zu? erran zio Pilatosek. Jesus onak errespondatu zio, *berorrek erran du nai zela: ontako lazoa naiz ni, emateko testimonio egia- ren*. Pilatosek, *eta zer da egia*? galdegin, ta errespuesta esperatu gabe, atra ze berriz ta erran zioten Judioei, *nik eztut aurkitzen batere kausarik gizon gontan, kondenatzeko*. Da kostunbre egun bazkoa-bezperan uztea libre preso bat: *ea bada, zein nai duze libre*? Jesus, edo Barrabas: baize au ladron famatu bat. Jende itsuak oi,us eskatu zue Barrabas. Turbatu ze Pilatos ikusteas aien porfia Jesusen kontra; ta gaixtoenak zire sazerdoteak ta prinzipalak. Aurkitu ze Juez sulsoa loturik bekala etxakin zer egin; alde bat, ez eman nai despla- zer Judio Jaunei; berze alde ezin eman plazer gauza gartan, justizia salbo, baizekie zegola preso kulparik gabe: nola inen zue? Akusazioen ertean aditu zue Jesus zebilala nasten jendea Galileatik asi ta araraño. Galdegin zue ia Galileatarra zen: eta aditurik ezi baietz: alegratu ze ustes libratuko zuen bere burua kausa gartaik, bialtzeareki preso Herodesengana, zein baize Galileako errege, ta baizego Jerusalemen egun gaietan. Biali zio bada preso dibinoa bere guardiaeki; eta prisaka zeramate udioek akabarazi naies egun gartan, bazko andia baño len.



Herodesgana

53. Herodes gura ze berze Herodes aur inozenteak iltzituenaren semea, bizi zena deshoneskiro, ta degollarazi zuena S. Juan Bautista, zeren erreprehenditzen zuen eskandalo ematen zuena. Alegratu ze ura aditu zuelaik zekarratela preso Jesus beragana, ia ortan iten zekion estimazioa-gatik, ia ere ikusi naiez gizon gura, zeintas aditu zuen ainberze gauza miragarri, ustez inen zuen beraren alzinean prodijioaren bat. Eta ala ellegatu ondoan asi zekio galde ta galde asko gauza kuriosidadez. Preso dibinoa guzietara ixil grabedade humil bateki. Judioek segi ta prosegi akusatzen porfiaz: Herodesek galdegiten banidadez: Jesus mutu bekala gal atra gabe itzik, ezaizue mereji aditzea arrek ilarazi zuenak bere alzindaria S. Juan Bautista. Eman zue arrek sinpletako Jaun dibinoa, tratatu zue fatuo ta ero gisa parazaririk soñetaik manta txuri bat, eroen insignia, eta alakoa bekalakatu zue irris ta eskarnios bere soldadoeki: eta ala itzularazi zue Pilatosengana eskerrik askoreki estimazio in zionagatik: oneki elkar baketu zire Herodes ta Pilatos egun gartan len zirenak elkarren kontra. Pausu gontan badu zer pensatu arima kristioak beiratus Jesus ona, Jangoikoaren akinda, nola daramaten txufatus ero-aintzu karrikas karrika: nola sufritzen duen bere Majestadeak arimo onareki: nola bide zeuden admiraturik Aingiruak: eta nola bere Ama Santisima!...

54. Pilatos, itzultzeareki presoa bere gogoaren bortxaz, aurkitu ze enbarazaturik kausa gartan berriro. Eta nola baizegie kulparik etzuela, berriro asi ze injeniatzen, ta egiten zenbait dilijenzia, libratu naiez erioztetik berere... Mintzatu ziote zenbait Judio Jaun prinzipaleei, baña protxurik gabe. Berriro proponitu ziote libratzea bazkoagatik Jesus obeki ezi ez Barrabas ladron infame gura: baña banoan, ezi tema artu zute, libratzeko Barrabas, ta iltzeko Jesus. Erran ziote Juezak publikoan ala: *Ekarri didaze gizon gau nola jendearen nasizale, ta galtzale: eta flik informaturik zeuren alzinean eztut aurkitu batere kulpa tiozen goietaik: ezeta Herodesek ere, ezi biali zaiztet arregana, eta ezta eriozko demonstrazio egin diona. Emanen diot bada kastigo bat eskarmentutako emenda daien; orreki utziko dut doaien libre bazkoa egunkara. Oius aiek berriz, au ez, baizik Barrabas. Juezak orduan, bada zer egin du Jesus Kristo deitzen denak? Zer inen dut nik ontas? Aiek, guruzifika bez. Juezak, bada zer kulpa, edo zer aizki da egin duena? Aiek berriz, guruzifika bez. Nik, zio Juezak, eztut kausarik batere aurkitzen ontan. Utziko dut kastigaturik. Demanda errespuesta geben bitartean biali zio erratera Pilatosi bere*

Andreak, etzeiela pasa justiziatzera gizon iusto ura, ezi arren kasos izan zuela asko bisione ta lotsamentura. Mezu goneki ere prosegitu zue berri berritan libratu naiez, baña etzue izan arimo ta korajerik asko onerako, bai gaitzerako, zeren ezi palakatu naiez Judio iratuak Jesusen kontra, artu zue medio bat injusto inhumanoa, baize urratzea azotees Jesus onaren gorputz birjinale dibino delikatua, ustez ala ikusteariki urraturik preso dibinoa beraxtu ta baratuko ziren ilarazi gabe. Ia ontaik atra kontua, zein kruel inhumanoa izan bide zen tormentu gura, uste zuelaik arrek lastimarazi biotz Deabruaren gaiek. Uts egin zue alde guzietara Juez infa-meak, alde bat, pasaraztean alako pena axuri inozente garri, deklaratu ondoan berak asko aldiz etziola aurkitzen kulparik: berze alde naiz duda zezan ote zuen kulpa zerbait, ematean alako pena ain desbardina: berze alde dudatzean berean ote zuen alakorik gizon ain sanduak: Azkenik pensatzean bazeizkela beraxtu biotz gaiek ain Deabruari emanak. Baña guzien utsak pagatzentu Jesus onegiak: beraren gain doaie guzia.



Azotatzeta

55. Jautsi zute bada erronka askoren erlean patina batera Ministro kruelek, sendagalla zutenek mostrapzean azkar gaizki egiteko Judioen ta Juezaren gogora. Biluxirik Jaun dibinoa, ta loturik pilare baten kontra, sei berdugoek, zein baño zein azkarrago, aldiskatus biranaka, azotatu zute beren furia ta indar guzieki, apostus bekala nork erruago; ta anitz demoras; ta gorputz guzia, oñetaik bururaño; eman arteo bortz milla, eun ta amabortz azotukaldi; ta nekatu arteo emanen: zatikaturik aragiak; agerturik kostillezurak; guzia odolestaturik; ta lurrean ere odol-balsak eginik an emenka; eta Jaun dibinoa guzia lliga bat itzulirik ia gizonaren itxuraik gabe... Akabatuko ze an, ezpazio Jangoikoak konserbatu bizia, iltzeko gurutzetan... Arritzeko da nola zuketen ain gaizki tratatu gizonen gizona, ta gizon bat ain ona manso eder amablea! Baña Deabruak zebiltza an su ematen; ta Deabru aski dire gizon berak ere, barin badire txar billauak ta apasionatuak. Pensatzeko da emen Jesus onaren oñaze inkomparablea asko motibos: 1.^a Zeren gorputz birjinale gura baize guzis delikatu senti-garria: 2.^a Zeren berdugoak baizire moldegaitz arima gabeak azkarrenak berexiak: 3.^a Zeren manatuak ziren zeatzeko erru: 4.^a Zeren baizekete ortan inen ziotela plazer Judioei, ta nai baiziotte egin. 5.^a Zeren aiek inzitutzen zutzen ematera gogorki, ta agian ofrezitus premio. 6.^a Zeren Deabruak ere barnetik irratitzen zutzen, ikusirik Jaunaren pazienza. 7.^a Zeren sei ziren in zutenak lan goi; ta anitz denboras; ta aldiskatus; ta apostus bekala zeñek iago. 8.^a Zeren ura baize pena ta penitencia bekala gizonen kulpengatik, zein artu zituen bere gain gure Redentoreak pagatzeko gure partez. Emen da preziso betetzea biotz kristioa, ez solamente kontrizio-nes kulpengatik, ta karidades, agradezimentus, konpasionen Jesusen alde, baitare beldurtasunen bere alde, alako justizia egin zelarik Sanduan berze-ren kulpengatik, nolakoa inen bide den bekatarian bere bekatuengatik! Pensa nola gelditu zen ondorean Jaun dibinoa, ezin egonez txutirik oñen gañean!

Koronatzeta

56. Lastimatu ote zire jende gaiek? Ez iago ezi balitz tzakur edo animale benenatu bat. Paratu zueneko tresena doi doia, injeniatu zute berze tormentu bat doloreskoa ta deshoneskoa. Onek, ziotte aiek: presumitzen zue buruan errege zelako: Koronazagun, ta adora zagun errege gisa nola dagokion. Forjatzen dute aranzeko uztai gisa bat koronatako: finkatzen diote au buruan ertxiki puntzatus inguruan, ta saltarazis odola: pensa nolako onazeak! Paratzen diote soñetaik purpurasko manto zar zatar bat: eta eskuan kana bat zetro-itxuratako: eta jarrarazirik alki batean errege burlasko bekala, egiten diote bere kurte edo adorazio-itxura: ellegatus bat banaka ta paratus belaun bat lurrean salutatzen dute eskarnios, *agur Judioen errege Jauna*: eta bereala bata botatzen dio lixtu aurpegira; berzeak ematen dio zalaparta bat; berzeak kendu kana, ta arreki buruan golpa aranzeen gañean; zeñek baño zeñek obeki burlatu, eta guziek irria gora. Zer festa au agitu dena munduan; eta nola bide zeuden beira zerukoak! Nola-ko pazienza Jaun guzis poderosoak! O errege guzien errege egiaskoa sines, zenen aldean txinurri-adiña ezpaitire lurreko erregeak! eta berorren paje onetsia izatea iago baita ezi mundu guziko enperadore; adora bezate serafinek eta gauza guziek guzien Jaun poderoso bekala. Baña orduan etzue nai izan du agertu bere podorea, baizik bere pazienza, ikas dezagungatik bere Kristioek sufritzen oraiko denboran: baitare, naiz agi daien egotea sopeaturik Eliza, ausart herejeak ta gaixtoak, eta ixil alaere gure Jauna, orduan bekala, ikas dezagun etxideten beraren probidencia, adoratzen beraren juizio sekretoak, baña beti justoak, apaldus buruok, konfesatus geuren bekatuak, ta eskatus berorren piedadea, ezkaitzan beñere desanpara.



Ecce homo

57. Iduri zekio Pilatosi, askiko zela mostrapzea itxura gartan Jesus, lastimarazteko guziak; eta ala atra zue leio edo balkon batera, ikusi zezaten, ta erran zue, *Ecce homo, ona gizon gura; beira nolako itxuran dagon. Emen atratzen dut zuen begietara, ezaun dezazen eztutela nik aurkitzen kausarik onen baitan.* O Juez mundukoia, mias diona da egia, eztuela kulparik preso gorrek, baña eman dion kastigoak dio tuela kulpaa andiak. Pontifizeek ta Ministrokek klamatu zute, *Ken ken bez, guruzifika bez.* Juezak erran zue, *ar zaze zuek, ta guruzifika zaze, nai bauze, ezi nik eztut opatzen kausarik ortako.* Zenbat aldiz deklaratu zuen Jesusen inozentzia, ezaun zezaten, nai balukete! Aiek erreplikatu ziote, *guk dugu lege bat, eta onen konforme bear du il, zeren in baita Jangoikoaren Seme...* Aditurik itz gau, iago beldurtu ze Pilatos, ta erretiraturik barnera galdegin zio, *nondik edo nongoa zara zu?* etzio errespondatu ontara. Orduan Pilatosek, *niri eztidazu mintzatzen? Eztakizu dutela nik potestade, zure guruzifikatzeko, ta zure libratzeko?* Errespondatu zio orduan, ez luke izanen potestaderik ene gain, *ezpalekio eman goratik. Orgatik kulpaa iago du entregatu nauenak orren eskuetan.* Berriro Jueza konbenziturik asi ze porfiatzen libratu naiaz; baña nai ta eznaiz, ezi nai izan bazue bear bekala, libratuko zue, ezi berak erran bekala, bazue potestade libratzeko: baña eznaiz egin desplacer munduari: orra galbidea. Entendaturik Judio Jaunek deseo zuena libratzeko Jesus, erran ziote, *baldin au libre uzten badu, ezta enperadorearen fabore ta adiskide, ezi enperadorearen kontra doaie iten dena errege, nola au iten baita.* Oneki sartu zekio Pilatosi beldurra ezur-muñetaraño; eta ala ia errenditurik jarri ze tribunalean emateko sententzia: Eta alzinean presoaa, aiek inguruan zeudelaik, erran ziote Pilatosek, *Ona zuen errege.* Errespondatu zute, *ken bez ordik, guruzifika bez.* Pilatosek, *bada zer? zuen errege guruzifikatu bear dut?* Aiek, *guk eztugu erregerik, baizik enperadorea.* Pilatosek, *bada zer aizki egin du onek?* Aiek porfia, *guruzifika bez.* Ikusirik Pilatosek etzukela atra arraziorik, guzia zela arroitu ta alborote, eskatu zue ur, ta guzien alzinean in zue itxurapena eskuen garbitzeas, erraten zuela, *ni libre naiz onen odoletik, edo eriotzetik. Or konpon zaizte zuek.* Errespondatu zuteitsu rabiosek, *orren odola biz gure gain, ta gure humeen gain...* Ala bota zire maldiziorik andiena Judioek beren kontra, ta beren kasta guziaren kontra.

Sententzia

58. Orduan Pilatosek eman zue sententzia iltzeko Jesus josirik itzees gurutzean. Notifikaturik au admititu zue Jaun dibinoak obediente emateko Jangoikoai satisfakzio gizonen kulpengatik, eta guri erremedio ta exemplu penitenziaren, pazienziaren, karidade ta on guziaren... Judio Jaunak, logratuturik bekala triunfo andi bat, atra zire beterik aleganzias eta sendagallas publikatus sententzia. Bi ladron preso zeudenak izan zire alaber sentenziatuak iltzeko guruzifikaturik Jesus en bi aldetaik; erdian Jesus ladronik andiena bekala. Famatu ze ia sententzia: ia prebenitu zire gurutzeak, itzeak, ta ganarako bear zirenak: Ia biltu ze Pilatosen atari-alzinean jendeketa inmenso bat ikustera atratzen preso justiziatu bear zirenak. Ia Jesus ona jaintsirik bere tresena propioes, ezaun zezaten, ezi ezperen, etzeike ezaun, egonagatik ain desfiguratu, kolore-gaitz, itsusturik, ta erdi ilik ainberze lixtukaldi, azote, arantze, golpe, ta tratamentu gaixtoen kastos, atra zute karrikara inguratuturik guardies eramateko Kalbarioko aldapara, non justiziatzen zuzten gaizkiegilleak. Ia Pregonariak, ixilarazirik jendea, pregonatu zue sententzia, eta delitoak in etzituenak. Paratu ziote soñean, eta artu zue besarka gurutze andi gura, zenen gañean zeraman munduko bekaturen pizu inmensoa. Asi ze Kalbariorat prozesio desordenatu gura: alde guzietatik jende-montio andiak: presoan alzinetik, gibeletik, ta inguruan anitz Ministro ta soldado zaldizko ta oñezko armaturik: aien ertean sentenziatuak beren gurutzeeki soñetan, eta erdian Jesus korona arantzekoareki buruan, ta gurutze pizu garreki soñean asi ze emekiro joaten ezin joanes akaiturik ia ta indar-usturik: erortzen ze noizean noizka gurutzearen pean, lastimatus berriro burua aranzeeki gurutzearen kontra, eta larrantzis belaunak eta aurpegia arrien kontra eroraldietan. Lastimatzen ote zire orgatik? Ez, baizik maldizios, erronkas, oiús, ta golpes jaikiarazten zute, niork lagundu nai etziola, ezeta ukitu ere gurutzea, iduri zekiotela deshonne. Bide triste doloresko gartan ellegatu ze Ama Birjina Santissima ikustera bere seme dibinoa alako estadoan. Nork explika? Nork entenda bien biotzeko pena ta afektoak aurkintze gartan? Nola beiratu ziren elkar? nola mintzatu ziren elkarreki biotzetik biotzera? Pensa bako txak berebaitan, ta prensa biotza konpasionen, eta kontriziones. Aratzago ikusi zitue Andre on batzuk negarrez lamentatzen lastimas: Ebei mintzatu ziote Jaun dibinoak, *Jerusalengo alabak, etzazela negar egin enegatik ainberze, nola zeurengatik, ta zeuren humeengatik, ezi ellegatuko da denbora, noiz erranen*



den, zori onekoak direla eztutenak humerik azi; noiz asiko diren erraten oianei ta aldapaei, eror zaizte guregañera, ta arrapa ta ortzi gaizaze gu pean: Zeren ezi alako gauzak iten badire zur berdean, zer eginen da earrean? Eta zierto zierto, barin bada federik, edo barin bada juiziorik, ikaragarri da sollik ere pensatzea, nola Jangoikoak ala permititu zuen tratatzea bere seme bakar dibino maitea berzeren bekatuengatik! eta nola kastigatukotuen ontas baliatzen ezteren bekatariak beren bekatu propioengatik! Admiratzen dire, nola erre ta errabiarazten duen gizon bekataria eternidadean, istante batez inikako bekatuagatik! Iago admiratzeko da nola berzerengatik utzi zuen tratatze-
ra ala Jesus ona, Jangoiko bezain ona zena! Alde juzietaik da ageri zein gauza aborrezigarria bide den Jangoikoaren begietan bekatu mortala, naiz irris egin daien: eta nola argatik den arrazio negar egitea amargoki! Diote ere biaje gartan andre on batek Beronika deituak izan zuela biotz eta koraje, pasatzeko guardien ertetik, ta txukatzeke Jaun dibinoaren aurpegi-
ko izerdia ta odola oial bateki, zeintan gelditu zen estanpaturik Jaunaren iduria premiotako, zeren egin zion fineza al zukena. Baña ia Jaun dibinoa angabeturik, atsa goraturik, ilkolore, ezin jasis gurutzea, ezin arreki pasa alzina: beldurtu zire Judioak ilen ote zekioten bidean ellegatu gabe Kalbariora, ta etzeien kunpli aien antsia, baize ilaraztea gurutzean josirik. Alokatu zute orgatik gizon bat deitua Simon Zirenetarra, andik pasatzen zena, ta obligatu zute eramatera Jesusen gurutzea beraren atzetik. Etzute on egin konpasionez, baizik odios ta iras: etzute nai zeien bidean, ilarazteagatik iago deshonre ta penareki gurutzean. O biotz gaixtofikatuak, ta Deabruarenak baño gaixtoagokoak! noraño malizia!

59. Ellegatu ze gero ere nolapait Kalbarioko aldapara gure Isaak dibino, eta lengo Isaak onen señaile zena utzirik libre eriotzetik keñatzeareki sollik, etzute ala utzi gure gau, bai ilarazi penas eta dolores... Kontatzeko da agitu zena arreki eta oneki, ikusteko diferenzia. Manatu zio Jangoikoak Abrahami, sakrifika ta ofra zezola bere seme bakar maitea oian batean. Abrahamek obediente deus erran gabe Sara bere andreari, artu zue Isaak semea, paratu zio soñean egurra bear zena erretzeko gero il ondoan sakrifiziotako: Aitak zerama sua ta arma eskuetan: Bidean seme onak erraten zio senzillki, Aita, badamagu sua ta egurra: baña non da biktima, edo erres il bear dena? Etzekie bera zegola destinaturik ortako. Errespondatu zio Aitak, ene semea, Jangoikoak probidenziatuko du beretako. Ellegatu zirelaik lekura, Aitak lotu zue semea sakrifikatzeke an Jangoikoai: eta ia belauriko Isaak gaizoa iltzeko, Abrahamek goratu zue besoa ta arma: puntu gartan aditu zue boza gau zerutik, etzazula il seme goi, zergatik diozun Jangoikoai beldur ta errespeto. Bereala lazatu zue semea, ta arren partez iku-

sirik an ari bat sasian adarrak trabaturik, ura il ta sakrifikatu zue. Jesus Isaak onagokoa etze libratu ala: ellegatu ze gurutzearen egurrareki ta bera izan ze biktima bere Aita eternoak eman zuena, sakrifika zekion munduagatik. Etziote oni egin berzeari bekala, eskindu ta ez eman: eman ziote tormentua franko ta eriotze doloreskoa: Etzekio barkatu Jesus onari Isaaki bekala, ezeta bere Ama Santisimari ere, Sarari bekala. Sarak etzue jain, ta etzue pasatu aflikziorik semeagatik: Ama Birjinak jakinik akonpañatu zue bidean, asistitu zue gurutzearen ondoan, ta pasatu zue martirio doloresko errua. Ellegaturik bada Kalbariora, lurrean utzirik gurutzea, edarazi zute arren gañean Jaun dibinoa, neurritzeko non egin txastagin-zuloak, frinkatzeko gero itzeak. Ontan ere izan omen zire inhumanoak formatus luzeago ziren baño besoak ta oñak, atratzeko gero beren lekuetaik ezur-
rak tiraka ellegaratzeko. (Aggred. hic) Txutitu zelarik, etzeien erori ezin egones oñen gañean, akuditu omen zue, ta iduki beso batetik bere Ama Santisimak presente zegonak Jangoikoaren probidenzias, pasa zezaten martirio doloreskoa Ama Semeak, axuriak ta ardiak, bi persona on one-
nak gaixtoengatik. Ze kostunbre justiziatu bear zirenei ematea trago on bat, konfortatzeko. Ontan ere Jesus onareki izan zire kruel txar billauak: ardo bat eman ziote nasirik mirras ta beazunes. Nola etziren zerbait bere-
re urrikaritzen alako personas? ain manso humil amableas, ta ain maltratatuas? Eta in bazue noribaiti zerbait gaizki, nonbait or; baña ez egin, baizik ongi nai zuten guziei! alaere ain gaizki nai? bai ta zenbatenaz iago ongi in zaioten, gaixtoago dire daudenak errebestiturik Satanases. Zein urrikari ta lastimaturik bide zegon Ama dibina! eta S. Juan, eta S. Magdalena, eta berze andre on gaiek akonpañatzen zutenak Ama! Nola uzten zuten ego-
tera an berdugoe? ta ain urbil? Baña Jangoikoak determinatzen duena ezin niork ere debeka. Nai zue bere Majestadeak, eman zezon bere justiziari satisfakzio gizonki ta emasteki guzien partez gizonki batek obenak, eta emasteki batek obenak. Akonpañia bez Amak Semea penan, dio Jangoikoak. Axuri dibinoa bear da sakrifikatu: bego ardia presente lamenta-
tzen. Berdugoe ere uzten bide zute an egotera, emateagatik iago pena Semeari Amaren presenzia ta penareki. Formatu ondoan txastagin-zuloak, atrarik itzeak, malluak, ta gañarako instrumentuak, biluxarazirik Jaun dibinoa berritus llagak, odola jariten alde guzietaik, edatu zute guruzearen gañean: eta esku bata paraturik zuloaren parean josi ziote itze andi bate-
ki malluaren golpez urratus aragiak eta zañak: Gero berze eskua ellegarazirik tiraka sokas zuloaren parera josi ziote berze itze andi bateki. Gero beiti bi oñak elkarren gañean paraturik berze itze larriagoko bateki, geie-
nek diotenez, edo zenbaiten ustes biak berex bi itzeeki, bereareki bako-



txa. (sic Tirinus &.) Edozein gisas tormentu ikaragarria izan ze, pensa-tzeas lastimarazten duena biotz kristioa. Bada Ama Santissima presente aditzen ta ikusten zegonare biotz amante gura nola nola ikaratzten bide ze malluaren golpe aldioro? Jesus beraren oñazeak nork explika? Nork kon-prehenditu? Amak eta Semeak biek egun gartan pasatu zute guruzifika-tzearen tormentua; guruzifikatu zuzte itze bereki Semearen gorputza, ta Amaren biotza. Itze Semea tormentuen indarres: ilen ze Ama penas eta dolores, ezpazio konserbatu bizia milagros Jangoikoak. Eta ala Maria San-tisimak gurutzearen ondoan pasatu zue martirio bat anitz eriotze adifña zena: izan ze Martir ziertoki, ta Martiren alزندari, buru, ta exenplu len-bizikoa bere Semearen atzetik. Itzeak frinkaturik ondarreraño, dio Agre-dako Benerableak, ezi errematxatzeko puntak, itzuli zutela berze aldera guruzearaki gorputza, ta paraturik agos bera lurraren kontra in zutela lan ori; eta jendeak beira zegonak goratu zuela ixkiritua ta lamentua konpa-siones. Zenbat maldade in zuten Jaun dibinoareki in eztirenak gaizkiegi-lle gaixtoenareki! Nork duda du, zebilala Satanas inzititzen Jo biotz txar billau gaiek? edo asko gizon direla gaixtoago ezi asko Deabru? Gero gora-tzeko airean gora, arrimatu zute lurrean in zuten zulora guzearen beitiko punta; eta lagundus batzuek soñeki, berze batzuek alabarda ta lanzaeki goratu zute Jaun guruzifikatua guruzean gora. Gelditu ze dilindan itzee-taik zur gartan airean gloriako Errege dena, infinizio bat jende zegolaik beira: Eta dio venerable berak, ezi goratzerakoan frinkatus lanzak aragi sanduan in zitiotela zauri andiak besapeetan, eta berriz orduan ere jendea asi zela iskiritus ta lamentus orgatik. udioek blasfematzen, beratx huma-noek lamentatzen, kanpokoek admiratzen arriturik, zenbaitek tapatzen begiak eznai beiratu lastimaren utses alako inpiedadea. Zer erran, edo pen-satu Maria Santisimas, zegas txutirik an guzia ikusten? Bereala guruzi-fikaturik bi ladronak goratu zuzte bi aldetaik: erdian zego Jesus onegia beterik guzia lllagas odola zeriola alde guzietaik: eta oñaze ta agonia zitue-nak estado gartan eztaizke pondera, ta ez pensa! Guziareki Judio gaixto-fikatuak zeude oraño ere beren seta gaixtoan Jaun onaren kontra blasfe-mia egozten ago gaixto gaietaik, arri ta auts tiratzen guruzearen kontra, eta makurtus beren buruak eskarnio egiten ziotela, ola ik dezakenak urra-tu Jangoikoaren tenploa, ta berriro goratu irur egunes, salba zak orai zure buruoi. Berzeak intik salbo, ta bere burua ezin salba. Barin bada Jangoi-koaren semea, jautsi bedi orai gurutzetik, eta sinetsiko diogu. Bi aldetaik zeuden ladronek guruzeeetan, aiek ere biek lenbizian blasfematzen zute, barin bada Jangoikoaren seme, libra bedi berori, eta gu ere bai. Geroxago bata konbertitu ze onera ezaundus Jaunaren ona. Baña Jaun dibinoa zego-

larik sufritzen guzia pazienza admirableareki, ia Jangoikoaren kriatura zerukoek ta lurrekoek ezin sufritus beren Kriadoren tratamentu alakoa, mostratu zute sentimentura. Eguerditsutik arratsalde apaleraño iruzkiak estali zue bere argia barratus ilundura mundu guzia barna; turbiotu zire izarrak, ikaratu ze lurra, zatikatu zire arriak elkarren kontra, idiki zire anitz obia, tenploko beloa urratu ze erditik beitiraño, eta alako señaileak agitu zire, ezi S. Dionisio Areopajitak urrun zegonak orduan Juez Atenasen erran omen zue, *edo guzien Jangoikoa dago padezitzen, edo munduaren makina urratzera doaie*. Señale geben kasos zenbait desengañatu zire. Zenturiona edo soldadoen Kapitana bere laguneki lotsatu ze, ta ziote, *Au egiaz Jangoi-koaren semea ze*: eta berze anitz zeudenak an, ezaundus ta konfesatus jus-toa zela Jesus itzultzen zire golpatus beren bularrak. Baña berze anitz alaere zeude beren teman Jaun dibinoaren kontra. Guruzearen buruan pararazi zue Pilatosek ol batean titulo edo letrero gau irur lengajeetan, Hebreoan, Griegoan, ta latinoan ziola, *Jesus Nazarenoa Judioen Errege*. Judio Jaunek erran ziote etzezala eskribitu Judioen Errege, baizik berak erraten zuela nola zen Errege. Errespondatu zue Pilatosek, *Eskribitu dutena eskri-biturik dago*. Eta ala etzue nai izan du egin aien errana. Goazen orai aditus Jesus onaren erranak gurutzetik biziaren akabanzan irur azken orduetan.



Gurutzetik erranak

60. Lenbiziko itz erran zuena izan ze bere etsai indigno gaien faboretan, *Pater, ignosce illis & ene Aita, barka bezote ebei, ezi eztakite zer ai diren*. O karidade bere parerik eztuena! *Aiek* beraren ongi eginak pagatu odios, iras, inbidias, persekuzios, tratatus gaizki ezin iagos beren amazale ta ongiegillerik obena akabarazi arteo tormentus, eta gurutifikatuas geros ere konpasionerik gabe eskarnio egines; eta ala ere bere Majestadeak zuztelarik ortzi infernuan justoki, ez solamente onetsi ta barkatu nai indignoei, baitare exkusatu nai beren ignoranzias! o karidade geiegia! Aien kasos ta aien eskus dago iltzen beterik penas eta dolores: alaere bere buruas atzendurik bekala antsiatzen aien salbazioa, iduri duela bere iltzeas baño iago pena duela aien galtzeas! Nork ikusi edo aitua du alakorik? Au da Jesus onaren nobletasun prestu erreala, pagatus gaizkiak ones, odio injustoa amore graziosos. O amore mugarik gabekoa! O mansotasun ta pazienza gogoratu etzeikena! Nork eztu esperatu bear guzia Jaun alakoaganik eskatuas geros, nai zuelaik barka zekioten etzutenei eskatzen, bai segitzen agrabio ta injuria egiten?...

61. Bigarren itza bi ladronetaik batari seguratus salbazioa. Gero ere au deitzen zena Dimas argiturik Jaunaren grazias, ta ezaundurik bere gaizkia, ta bere Redentorea konfesatu zue gurutzetik: Lenik bere lagun ladronai segitzen zuenai blasfematzen Jaun dibinoa, zeren etzituen libratzen, barin baze Jangoikoaren Semea, eman zio errerebensio bat, ziola, ik ere eztuk Jangoikoaren Eeldur ta atenziorik, agolarik kondenazio berean. Guk ordea pagatzen diau mereji duguna geuren gaizki egines: baño Jau nonek eztik gaizkirik batere egin. Eta itzulirik Jesusengana erran zio, *Jauna, oroi bedi nitas, doaielarik bere erreinura*. Errespondatu zio Jaunak agotik agora, *Amen dico tibi, hodie mecum eris in &.* Egia sines erraten dizut, egun izanen zarela nereki paraisoan. O ladron fortunoso, zein laster arrapatu duen paraisoa! Esker noren aldakan fortunatu den! Esker bere Amari ere dagonai enpeñatzen ongi egiteko! Zein guti gure aldetik aski duen Jesus onak egiteko grazia? Itza arrek atra orduko eskatus, seguratzan dio betiko salbazioaren itza. Itz bateki ditxa betirokoa...

62. Irugarren itza bere Ama Santisimari, baizego an guruzearen ondoan gurutzifikaturik biotza dolorez, baño txutirik alaere konstante S. Juan Ebanjelariaren konpañian, erran zio bada gurutzetik Sanduagatik, *Andrea, orra zure semea: ecce filius tuus*: eta bereala S. Juani, *orra zure Ama: ecce Mater tua*: Izan ze ori despedidan bekala testamentuan uztea bere partez S. Juan, kuida zezan bere Ama Santisimas hume bekala, eta artas Ama Bir-

jinak Ama bekala. Zori onekoa izan ze S. Juan ere; egin zuen obsekioa asistitzean guruzearen ondoan, ta akonpañatzean Ama doloreskoa, ederki pagatu zio emanen arren Amatako bere Ama, eta Amak artus bere semetako. Akonpañatzen badugu S. Juaneki Ama Birjina debozioan, konfia dezakegu, dela guretako ere itz gura, *ona zure Ama*, ta berze gura, *ona zure semea*. Ordu gartaik artu zue S. Juanek Ama Santisima beretako: guk ere artzagun guretako: eta pensatus zenbat kosta zekion Seme on dibino garren uztea despedidan, ta zenbat berari ta Semeari gure erreskatatzea, erran bear diogu maiz, *monstra te esse Matrem*, mostra bez dela Ama, Jangoikoaren &.

63. Laugarren itza bere agonian boza amoroso ta dolorosoareki, *Deus meus, Deus meus & ene Jangoikoa, ene Jangoikoa, nola edo zergatik desanparatu nau?* Desanparo gau entenda ia zeren utzi zuen pasatzera ainberze Jangoikoak gizontasuna, ia prinzipalkiro zeren, Agredakoak dionez, malogratu bear zen geienetan beren kulpas ta aunaren borondatearen kontra. Ori ze bere pena ta tristurarik andiena: erremedioa infinito kostarik malogratu, ta heri galdu etsituak ez erremediatu! Mediku dibinoak sobra egin, eta heriak alaere il sekulakos!

64. Bortzgarren itza ario berera *Sitio*, au da, *egarri dut*. Zer egarri uste dugu? klaro da batzuela gorputzean ere egarri naturala ainberze oñazeen ta eriotzearen kasos: baño arimarena ze erruagokoa, au da deseoa ta antsia salbatu naies gizagende guzia... Amoresko suak ematen zio egarri gura, zerengatik amaten gaituen iago gu, ezi geurok amaten garen, eta ongi eginik, ta padezitirik infinito guregatik, oraño etze ase, oraño iago ere pasa lezake, bear baliz, salbatzeko gu guziok: guzien partez paratu zen bekala, guzien salbatzeko zue antsia, ta egarria...

65. Seigarren itza erran zue azkenerat *Consummatum est*, bukatu edo akabatu da; kunplitu da itekoa, zeintara jautsi nizan zerutik; egin da bear zen guzia: obratu da ta paratu ene Elizan erremedio guzia, atratzeko salbo nai diren guziak: Deus ere etzaiote falta. Zer iago in bear ze, edo zer egin zeike iago?

66. Zazpigarren ta azken itza, *Pater, in manus tuas & Aita, berorren eskuetan enkomendatzen dut ene espiritua*. Oneki inklinatus burua, berexize gorputzetik arima, ta erakutsi zigu nola bear garen il gu ere. Oiu andi bat eman zue on erratean, aditzen zutela guziek, adiarazis ala ematen ziola erioari lizenzia ellega zekion, ta iltzen zela bere naiez... Orreki, ta gañarako agitu ziren señaaleeki ezaundu zue zenturionak ta berze anitzek, gurutzifikatu gura zela gizon baño iago, ta ziote, *sinez ta egiaz au Jangoikoaren Semea ze...*



Iltzea

67. Iltze gorputza, berexteareki arima, zein jautsi ze linboetara uniturik dibinidadeareki, atratzera an etxideten zeuden lengo justoen arima sandak: eta berla danik bere presenziareki leku gura itzuli zue paraiso beterik argitasunes eta glorias. Gorputz dibinoa gelditu ze guruzean arima gabe ilik, baña uniturik dibinidade berareki... Aldakan beiti zego Ama Santisima, bizirik bai Jangoikoaren milagros, baña ondaturik doloresko itsaso amargoan ezin iagos: konstante alaere ta animosa Martiren Erregina jenerosa bekala. Nola daike konsolatu Ama amante gura, grazias betea, ta betea dolores? alako semearen alako eriotzean, ta bere begien alzinean? Ez lurretik, ez Zerutik, ez niondik ere eztu konsolurik, faltatuas geros bere seme dibino gura, bere amore ta on guzia. Soill ta ilunbetan gelditu ze iltzeareki bere begien argi, ta bere arimaren enplegu guzia zen bakar gura. Ezta dolore ta penarik konpara daikenik Ama Birjinaren pena ta doloreeki Jesus onaren pasioan, eriotzean, ta ondorean... Gaintzeko pena penaren gain, agitu ze lanzadarena. Biramona ze larunbata Judioen jai andi solemnea, eta ez uzteko justiziatuen gorputzak gurutzeetan egun gartaraño, eskatu ziote Pilatosi lizenzia, abarrikatzeko aien zangoak, akaba zeizen iles. Ortako eldu ze Kalbariora soldadoen konpañia bat: eta abarrikatu zitiote bi ladronei zangoak, ta iltzire orreki: eta ellegaturik Jesu-sengana, ta ikusirik ilik zegola, etziote autxi, cunplitus ala profezia adiara-zi zuena Jangoikoak len ta len, manatus Exodoan ez axsteko axuri bazkoakoaren ezurrik. Baña soldado batek, deitzen zenak Lonjinos, tiratu zio lanzas, ta idiki zio gorputz ilari bularra biotzaren aldetik: ta zauritik atra ze odol ta ur, dion bekala S. Juan Ebanjelariak ematen duenak testimonio ikusi zuenas bere begis. Lanza garren golpea etzue sentitu gorputz ilak, baña Amak bai arimaraño. Lanza kruelak etzue ta etzuke heritu Jesusen arima, ezpaizego ia an, baña heritzue Ama Birjinaren arima, ezpaizeike andik aparta, dion bekala S. Bernardok. Ederki kunplitu ze Simeon Sanduak errana Ama Santisimari presentatu zuelarik bere aur dibinoa tenploan, *beira, aurtto gau dago paraturik ala nola jomuga bat, zeñen kontra tiratuko baitute, eta zeurorren arima traspasatuko du ezpatak*. Traspasatu zue osoki beraren pasioan, ta iltzerakoan, ta orduan il ondoan ere bai. Eta etze mendekatu? bai noblekiro. Iraren lekuan beterik karidades ta piedades erran omen zio emekiro, *guzis poderosoak beira dezazula miserikordiasko begieki zuri, zuk ni ri eman didazun penagatik*. Eta bedeizio gonon birtutez beiratu zio

Jangoikoak piadoso, ta odol atra zenaren tantaren batek ukiturik argitu zio bista, baizue eskas, eta bateo arima, ezauntzeko nor zen guruzifikatua; ta konbertitu ze an berean, ta konfesatu ta publikatu zue Jesus Jangoiko bekala: eta gero konfirmatu zue bere odolareki Martir eginik: eta orra orai dauka Zeruan glorioso idiki ziona lanzas bularra. Nork dezake deskonfia?



Ortizitzea

68. Agitu ze Jesu Kristoren iltzea bere adinaren ogei ta amirur urte beterik, Martxoaren ogei ta bortzgarrenean, ortzilar sanduan, arratsaldeko iruretakoa... Gero lanzas eman ondoan arratsalde apalean, zego beti konstante an Ama Santisima kuidadotan nola bear zuen ortzi gorputz dibinoa. Egin zue orazio Jangoikoai, eman zezon grazia ta manera, nola kunplitu piedadesko ofizio goi. Eta Jangoikoak mogitu ziote biotza Josef Arimateari ta Nikodemusi, egiteko lan goi. Josef gura ze gizon on bat ork.uraño altxatu zuena Kristoren Diszipulo zela: orduan Jangoikoaren grazias animaturik nioren beldurrik gabe joan ta ausarki eskatu zio Pilatosi lizenzia, ortzitzeko Kristoren gorputza, publikatus zela kulpa gabea, ta proprioki Jangoikoaren semea, Jangoikoak berak deklaratu zuena milagro anitz ta andieki. Emanik lizenzia, prebenitu zue Nikodemuseki bear zen guzia, maindreak, oialak, ta aroma usatzen zirenak orzitzeko honratuki. Ama Satisimak ikusi zitue nola eldu ziren anitz lagun eskale ta aparajueki, baña etzekie nor ziren, ta zer in nai zuten: Ala erran zio S. Juani, *ene semea, zer intenzios eldu ote da jendetze gura?* Sanduak errespondatu zio, ene Ama Santisima, ezdezala beldurrik izan, ones eldu dire: ezauntzentut direla berorren Seme Jaunaren adiskideak. Ellegatu zirelaik, ikusteariki Jauna ilik, ta bere Ama an dolore bat eginik, berritu ze negarra ta lamentua: nai zute apartarazi guti bat, jautsi artaño gurutzetik: baña Ama amantek animosa eskatu ziote utzi zezatela Jaunaren amorez egotera presenten an, ezi eman zionak arimo asistitzeko gurutzean paratzerakoan, ta goratzerakoan, emanen ziola jausterakoan. Paraturik bada eskaleak, asi zire lenik kentzen korona arantzieskoa, gero itzeak, eta kendus bekala presentatzen Ama Santisimaren eskuetan, zeñek adoratu zitue erreberenzia guziareki, gero gañarakoek... Jautsi zute gero gorputz dibinoa, zein paraturik Ama Birjinaren alzoan adoratu ta erregatu zue negarrez, eta segi dan guziek, aditus mutu itz amoroso ta lastimoso erraten zituenak Ama onak, zein ezin zeike desapega bere maite bakarraganik. Pasatus ia arratsaldea, eskatu ziote laza zezan, eramateko ortzizera. Enbalsamatu zute aromaeki, eta mortaxaturik dezenteki paratu zute andan, ta eraman zute, akonpañatus guziek Aingirueki, an urbil aratze batera, non Josef garrek zuen bere obia bat berria, non etzen oraño paratu ilik nior ere. Paraturik aldakan gorputz dibinoa berriro Ama Santisimaren atzetik adoratu zute guziek negarrez: gero depositatu zute obia gartan, paratus gañeko aldean ar-

lauza bat agitz andia. Ala ertxirik utzi ta guziak itzuli zire Kalbariora, non berriz adoratu zuten gurutzea: andik joan zire Jerusalem, ta Maria Santisima bere erretirora. Au da kredoak nai duena erran, diolaik, *ortzi zutela...*

69. *Jautsi zela linboetara*, entenda, *arima dibinoa* uniturik bere dibinidadeareki: eta an ziren arima sandak ia purgaturik loriaztatu zitue berladanik ikusteariki klaro beraren Majestadea. Purgatoriotik ere atra zituela arimak egun gartan, indulto jeneralaren egunean bekala, guziak, diote batzuek, berze batzuek ezi anitz. Sentitu omen zute Deabruek eta kondetuek ere Jaunaren jautsitzea linboetara, baña ez beren protxu edo alibiotako, ezi infernuan ezta batere redenzionerik. Sanduen linbo ia paraiso itzuli zuen gartan egon ze Jesu Kristoren arima orzilareren arratsaldeko iruretaik urbilen igandearen goizeko irurak arteo guti gorabera.



Kristoren Erresurrekzioa, edo berriro biztea

70. Andik il ta irugarren egunean erresuzitatu zela den ertetik bere birtute propios, dio Kredoan. Nola agitu zen? Izan ze gisa ontan. Ellegaturik arima gorputza zegon lekura, unitus berriz elkarreki arima ta gorputza gloriosorik, ez beñere berriz iltzekotan. Bereala gorputz dibino gura, zegona lentxago llagaturik, ilik, itsusturik ainberze tratamentu gaixtos, bereala ari-maren unitzeareki biztu ze berriro, ta errebestitu ze gloriako laur dote gloriosoes, *Klaridadeas, Ajilidadeas, Sutilezas, ta Inpasibilidadeas*: (zeñen letra lenbizikoak memoriaren amarez tuzu itztto gontan, CASI.) Ala Jesu Kristo gure Jaun Redentoreak, ilen primizia denak, eman zigu mostra bat inen duenas gureki azken egunean erresuzitatus, biztus, ta berritus gure gorputz gebek bere gorputzaren konforme bere ariora, dion bekala S. Pablok, *reformabit corpus humilitatis nostrae confuratum corpori claritatis suae*: Naiz Judio Jaunek eginale eginik ortzitzeko Jesus onaren gloria, ta beren gaixtakeria ta deshonrea. Joan zire Pilatosengana, ta erran ziote, *Jauna, oroitu gara nola enbustero engañazale garrek*, (ala deitzen zute Jesus), *erran zuen, biztuko zela irugarren egunean: mana bez bada guardatzeko obia, eztaien agitu, joatea bere Diszipuloak, ebatsi gorputza, ta gero erran jendeari, biztu dela ilen ertetik: eta gaixtoago izanen da azken engañua lenekoa baño*. Pilatosek errespondatu zue, *or daukaze guardia; joan ta guarda zaze nola dakizen*. Joan ta paratu zute guardia, ta paratu zute señalear ar-lauza gartan. Baña zer baliatu zekiote beren astuzia? Plazer izan zuelarik biztu ze berriro Jesu Kristo, eta atra ze obiatik biktorioso triunfante glorioso, mogitu gabe gañeko ar-lauza: eta suponitzen da len lenik agertu zela bere Ama Santisimari, eriotzeko pena ta ilunbetan zegonari, bizkortzeko, animatzeko, ta betetzeko alegrianzias ondorean... Gero kontatzen da ebanjelioan, nola agertu zen gañarakoei, eta lenik andre on gaiei.

71. Lenik egin ziote grazia gau andreei, zeren ziren lenak ta fuerteenak fedean ta debozioan Jaunaren amarez... S. Maria Magdalenak eta berze Mariaek erreparaturik non paratu zuten gorputz dibinoa, erosi omen ziote asko aroma larunbate sanduaren arratsaldean, joateko urbilen igandean goiz goitzik egitera unjitzearen obsekio debozioskoa. Atra zire bada goiz gartan Jerusalendik argitubaño len joateko obrara, etzekitela zegon señaleturik selloas, ta guardiaeki Pilatosen manamendus. Prisaka zoezi beren antsia garreki, eta bidean solamente zute kuido, nork ken-

duko zuen gañeko ar-lauza monumentutik? Alaere amoreak ematen ziote indar, garaitzeko difikultade gau, ta etxakin nola... Argitu gabe naiz atrarik ellegatu zireneko ia zego iruzkia gora; zeren goiz gartan alzinatu zen irur ordu egon zena ilundurik ortzilareko eguerditik bera. Ia lentxago bizturik zego, ta atrarik obiatik Jaun dibinoa mogitu gabe gañeko ar-lauza, erran bekala: eta aiek joaterakoan, agitu ze terremoto ta arroitu lotsagarri bat, ta denbora berean Aingiru batek irauli zue gañeko ar-lauza gura, eta guardiak lotsarriturik erori zire lurrean nola ilak sentidorik gabe. Alaere andre on gaiek beren debozioaren suareki animaturik segitu zute beren bideas, eta ellegatu ondoan aurkitu zute iraulirik arria, ta Aingiru bat gañean txuris jaintsirik argi eder ederra, zeñek erran ziote, *etza ziela izan beldurrik zuek, ezi badakit billatzen duzela Jesus Nazarenoa. Eztago ia emen, ezi biztu da berriro. Sartu ta ikusaze lekua, non paratu zuten*. Sartu zire, ta ikusi zute obia utsik: ortas zeudelaik arriturik ta etxakin zer egin, ikusi zute berze bi Aingiru obiaren bi aldeetaik erran ziotenak, *Zertako billatzen duze ilen ertean bizi dena ia berriro bizturik? oroi zaizte berak erranas, biztuko zela il ta irugarren egunean. Zoazte bereala, ta emozie berri gau bere Diszipuloei eta Pedro-ri, ta doazan Galileara, non ikusiko baitute*. Oneki aiek oroitu zire Kristok erranas: eta itzulirik prisaka kontatu ziote Apostoluei, ta berze Kristio berri gaiei, zeñek uste zute zeudela zoraturik andre gaiek, ta zerdukatela zorokeriak. Ain turbaturik zeude, ta atzendurik Kristoren erranes! Bitarteo obiaren guardian zeuden soldadoak akorritu zire beren desmaio gartak, eta ikusi zutelarik obia idikirik, eta utsik, joan zire kontatzera Judio Jaunei, zeñek bildurik batzarrean konfuso altxatu naiez ta gezurtatu agitu zen milagroki askoa, ofrezitu ziote asko diru soldado gaiei, erran zezaten, *nola aiek lo zeudelaik, joan ziren Kristoren Diszipuloak, eta ebatsi zuten obiatik gorputza: eta etzezaten beldurrik izan errateas ori, ezi berek libratuko zutela deskuidoaren kastigotik*. Publikatu zute aiek gezur konpondu zuten goi, eta zenbaitek sinetsi zute orduan, ta oraño ere itsuturik ezauntzeko gezurra klaro, ikusi zutela ebasten, zeudelarik lo...

72. Apostoluek naiz ez guzis sinetsirik andre gaien erranak, alaere S. Pedro ta S. Juan ikusi naiez joan zire laster obiaren lekura, aien atzetik Mariak. Elleptu ze lentxago S. Juan, ta kanpotik ikusi zitue mortaxa ta oialak apart leku batean: ellegaturik S. Pedro sartu ze arrek monumentuan, ta ikusi zute obia utsik gorputza gabe. Biak admiraturik itzuli zire kontatzera gañarakoei ikusi zutena... Baña Mariak gelditu zire an kanpoko alde-tik tratatzen elkarreki admiraturik agituas. Baña Maria Magdalena ez kontent beiratuas bein, itzuli ze berriz monumentura, berriz zego obiara beira eta negarrez bere Jaun onaren amarez: eta Aingiruek apareziturik galde-



gin zio, *emastekia, zergatik zaude negarrez?* Errespondatu zue, *zergatik kendu baitute emendik ene Jauna, ta ezpaitakit non paratu duten.* Erran ta atra ze kanporat baratzer, eta opatu zue Jaun dibinoa berze iduri batean: eta etzue ezaundu Magdalenak, ta uste zue zela baratzezaia edo hortelanoa. Galdegin zio bere Majestadeak, *emastekia, zergatik zaude negarrez?* Zeren *billa zabiltza?* Magdalenak ustez zen baratzezaia, erran zio, *berorrek kendu barin badu, erran bezada niri non paratu duen, eta nik ermako dut.* Zein zoraturik zegon amores, etzuela beiratzan ere, nola bear zuen kendu ila baratzezaia, eta nola zuen berak erman, eta ez jasi ere. Orduan Jaun dibinoak erran zio amoroso, *Maria.* Nonbratzeareki solamente ezaundu zue M.^a Magdalenak, zela bere Jesus ona: eta bereala urtikirik beraren oñetan, nai zitio apatu ta adoratu, nola zegon kostunbraturik. Jaun dibinoak detenitu zue erraten ziola, *ez on egin, ezi oraño ez naiz igan ene Aitagana, baizik joan ta erran zozute ene anaia Apostoluei mezu gau, Banoaiela ene Aitagana ta zuen Aitagana, ene Jangoikoagana ta zuen Jangoikoagana.* Jaiki ze bereala Magdalena, ta bazoeie kunplitzera manamendua; zein zoraturik alegranzias, amores, ta agradezimentus, pensa! Laster erdetxi zitue berze Mariak, eta kontatu ziote agitu zekiona: eta zaudelaik admiraturik, konsolazios ta kontentus beterik tratatzen ortas, agertu zekiote guziei bateo Jaun dibinoa erraten ziotela, *agur, Jangoikoak salba zaiztela.* Ezaundurik aiek adoratu zute bere Majestadea debozio andiareki. Manatu zitue joateko Apostoluengana, kontatzeko ikusi zutena; eta zoezila Galileara, non ikusiko zuten. Joan zire laster, eta kontatu zute agitu zekiote guzia. Eta oraño ere zeude Apostoluak gogorkara sinestatzeko guzis... S. Pedrori Elizaren buru señalatu zuenari berex agertu zekiola, ezta dudarik, Luc. 24, v. 34. noiz izan zen, eztakigu, baizik izan zela igande berean, ta berze Apostoluei baño len... Arratsalde apalean zoezi Jerusalemik Emausgo Kastelura, bi legoa bide urbil, bi Diszipulo, bat deitua Kleofas, berzea S. Lukas bera kontatzen duena: eta zoezi bidean jardukis admiraturik Jesu Kristok padezitu zuenas. Bitartean urbildu zekiote Jaun dibinoa peregrino-aintzu, ta galdein ziote, zer zindeuzte jardukitzen elkarreki, baizauzte ala triste? Errespondatu zio batak, ori sollik da peregrino Jerusalemen, ezpaitaki an agitu dena joan den egunetan? Zer bada? galdegin zue: eta Diszipuloak, Jauna, Jesus Nazarenoareki egin dutena, baize gizon bat Profeta poderoso obras ta itzes, Jangoikoaren ta jende guziaren begietan: eta nola Sazerdote sumoek ta gure Prinzipeek entregatu duten iltzeko ta guruzifikatu duten. Eta guk esperatzen gindue berak bear zuela erreskatatu Israel: eta orai guzien gañetik egun da irugarren eguna duena agitu dela ori guzioi. Baita ere arritu gaitute emasteki batzuek gureetaik, zein joanik argitu gabe monumen-

tura, ta ez aurkiturik beraren gorputza, itzuli dire seguratus ikusitutela Ainguruak ere, zeñek baitiote bizi dela. Eta joan dire monumentura zenbait gure lagunetaik, ta aurkitu dute ala dela nola erran duten emastekiek, baña bera eztute aurkitu... Eta peregrino dibinoak erraten diote, o boboak ta biotz gogorak sinesteko, Profetek erranikako gauza guzietan! Agian etze preziso pasa zezan on guzioi Jesu Kristok, eta ala sar zeien bere glorian? Eta asirik Moises ta berze Profetaetaik explikatu ziote Eskritura guzietan dagona beraren gain. Eta urbildu zire kastelura, nora zoezin: eta berak iduriarazi zue alzinago ta urrunago zoeiela. Baña aiek geldiarazi zute an erraten ziotela Jauna, geldi bedi gureki, ezi pasaturik eguna ia ilunabartu du. Eta sartu ze aieki: ta agitu ze jarri ondoan maiean, artu ogia, ta bedeikatu zue, partitu ta ematen ziote aiei. Oneki goart eman ta ezaundu zute: baña bera desaparezitu ze aien begietatik. Eta erraten zire elkarri, agian ezkindue senti geuren barnean biotza erretzen deboziosko suan, mintzatzen zegokigun bitartean, eta deklaritzen Eskriturak? Eta ordu berean aiki, ta itzuli zire Jerusalem, ta aurkitu zute ameka Apostoluak bildurik batean, ta aieki zirenak erraten zutela, egiaz gure Jauna biztu dela, ta agertu zaiola Pedrori. Eta bi gaiek kontatzen ziote agitu zekiotena bidean, eta nola ezaundu zuten ogiaren partitzean...

73. Ala jardukitzen daudelarik, plantatu zekiote erdian Jesus ona, ta erraten diote, *bakea zueki: ni naiz: etzaiztela lotsa.* Turbaturik aiek ta lotsaturik uste zute zela espirituaren bat ikusten zutena. Berak erran ziote, *zergatik zauzte turbaturik kabilatzen zeuren baitan? Beira nere eskuok eta oñok: ezi neurau naiz berbera: astatu ta ikusaze, ezi espirituak eztu aragi ta ezurrik, nola dakusazen dutela nik.* Au erran ta mostratu zizkiote bere eskuak ta oñak. Baña oraño aiek dudankara zeudelarik ta admiraturik bozkariundez, erran ziote bere Majestadeak, *baduzie jateko denik zerbait?* Aiek presentatu ziote arrai zati bat errea, ta ezti orratze bat. Eta jan ondoan aien alzinean utzi ziote gañarakoa. Eta erran ziote: *Ala dire nik erranikako itzak, nindegolaik zueki, preziso baita kunplitzea Moisesen legian, Profeta, ta psalmoetan nitas eskribiturik zegon guzia.* Orduan argitu ziote entendamentua, entendatzeko eskriturak. Eta erran ziote, *ala zego eskribiturik, ta ala ze preziso Kristok padezitzea, ta ilen ertetik biztea irugarren egunean: eta beraren izenean predikatzea bekatuaren penitentzia ta barkamendua jende guzietan Jerusalemik asirik.* Eta zuek testigo egia eben zarate, Luc. ult. Berriz berriro erran ziote, *biz bakea zueki: Ala nola ene Aitak biali ninduen ni, ala nik bialtzen zaiztet zuek.* Au erran ta fu edo ats eman ziote, ta erran, *Errezibi zaze Espiritu Sandua: noren bekatuak barkatzentuzien, barkatuak dire, ta norenak eztuzien barkatzen, barkatu gabe gelditzen dire.* Joan. 20. Presente ontan guzian S. Tomas, eta etorri zelaik, erran



ziote lagunek, nola ikusi zuten Jesus Jauna. Arrek erran ziote, *ezpadut ikusten beraren eskuetan itzeen señaileak, ta ukitzen eskuas llagen kuntzeak, eztut sine-tsiko*. Guziau agitu ze igandean, biztu zen egun artan berean. Andik zorzi egun berriz zeude bildurik Diszipuloak etxe-barnean, eta S. Tomas ere bai aieki batean. Sartu ze Jesus, ertxirik zeudelaik atariak idiki gabe, ta paraturik erdian erran ziote, *bakea zueki*. Gero erran zio S. Tomasi, *eda zazu eskuoi, astatu ene eskuok, ta paratu ene bularrean; eta etzaitela izan sinestagaitz, baizik fiel sinestakor*. Errespondatu zio S. Tomasek, *o ene Jauna, ta ene Jangoikoa!* Erraten dio Jesus onak, *o Tomas, zeren ikusi nauzun, sinetsi duzu: zorionekoak dire ikusi gabe sinetsi dutenak*. Permittedu zue Jangoikoak Apostolu Sanduan fede-falta gura egun gaietan, seguratzeko gure fedea se guro-ago arren ukitzeareki llagak... Bidanabarka emen ageri konserbatu zituela Jaun dibinoak llagen kuntzeak bularrean ta esku oñetan eder glorioso, presentatzeko Aita eternoari gure amorez pasatu zuenaren señaileak ta insigniak. &.

74. Berrogei egunes egon ze lurrean erresuzitatuas geros igan arteo Zerura konfirmatzen ta seguratzen Apostoluak ta Kristio berri gaiek bere fedean agertus asko aldis begietara ikus zezaten ta segura zeizen. Azken-nerat manifestatu zekioite zazpi Diszipuloeri Tiberiasko itsaso aldean gisaontan, S. Juanek kontatzen duen bekala. Erraten diote S. Pedrok lagunei, Joan. 21. Banoaie arranzura. Errespondatzen diote, bagoaz gu ere zureki. Joan zire, beren lana in zute, baña gau gartan etzute deus ere arrapatu. Biramon goizean plantatu ze Jesus itsas-basterrean, baña etzute aiek ezaundu zela Jesus. Galdegiten diote Jaun dibinoak, *baduze agian zerbait jatekorik?* Errespondatu zute *ezetz*. Erraten diote, *bota zaze sarea onziaren eskuieko aldera, ta aurkituko duze*. Bota zute bada, eta ia etzezakete atra arraiketa geiegiaren kasos. Diszipulo garrek bada, Jesusen onetsiak erraten dio Pedrori, *Jauna da*. Aditu zuelarik Pedrok Jauna dela, paratu zue bere tunika, ta bota ze itsasora: berzeak joan zire itsasonzian, ezi etzeude urruti leorretik, baizik berreun bat beso bekala, tiratzen arraien sarea. Leorrera zirelaik, ikusi zuzte paraturik brasak ta arrai bat gañean, eta ogi. Erraten diote Jesusek, *ekartzie oraietan arrapatutuzien arraietaik*. Igan ze Pedro, ta tiratu zue leorrerat sarea beterik arrai andies eun ta berrogeitamirur. Eta ainberze zirelaik, etze autxi sarea. Erraten diote Jesusek, *zatozte artzera alimentu*. Eta jarri zirenetaik nior ere etze trebe galdegitera berrari, on nor da? baizekite zela Jesus Jauna. Artu zue berak ogia, ta ematen diote, ta arraia gisa berean... Bazkaldu ondoan bada, erraten dio Jesus onak Pedrori, *Pedro, amatzen nauzu ni ebek baño iago?* Errespondatu zio, *bai, Jauna, berorrek daki amatzen dutela*. Erraten dio, *bada kuida nere axuriak*. Gal-

degiten dio berriz, *Pedro, maitatzen nauzu ni?* Errespondatu zio, *bai, Jauna, orrek daki maite dudala*. Erraten dio, *bada guarda nere axuriak*. Erraten dio irugarren aldian, *Pedro, maite nauzu ni?* Tristatu ze Pedro galdeginas on irur aldis; ta errespondatu zio, *Jauna, berorrek guzia daki, berorrek daki maite dudala nik berori*. Erraten dio, *bada kuida nere ardiak*. Egiaz erraten dizut, *ezi gastea zinalaik, jaintsitzen zina zeuroi, ta zindebila nora nai zinduen: baña zarzen zarelaik, edatukotuzu zeure eskuok, ta berze batek ertxiko zaitu, ta eramako nora zuk eztuzun nai*. Eta au erran zuela adiarazis nolako eriotzeas honratu bear zuen Jangoikoa, eta au erran ta manatu ziola, *segi nazazu ni*. Guziau kontatzen du S. Juan ebanjelariak. c. ult.



Kristoren igatea Zerura

75. Berrogei garren egunean zegolaik Jesus ona Jerusalengo zenakulo edo afaltegian bere ameka Apostolueki, bildu zire arara sala zabal gartan berze anitz persona eun ta ogeitarano; mintzatu zekiote Aita amoroso bat bekala despeidako; zer itzak? zer konsejuak? zer promesak? nork explika? Prinzipalki Apostoluei manatu zioten ez apartatzeko Jerusalendik, alik eta errebestitu arteo Espiritu Sanduaren birtuteas goratik. Akonpañaturik aieki guzieki, ta espezialki bere Ama Santisimareki atra ze prozesio eder sanduan Olibeteko oian kaskora: An goraturik eskuak eman zioten azken bedeizioa, bedeizio betiroko zori onekoa: an adoratu zute azkenik guzien salbazale Jaun ta Jangoikoa bekala: eta guziak beira zegoziolaik, joan ze iganes bere birtute propios airean gora nioren laguntzarik gabe, ezeta bear ere, akonpañaturik Zeruko Aingirues, bere mutil ta soldadoes bekala, baitare linboetaik atra zituen sandues ere: eta Zerura zelarik, altxatu zue lañu eder batek an, ikusi ezin zezaketen gisan ia lurrekoek. Alaere beira beira zeuelaik gora, agertu zekizkiote an bi Aingiru eder txuris jaintsirik, erran ziotenak, o Galileatarrak, zertan zauzte ala beira Zerura? Jesus Jaun gura, zuen ganik igan dena zerura, ala etorriko da, nola ikusi duzien igaten. Orduan itzuli zire Jerusalem, egotera an erretiraturik orazioan Maria Santisimareki esperatzen Espiritu Sandua, jautsi zena andik amar egun, ta bete zituena bere su argias, joateko mundus mundu predikatzer a Ebanjelioa jende guziei. Jesus ona iganik gizontasunean bere dibinidadareki sartu ze bere glorian artzera posesio bere koronas ta potestadeas kriptura guzien gañean. Eta ura izan ze eguna, noiz idiki zituen lenbizikorik lurrekoendako Zeruko atariak orduraño ertxirik egon zirenak. Ura izan ze eguna, noiz gizon berri dibinoak eraman zituen bereki arara lenbiziko gizon ikusi zirenak leku gartan, gizonen primiziak bekala, joateko segitus ondorean Jesus onaren atzetik bere eskojituak izan, ta izanen direnak munduan. Orain dago Jesus ona trono gorenean jarriarik bere Aita eternoaren eskuieko aldean, duela Aitak adiña gloria Jangoikoa bekala, ta berze guziek baño iago gizon bekala. Egotea jarriarik ez entenda materialki ain txusto postura gortan, ezi dago ta egonen da nola duen plazer, ta S. Estebanek ikusi zue zegola txutirik: baña jarriarik egotean entenda dagola, ez bidanabar ostatus, baizik posesios, egotez, ta betikos Jangoikoaren potestade, podore, Majestade, ta gloria guziareki... An dago gure Redentorea, Salbazale, Jabe, buru, ta aien egiaskoa bereganatu

naiez bere erredimituak, bere etxeak, bere mienbro ta zarmendu kristioak. An dago gure adiskide amante apasionatu fin bakarra, ta gure anai lenbizikoa gu guzien fiadore ta pagadore paratu zena, bere biziaren, ta odolaren kostus erosi gaituena ta nai gaituena salbatu ain sinez, nola nai baitu eztaien malogra kosta zaiona. An dago gure Abogatu bear bekala, gure Sazerdote ta Pontifize dibino, sandua, inozentea, mantxa gabekoa, Zeruko guziak baño obeagokoa, beretako bearrik ez, eta guretako ari dena bi aldetara, palakatzen Jangoikoa gure fabore, ta konbidatzen gu Jangoikoaren alde, klamatzen dei ta dei, errogatzen, manatzen, *zatozte enegana trabajutan zauzten guziok, eta nik deskansatuko zaiztet. Artu ene bustarri suabea ta karga arina, eta segi ni nere bideas.* An dago enpeñatzen gure onerako, ta erakusten Aitari bere oiñ, esku, ta bularreko llagen kuntzeak, ezpaizitue nai utzi borrarzera, bai konserbatu gure amorearen memoriatako glorian ere: ta ala erran daie gauzkiela gu eskribiturik ta inprimiturik berebaitan letra eder gaieki, ez atzentzeko gutas sekulan. Ezta atzenduko, ez: Oroiarazikodu bere izen propioak, baita Jesus Salbazalea: Oroiarazikodu beirratzeak berebaitan letra eder gaiek ikusiarazten diotenak kostatu gaizkiok. An dago gure faltaen suplitzeko, guri arara igaten laguntzeko, ezi onaraño andik apaldu zenak guregatik ta gurutzeraño, nai gaitu bai igan gu araraño: eta iduri badu sobra igatea gu ain gora, iago da apaltzea ainberze bere Majestadea. Alako exzesok eta kostuak egintuenas geros guregatik, ia dezakegu alega dretxo ararako beragatik. S. Bernardo bein eramanik espirituan Jangoikoaren juiziora, akusatzen zue an etsaiak fuerteki alegatus etzuela mereji gloriaratzera. Manaturik mintza zeila bere fabore, barin bazue alegatzekorik, errespondatu zue, nik, egia da, eztudala mereji gloria, baña ene Jaun Jesu Kristok du dretxo an bi titulos: lenik, zeren baita Jangoiko, ta ango errege naturalezas: bigarrenik, zeren irabazi baitu bere trabajuen kostus: bera kontentatzen da lenbiziko tituloareki, eta bigarrenas donazio iten dida niri. Onen kasos eskatzen ta esperatzen dut gloria nik ere. Eman zekio sentenzia fabore, ta etsaia joan ze iges asarre pleitua galdurik. Dago bada an gure esus gloriako Errege, ta gure Salbazale, duena abasto podore, ta abasto amore, salbatzeko gu. Baña ez solamente dago an, baita ere lurrean emen: an glorioso ikusgarri; emen amoroso miragarri: An egotemodu natural agerrian: emen altxaturik egotemodu sobrenatural milagroskoan: an gloriastatzen bienabenturatuak zori onekoak; emen graziaztatzen, erregalatzen ta erremediatzen arima pobrettoak desterratuak negarresko balle gontan. An ta emen beti ongi egiten, ta salbatzen, bere izenak dion bekala. Eztuenak maite Jesus, eztaki nor den: Da ez solamente esker-gaitza bere ongiegille obenaren kontra, baita-



re zenzu gabe itsua bere buruaren kontra. Ongi dio S. Pablok Korintotarreri eskribitzen dioten lenbiziko kartaren akabanza baitio, *barin bada nior* amatzen ez tuenik Jesu Kristo, *biz exkomekatua, madarikatua*. Amen.

Pentekostes, ta Espiritu Sanduaren bazkoa

76. Berrogei ta amar egunen buruan, erresuzitatuas geros Jesu Kristo, biali ziote Zerutik Espiritu Sandua, ofrezitu bekala. Zeude guziak bildurik leku batean, afaltegi zori oneko gartan; eta agitu ze bat batean Zerutik arroitut andi bat, al ze erru eldu zen baten gisara; eta agertu zire an susko mi batzuk bekala errepertiturik, ta joan zire baratus bakotxa bakotxaren gañean: ta bete zire guziak Espiritu Sanduas, ta asi zire mintzatzen mintzo diferenteetan, nola mintzarazten zituen Espiritu Sanduak... Ala mostratu ze orduan Espiritu Sandua, adiarazteko grazia obratzen zuena aien barnean. Mian adiarazten da mintzaera, mintzatzeko mundu guziaren alzinean bear zen lengua jean edo itzkuntzan. Suan adiarazten da birtute obratu zuena arimaetan Jangoikoaren Espirituak suaren ariora. Bortz propietade ditu prinzipalak, gañarakes landara, suak: *argitzea, garbitzea, erretzea, edertzea, sutzea, edo berotzea*. Lenik *argitu ziote* entendamentua Zeruko jakinde bear zen guziareki: Gero *garbitu* arima bekatuen mantxae-taik, ta grazian ere konfirmatu. Gero *edertu* gañarako grazies ta birtutees: Gero *erre* Jangoikoaren amorean amorostus Jangoikoas biotzak. Gero *sutu*, edo *berotu zitue* ainberzeko ausardia, koraje, ta balentiareki, ez gaizkirik egiteko, baizik sufritzeko edozein, naiz eriotzea ere gogotik: eta ala lentxago zeudenak, atariak ertxirik, ta bildurik guziak Judioen beldurrez, Ama Birjinaren konpañian, ala nola txitak miruaren beldurrez olloaren egalpean, bereala atrarik karrikara, nioren beldurrik gabe ia, boza goratus ausarki asi zire predikatzen bildu ziren jendeek; prinzipalki S. Pedro erranes, nola il zuten Jesu Kristo malamente; nola utzi zen iltzera guziengatik guzien Salbazale bekala; nola biztu zen Were birtute propios; nola bear zuten egin penitencia ta bataiatu Jesusen bataioas: eta on asko mintzo generotan, maneraz, ezi arriturik jendeak asi zire pensatzen, ote zeuden beroturik ardos. Baña S. Pedrok ederki eman ziote satisfakzio, nolako ardoa zen, ardo zerukoa, Jangoikoaren ardoa, amoreta, Espiritu Sanduak erregalatu ziotena abastoki. Zer ze ikustea S. Pedro, lenago ikar ikar egon zena, orduan guzien erdian karrikan txutirik, burua ta boza goraturik, sua zeriola, klamatzen Jesu Kristo guruzifikatuaren laudarioak, ta Judioen gaizki egiña ta ignoranzia guruzifikarazteas? Zer ze ikustea, nola beraren erranera humildurik galdegiten dioten, ia zer in bear duten? Zer ze ikustea S. Pedro erraten oius, in dezatela penitencia, ta bataia daitzela Jesusen izenean, logratzekos barkamentua? Zer ze ikustea egun gartan konberti-



turik irur milla, andik borts egun borts milla? Eta ori Jerusalem berean, Kristo guruzifikatu zuten leku berean? Eta andik denbora gutiren barnean ia munduaren geienean barraturik Kristoren fedea ta errelijionea pobre gaien medios! Eta munduko jakintsuak, poderosoak, ta asko bizios beteak konbentiturik, konfunditurik, ta gero ere konbertiturik pobre humil on gaien medios! Nork eztakusa Espiritu Sanduaren birtutea ontan? Nork eztakusa Jangoikoaren eskua dabilala emen? Jesu Kristok bada, Jangoiko ta gizon egiaskoak plantatu zue ere Eliza, baita bere familia ta saldoa munduan: berak azi zue bere familia gau orduan, ta azitzen du beti bere Espiritu Sanduaren asistentiareki. Orduan orduko utzi zue Artzai-buru S. Pedro, ta S. Pedoren ondorengoak Aita Sandu Romakoak arren ondoreko giltza gaien potestade berareki. Berze Apostoluen ta Diszipulo gaien ondorengoak dire Obispoak, Apez-Aitak, eta Sazerdoteak, nor bere gradoan: Kristio gaien ondorengoak Kristio oraikoak, lenekoak, ta gerokoak: Guzien buru prinzipala orduan, orai, ta beti Jesu Kristo gizon dibino gura. Ura da arri prinzipala ta zimendua, zeñen gañean berak fundatu, ta berak guardatu, ta gobernatzen duen bere Eliza; eta infernue-tako potestade guziek eztute indarrrik aski, Elizaren, ta Kristiandadearen galtzeko adiña... Eta naiz aldarte al daien asko trabaju ta persekuzio, ta gora-bera Elizan, ala nola tenpestadeak ta nastekazioak itsasoan orduan bekala iduri baizue ia ia ondatzera zoeiela S. Pedoren barkoa; naiz doaien Kristiandadea gaixtatus, gutitus, ta faltatus ere an emenka, eztu Jesu Kristok utziko falta daien mundutik, mundua mundu den bitarteo: ezaundukotu, ta guardatukotu bere ardiak, nonnai dauden, beretako, eta eztitu niork ere kenduko beraren eskutik. Kentzen dena ta apartatzen bere borondatez, bere kontra ari da: mantenitzen dena firme uniturik Jesus onari, ditzosoa da, salbo da, datorrena datorrela.

Segitzen da Ama Birjinaren bizitza

77. Jesu Kristo iganas geros Zerura, beraren Ama Birjina gelditu ze lurrean Apostoluen ta Elizaren konsolu, Maestra, kidari, anparo, ta propioki Ama: zeren ezi Jesus onak iltzerakoan errana gurutzetik S. Juani, *ona zure Ama*, Kristiogende guziak beretako ere entendatu zue: eta errealki Maria Santisimak beti ere bai, baña espezialki prinzipio gaitan Amaren ofizioak egin zitue azitzean Kristiandade jaio berria. Nolako bizimodua pasatu zuen, nola joan zen iganes birtutez birtute, ta noraño, nolako faboreak egin zition S. Pedrori, S. Juani, berze Apostoluei, ta Kristio lenbiziko gaiei, ezta mirik explika dezakenik. Eta nork, naiz Serafinetaik, dezake konprehendi persona garren ona, sanda, perfekta admirablea? Eta orreki bateo humiltasun gura ain apal sendo egiaskoa, ezi kontatzen baize lurreko autsa bekala, eta kostunbratzen zue lurrean auspeska paraturik adoratzea Jangoikoaren Majestadea humilkiro, eta iago dena, belauriko mintzatzea S. Pedrori, S. Juani, ta berze lenbiziko Sazerdote gaiei eskatus aien bedeizioa beti ta noiz agitzen zen presente aurkitzea. Eta naiz aiek nai ez luketen alako erreberenzia alako personaganik, baña garaitzen zitue guziak humiltasunean. Baña bateo Jangoikoak mostratzen zue agerrira ere arima garren santidadearen erresplandore zerbait de manera, ezi etzekio-due beiratu ere admirazio ta erreberenzia andia gabe, de manera ezi persona gartan obeki ezi Serafin ta Kerubinetan ze ageri Jangoiko andiaren podorea, kriatu baizue ta formatu kriatura bat ain admirablea, eta ikusten zutenak baratzen zire arriturik laudatzen ta bedeikatzen Jangoikoa ta esu Kristo. Eta urrundani joaten zire Kristio berriak, espezialki Sazerdoteak, ikustera Jaunaren sagrario bizi gura: Guzien erlean joan ze S. Dionisio Areopajita gizon jakintsu andi gura bein, eta lenbiziko beiratzean baratu ze ain admiraturik ta arriturik pasmoaren utses, ezi erran zue gero pensatuko zuela ote zen Jangoiko Maria Santisima, ezpalio erakusten fedea, eztela baizik Jangoiko bat bakarra. Jangoiko ezta Maria Santisima, baña Jangoikoas geros da pensa daiken ta eztaiken obena, sanda eder exzelen-teena Aingiruen ta guzien gañetik, dibina propioki, Jangoikoari iduritua, eta anitz partizipatzen duena Jangoikoaren onas, ta daiken diña kriatura batean. Jangoiko aunak bere karidade geiegiagatik, zeñeki onetsi ginduzan, biali zue bere Seme bakarra, berareki dena Jangoiko bat, gizon eginik erreskatatzera gizonok bere pasio ta eriotzearen medios, nola kunplitu baizue osoki: eta bere gloriara itzuli zelarik ondorean, karidade beragatik



utzi zue emen Ama Santisima, segitzeko, ta prosegitzeko gizonen erreskatea ta salbazioa, nola kunplitu baizue ederki... Ortako eman zio podore bear den guzia, ta amore amarena: eta *dudarik gabe aurkituko du bizitza, ta logratuko du salbazioa aurkitzen duenak Maria, Qui me invenerit, inveniet vitam* & Ta zer iago daike erran? Daike erran, ezi Jangoiko onak paratu duela Maria, zebo bat gozoa bekala, tiratzeko arimak beregana, eta eznaiez galdu nior, posible balitz, utzi duela Ama on gau, guzia dena piedadearen esnea, onengana akudi dezaten bekatariek, nola Amagana hume desobedienteek, trebe eztirenek Jangoikoai presentatzera zuzenean; eta ala Jangoiko onak salba ez lezazkenak bere justizias, salba dezkie Ama onaren piedades ta miserikordias. Eta ala deus eztio ukatzen eskatzen dionik, eta Amagatik egiten du anitz grazia egin ez lezazkenak ezperen: eta iago ere dio S. Bernardok, *Jangoikoak gauza onik batere eztuela nai izan dezagun pasatzen eztenik Maria Santisimaren eskuetaik*, de manera ezi Jangoikoaren etxean bere Majestadea da Nagusi, ta Maria Santisima Etxokandre; Jangoikoa on guzien Jaun ta Jabe, Maria Santisima Jangoikoaren limosnera: Jangoikoa iturri abundantea, ta Maria Santisima iturri gonon Kañu ta kanalea. Orgatik da Sanduen opinione komuna, ezi Maria Santisimaren debozio biotzeko egiaskoa dela predestinazioaren señaile on bat, ta zerurakoen marka. Bobo eztenak kuidatuko du izateas deboto Maria Santisimaren.

78. Senti duena bere biotzean debozio, pasione, afizione, edo amore Birjina Santisimagana, plazer egin naiez, konsola bedi esperanza onareki ellegatuko dela ikustera bere glorian emengo faboreen gañetik. Baziote orduan Kristio berri gaiek, espezialki Apostoluek, ta berexki S. Juanek eta S. Pedrok. Eta akabatzeko galdus judas traidorea, izan zela kausa oposizio artu ziona madarikatu garrek, dio Agredako Benerableak (p. 2. l. 6. n. 1088.) Ez ala S. Pedrok, naiz ukatu zuen bere Jauna gau triste gartan, logratu zue barkazioa Ama Santisimaren medios... Kontatzen du Serore Benerable garrek, ezi pasaturik ortzilar sanduaren gaua negarrez Ama dibinak larunbate sandu goizean ordenatu ziola S. Juani, atra zeila bidera S. Pedrori eldu zenai arren billa. Atra ze, ta bereala aurkitu zue Pedro eldu zela negarti alke gorriturik, ta beldurrak presentatzeko Maria Santisimaren alzinean. Konsolatu zue S. Juanek Ama dibinaren manamendua-reki. Bereala biek billatu zuzte berze Apostoluak, eta aurkitu zuzteneki presentatu zire, eta S. Pedro lenean bakarrik, eta urtikirik lurrean belauriko erran zio pena andiareki, o Señora, bekatu egin dut Jangoikoaren alzinean, ofenditu dut ene Maestru Jauna, ta berori Ama Santisima. Ezin atra zue iago itzik negar ta kongoja, ta suspiroen kasos. Andre dibinak beiratus alde bat S. Pedro Elizaren buru, berze alde eroria lentxago kulpan,

orgatik etzekio iduri zela konbeni bera belaurikatzea Pedrori estado gartan, berze alde etzio ukatu nai erreberenzia zor zekiona bere ofiziogatik: eta ala belaurikatu ze disimulatuki erraten ziola, eska zogun zure kulparen barkamentua ene Seme Jaunari, ta zure Maestru Jaunari. Animatu ta konsolatu zue; eta oroat egin zue gañarakoeki. (ib. n. 1458.) Ama Santisimak berak consejatzzen zio humilki egin bear zuena Kristiandadearen gobernuan: Beraren consejus eskojitu zute Judasen lekuan amabigarren Apostolua, zein fortunatu baize sortez S. Matias. Beraren consejus S. Pedrok Espiritu Sanduaren bazkoaren oktaban zelebratu zue lenbiziko meza, Pater ortako Ama Santisimak sala, plater ta kaliza, ogi ta ardo, ta gañarako bear zirenak: ta Apostoluen Prinzipeak komekatu zue bere burua, gero Apostoluak, gero Maria Santisima, gero gañarakoak. Nork erranen digu, zein ongi komekatu zen Ama Santisima? Eta zein gustoso sartu zen Jaun Sakramentatua biotz gortan bere etxe propioan bekala? Uste dut ain kontent zegola an, nola zeruko glorian ango sanduen konpañian. Beraren conseju, amore, ta anparo espezialareki S. Esteban agitz maite zuena enpleatzen ze predikatzen ta defendatzen fede kristioa koraje, xakintasun, ta grazia andiareki, ezaiziokete erresisti Eskriba, Fariseo, ta gañarako ango letradunek, eta azkenik firmatu zue martirio gloriosoareki guzien lenean, orgatik deitzen baita Proto Martir, nai baitu erran Martir lenbizikoa. Beraren conseju ta asistenziareki Apostoluek, nola bear baizire barratu mundua barna, joan baño len, guziek bildurik Espiritu Sanduareki formatu ta konpondu zute Kredoa, au da egietafede prinzipalenen bilgura edo suma, joateko guziak konforme ez solamente fedearen sustanzian, baitare itz, eta forman ere: eta bialarazi zue infinizio bat exenplare anitz lekuetara, non bear ziren. Beraren consejus eta orazios egin ze munduaren errepartmentua, ebanjelioaren predikatzeko jende guzieri, destinatus Apostoluak Jangoikoaren ordes nork nora joan bear zuen. Nork explika in zitioten faboreak joan baño len Ama Santisimak? eta despeida, ta bedeizioa, ta errelikia, eta oroigarri eman zitiotenak? Nork joan ondolan ere leku diferente urrutietan faboratu zituen anitz manera milagrosos? Inposible da erabakitzea, nola ta zenbat faboratu zuen Kristiandadea prinzipioetan; nola ta zenbat gero, ta orai, ta beti, ta kontino, Ama onak bekala; zeñen atenzios ezipalitz, ia ezlitzake mundurik ere...



Españara etorria. *Agredensis*

79. Santiago andiena, deitzen ere baita Jakobo, S. Juanen anaia, etorri ze Españara eraikitza ebanjelioaren azia, errelijione kristoa: Onarako enbarkatu ze Agustuan, urte bat ta borz ilabete, Kristo ilas geros, Kristoren ogeita amaborzgarren urtean: zorzi ilabete S. Estebanen martirioas geros; eta borz Sauloren konbersioa baño len. (Agred. p. 3. 1. 7. c. 16. n. 319.) Peregrinatu omen zue Españaren geien, asi Kartajenatik, Granada, Andaluzia, Toledo, Portugal, Galizia, Rioja, Logroño, Tudela, Zaragoza-barna. Arren alde ze Maria Santisima, ta agitz maite zuena: bere trabaju ta peligro andien eratean Españako misionean agertu omen zekio bi aldiz Ama dulzisima oraño bizi zelaik, ekarririk Aingiruen eskus; *lenik* Granadan, zeukatelaiak Sandua ia ia degollatzeko kanpoan. Mintzatu zio amorosa, konsolatu, animatu, ta libratu zue, botarik berdugoak lurrean ilak bekala: eta eman zitio bere eun Aingiru guardiako, kida zezaten, ta defendatu Españaren gañarakoan. *Bigarrenik* Zaragozan gau batez Kristoren *berrogeigarren urtean*, *Izotzillaren bigarrenen*, pasaturik laur urte, laur ilabete, ta amar egun, atras geros Sandua Jerusalendik onat Agustua *oagegarrenean*: eta aparizio gonon ondorean fabrikatzen tenploa, predikatzen, ta itzultzen Jerusalem pasatu zitue urte bat, bi ilabete, ta ogeita irur egun: eta iltze Martxoaren 25.an; 41.en urtean Jerusalem. Etorri ze bada Jesu Kristoren manamenduz Ama dibina argisko trono batean Aingiruen eskuetan, ta zegolaik Santiago Ebroaren aldean orazioan bere Diszipulo batzueki: sentitu zute urrunera musika zeruko bat bete zituen konsolazioz ta admirazioz. Ikusi zute airean argitasun andi bat iago ezi eguerdia balitz. Aingiruek zekarrate, batzuek kolumna edo pilare jazpe-arri, edo marmolesko bat; ta berze materialeko imajina bat ez andia, Ama Birjinarena zekarrate berze Aingiru batzuek. Santiagori manifestatu zekio bere personan Maria Santisima, ta eman zio bere bedeizioa erraten ziola, Jakobo, Jaun gorenaren sierboa, bedeika zaizala bere eskuieko eskuas, berak salba zaizala, ta mostra dezazula bere aurpegiaren alegrea. Aingiruek errespondatu zute, amen. Segitu zue Ama Santisimak ziola, ene humea Jakobo, leku gau señalatu ta destinatu du Jangoiko guzis poderosoak, konsagra dezozun emen orazioaren etxe ta tenplo bat, zeintan ene izenaren tituloareki nai du berarena izan daien honratua, erauntsitzeko bere miserikordiak fielei, ene interzesioaren medios logra dezkiten, eskatzen badute fede ta debozio egiaskoareki. Nik beraren nonbrean ofrezitzen-

tietot fabore andiak, ta nere anparoa egiaz, ezi au bear da izan ene etxea ta tenploa, ene herentzia ta posesio propioa. Eta promesa gonon testimoniota geldituko da emen kolumna gau ta ene imajina gau. Asi zaite obratzen berladanik, ta in ondoan joanen zara Jerusalem, ofratzera zeure bizia sakrifizioan, non nere Seme Sanduak eman zuen berea gizonen erredenzionetako. Bereala paratu zute an kolumna Aingiruek, ta gañean imajina sagratua, eta Aingiruek berek eta Cduak adoratu zute an Jangoikoa ta bere Ama Santisima. Sanduak eskatu zio, graziak emanez, anpara zezan Españako erreinua. Ofrezitu zue Maria Santisimak; eta bereala itzuli zute Aingiruek Jerusalem. *ibid.* n. 354. Ondorean Apostoluak bere laguneki fabrikatu zio kapilla txiki bat al zuken gisan: gero katolikoek fabrikatu ziote an tenplo andi gura Jangoikoaren ta Amaren gloriatan. Aparezitu zelaik zitue adinaren *54 urte, 3 ilabete, ta 24 egun*: ta bizitu ze gero ere zenbait urte munduan, nola erranen den gero... Apostolu berari il zutelaiak Jerusalem asistitu zio bere martirioan presente Ama Santisimak ekarririk oroat milagrosoki Efesotik Aingiruen eskus, eta arturik bere eskuetan arima Sanduarena presentatu zio Jangoikoai, Apostoluen primizia bekala, zeren ezi gure Patrono andi gau izan ze Apostolu guzien lena iltzena Martir fedegatik. (*ib.* P. 3. 1. 8. c. 2. n. 400.) Eta beraren gorputza Jangoikoaren probidenzias, ta Maria Santisimaren dilijenziak ekarri zute arren Diszipuloelek itsasos Galiziar, maneraz ezi tesoro gau ere zor diogu Españolek Maria Santisimari. Martirioa agitu ze *zazpi urte beterik Jesu Kristo ilas geros; ta borz urte ta zazpi ilabete Jerusalemklik Sandua atras geros Españarako.* (*ib.* n. 401.) Martxoaren azkenerat izan zela agenda Act 12. bazkoaren inguruan: baña zebratzen da garilaren 25.an, noiz aldatu zen gorputza Españan.

80. Efesotik, non eon zen bi urte ta erdi Maria Santisima, itzuli ze S. Pedroren petizios Jerusalem, non lenbiziko Konzilioan Ama Santisimaren orazioz asistitus Espiritu Sanduak, determinatu ze aski zela salbaziorako Kristoren fedea, bataioa, ta errelijionea; eta etzela ia bear lenagoko Zirkunzasioaren ta Moisesen legearen guardatzea. Inposible da kontatzea, zenbat aldiz, zenbat modus ta maneras faboratzen zituen Apostolu ta Diszipulo sanduak, ala ausente, nola presente zeudenak, baitare gañarako Kristoak, zeñek probatzen zute beren konsolu, anparo, ta bear zuten on guzia zutela Maria Santisima, proprioki beren Ama dibina, guzis poderosa ta amorosa... Zenbat gaitz eta peligro arimaren ta gorputzarenetaik libratzen zitue? Nolako amoreta ta benerezioa dote, ta arrazio andiareki? Jangoiko andiak nola zue maite, ta estimatzen, ta kuidatzen zue bere eskujitu bakar prezioso gura? Eman zio esku guzia, egiteko ta desegiteko Jan-



goikoaren erreinuan nola zuen plazer. Bada Aingiruak zein obediente zegozkio? Infernukoek berriz nolako oposizioa ziote, nolako beldurra? iago ezi Zeruko Aingiru ta Sandu guziei Jangoikoas landara. Erran daike, ezi Jesu Kristo presente ezin ikustearen pena konsolatzen zutela lenbiziko Kristio gaiek ta erremediatzen ikustearaki beraren Ama Santisima. Beraren abisus ta konsejus disponitu ze eskribi zezaten Jesu Kristoren Ebanjelioa laur Ebanjelariak S. Mateok, S. Markosek, S. Lukasek, ta S. Juanek, batak berzearen atzetik. S. Mateok Ama dibinaren asistentziareki eskribitzen asi omen zue, ta gero bukatu Judean Hebreoen itzkuntzan Kristoren 42.en urtean... S. Markosek oroat Hebreoan 46 urtean Palestinan, eta gero latinera itzuli omen zue Roman... S. Lukasek andik bi urte geroago itzkuntza griegoan... S. Juanek azkenik eskribitu zue griegoan Kristoren 58 urtean, zerura igan ondoan bere Ama Santisima, baña andik jautsirik Erregina soberana bisitatzera bere seme gura. Prinzipalki S. Pedros, Elizako Artzai-buruas bekala, kuidatzen zue agitz Ama Santisimak, bialis kartak eta Aingiruak beraren gana, baitare aparezitus personan bere Majestadea askotan bizi zelarik munduan: eta beti paratzen zekiola belauriko Sanduari; ta eskatzen bere bedeizioa.

81. Mundu guziaren onerako bizi ze Maria Santisima lurrean bizitza bat Zerukoa Jangoikoaren gustora guzis: mundua ze beraren bear agitz: baña Zeruak ere, naiz aldarte ikusten zuen an iganik Jangoikoaren amorez erregalatzeko bere maiteena, nai zue iduki an egotez errepausatzen ta erreinatzen guzien Erregina bekala. Irur urte despeida baño len izan zue abisu Zerutik, nola bear zen igan arara. Zego bere erretiroan auspeska besoak edaturik gurutzearen forman orazio egiten bekatariengatik: Sartu ze Zeruko enbajadorea S. Gabriel akonpañaturik berze asko Aingirueki: goratu ze belauriko Erregina soberana aditzeko enbajada. Eginik diosalea Abe Marias, erran zio, Jangoiko Jaunak biali gaitu erratera, nola urbil dagon berorren despeida desterru gontaik bizitza eternora, non goza daien bere Seme Jaunaren eskuieko aldean. Emendik irur urte txusto txustoa izanen da... Aditu zue berri on gau aleganzia ta esker milla millaeki, eta auspeskatus lurrean erran zue nola len, ona Jaunaren esklab: egin bedi nereki zuk erran bekala. Istante gartaik berriro segitu zue prestatzen biderako, Jang oikoaren amoresko akto ta obra anitz ta andieki. Bereala eskribitu zue Apostolu ta Diszipulo zebiltzanei mundua barna animatus trabajatzera konbertitzen arimak Jangoikoagana... S. Juan Ebanjelariak bere konpañian bizi zenai seme bekala, Jesu Kristok enkargatua guruzetik, komunikatu zio berri gau. Nola, aditzeas ere, lastimatu zekion biotza, gogoratzeas gelditu bear zela emazurtz desanparatua alako Ama-

ren konpañia gabe, nork explika? Errespondatu zio, ene Ama ona, Jan-goikoaren ta berorren borondatera errenditurik nago ni: baña nola biziko naiz ori gabe? Anpara bez bere hume pobre gau... Etzuke atra itzik iago, itorik kongojas ta negargaleas. Konsolatzen ta animatzen zue Ama dulzismak bere kariño ta arrazio oneki: baña alaere ordu gartaik Apostolu sandua beti bizitu ze penaturik biotza sentimenturaz. Baña ez solamente S. Juan, baitare mundua bera asi ze sentitzen bekala, ta prebenitzen lutoa. Apostoluak, naiz andik urrun ta elkarrenganik, asi zire paratzen kuidadotan errezelatus faltatuko zekiota beren Ama on gura nai baño lenago... Berze fielek Jerusalemen ta inguruan bizi zirenek usmatzen zute, nola etzekitela, beren ondasun ta konsolua etzela izanen luzaro... Zeruko izar ta planetak ere asi zire turbiotzen bekala, etzutela ia argitzen ainberze nola len. Txoriak ta egasteak joaten zire Ama Santisimaren etxera bandaka, ta an espezialki azken bi urtetan bolada ta kantu tristeeki adiarazten zute beren pena. Onen testigo izan ze askotan S. Juan akonpañatzen zituen lamentazioan. Eta ia egun guti falta zirelaik biziaren, egin zute asko demostrazio lastimagarri. Sei ilabete azkenetan iruzkia ikusten ze turbio-turik; ta iltzen egunean eklipsatu ta ilundu ze, nola Kristoren iltzerakoan. Jendeek goart eman zute, baña ez entendatu kausa... Sollik S. Juanek bai, baizekie, ta ezin altxa biotzeko pena, aurpegian ta begietan agertzen zena... Erran ere ziote bere debotoei; eta niork ere aditu zutenetaik etzuke disimulatu pena, in gabe negar... Konsolatzen zitue guziak Ama amantismak egines ta ofrezitus anitz fabore ta miserikordia... Azkenerat despeidako bekala bisitatu zitue pasioaren leku sanduak, berritus bere seme dibinoaren amoresko exzesoen memoria. Kalbarioko oianean baratu ze denbora iagos; eta arara jautsi ze bere Jesus ona Zerutik, ta ofrezitu zio eskatzen ziona, bere pasio ta odol preziosoagatik, emanen ziotela gizonei asko auxilio, erdexteko gloria irabazi zuena berak aiendako, nai bazute. Eta añaditu zio, Zeruan berori izanen da aien Abogada, ta berori estimatzen dutenak betekotut ere tesoro ta miserikordia infinitoetaik... Eman zio anitz grazia Ama Santisimak, eta an eskatu zio azken bedeizioa. Eman zio bere Majestadeak; ta Zerura itzulirik bera, Ama, apatus lur sandu gura, itzuli ze bere retirora Jerusalem. Ordenatu zue gero bere testamentua, ez lurreko ondasunena, ezpaizue ebetaik, baizik zerukoena utzis guziak Elizaren faboretan, baita bere biotzekoa.



Maria Santisimaren iltzea... Agredensis

82. Deseatzen zue Ama amantisimak ikustea presente bere despei-dan Apostolu sanduak agitz urrun zebiltzanak plantatzen fede kristioa. Agindu zio Jaun dibinoak: eta ala irur egun lenago aurkitu zire guziak Jerusalem, batzuk etorririk Jangoikoaren inspirazio, berze batzuk ekarri-rik Aingiruen eskus. Estimatu zue agitz Ama dibinak. S. Pedrori lenik ellegatu zenari atra zekio errezibitzera bere ganbarako atarian: belauriko paraturik arren oñetan eskatu zio bedeizioa erraten zuela, esker milla diot Jangoikoai, ekarri baitida ene Aita Sandua, asisti dezadan ene eriotzeko orduan. Gero joan zire allegatus S. Pablo, ta gañarakoak. Etzekite guziek zertara eldu ziren: S. Pedrok erran ziote, Jangoikoak ekarri gaitu kausa andiagatik guziok, ezi nai du eraman bere gloriara bere Ama Santisima, zena gure anparo guzia: eta nai du asisti dezogun presente. Iltzelaik gure Maestru Jauna Jesus, gelditu zekigu konsolutako bere Ama Santisima: baña orai onek uzten gaituelaik, zer inen dugu? Zer anparo, edo zer espe-ranza dugu? Eztut berzerik aurkitzen, baizik segituko dugula guziek den-borareki... Ezin erran zue iago aflikzioaren utses: eta berak negar, guziek negar, ala egon zire denbora zati batez. Azkenean erran zue S. Pedrok, ene humeak, goazen gure Ama Santisimaren presenziara; akonpañña zugun bizi den bitartean, ta eska zogun bere bedeizioa. Joan zire, ta aurkitu zute Andre dibina belauriko bere tarima zuen batean, erreklinatzeko, bear zelaik deskansatu gutiren bat. Ikusi zute inguraturik argitasunes, ta Ain-rues. Gorputz ta aurpegi birjinalaren disposizioa adin gartan ze nolakoa zuen ogeitamirur urtetan, ezpaize aldatu gerostik batere, ez zartu, ez zar-baildu, ez flakatu, ez zimurtu, berzeak bekala adinareki, zituelaik ia iruogei-tamar urte. Au izan ze Ama Birjinaren pribilejioa berex zegokiona Jangoi-koaren sagrario izanai, Birjin garbi, ta bekatu guzietatik libre zenai. Paratu zire guziak erkadan presente; S. Pedro ta S. Juan bi aldetaik tarimaren bururdikoan. Andre soberanak beiratu ziote guziei modesta, humil, rebe-rente; ta erran zue, ene biotzeko humeak, eman bezote lizenzia beren eskalaba goni, mintzatzeko, eta manifestatzeko nere deseoa. Errespon-da-tu zio S. Pedrok, adituko zutela guziek atenzioreki, ta obedituko mana dezan guzian: baña ortako jarri zeila. Iduri zekio S. Pedrori, bide zegola nekaturik belauriko egones orazioan; ta aiei mintzatzeko, etzela konbeni ala egotea guzien erregina. Baña niork beñere etzue garaitu humiltasu-nean: ala errespondatu zue obedituko zuela eskatu ondoan guziei bedei-

zioa, ta utzi zezotela konsolu gau. Bereala paratu ze belauriko S. Pedro-ren oñetan erraten ziola, *Jauna, Eliza guziaren Artzai-buru bekala, eskatzen diot, eman dezadan bere bedeizio sandua, ta barka dezadan nik guti zerbitzatua; ta nai badu eman lizenzia emateko Juanek ene bi tunika bi donzellattoei beti ongi in didatenei*. Erran ta apatu zitio oñak, zegolarik sandua arriurik eta nega-rres... Bereala S. Juani, *ene humea, barka bezada, ezpadut egin orreki Amaren ofizioa bear bekala, ta manatu zidan bekala gurutzetik ene Seme dibinoak. Nik ematen diot esker milla, zeren beti asistitu didan hume onak bekala. Jangoikoak paga dezola, ta eman bezada berorrek niri bedeizioa, joateko Zerura*. Ala segitu zue mintzatus belauriko bat banaka Apostoluei, gero an ziren guziei despei-datako. Gero txutiturik erran zue, ene hume maiteak, ta ene Jaunak, beti idukitut neure ariman, ta eskribiturik biotzean onetsis, ene Jesus onak era-kutsi zidan karidadeareki. Beraren borondatez noaie Zerura, nondik bei-ratuko diotet Ama bekala. Enkomendatzan diotet Eliza Sanda, ta ene Jesu Kristoren legea, ta beraren pasio, eriotze, ta amoreko exzesoen memo-ria. Ama bezate Eliza, ta ama beitez elkar Jangoikoaren amorez. Eta bero-ri, Pedro, enkomendatzan diot uan ene seme gau, eta guziok... An gora-tu ze lamentua guzietan, guziak urtiki lurrean, ta guziak negar: negar egin zue Ama Santisimak ere. Denboraren buruan eskatu zue para zeizela ora-zioan berareki, ta beragatik. Artan daudelaik, jautsi omen ze bere Seme Jauna Jesus, eta utzi omen zio autara zein nai zuen, edo igan berareki Zerura il gabe, edo pasatus eriotzearen pausua: eta autaturik iltzea, imita-tzeagatik Jaun dibinoa, erreklinatu ze bere tariman, eta Aingiruen musika gozoaren erdian Jesus onaren besotan ziola, orren eskuetan, Jauna, entre-gatzen dut ene arima, ertxi begiak, ta iltze... Ilarazi zuen gaitza izan ze amorea, zenen suak etzezan akaba lenago ere, konserbatzen zue milagro-soki Jangoikoak, ta orduan utzi zue in zezan bere efektoa. Bereala Jaun dibinoak bere eskuetan eraman zue arima eder gura gloriara ango akon-pañamentu gloriosoareki, senti zela musika Zerukoa geroago ta gutiago, iganes bekala...

83. Gorputz birjinala gelditu ze inguraturik erresplandorees, errespi-ratzen zuela fraganzia bat miragarria, ta kausatzen admirazio, konsolu, ta erreberenzia... Agitu ze iltze gau Agustuaeren amirugarrenean, zituelaik adi-naren *iruoge ta amar urte txoil ez*, baizik ogeita sei egun gutiago doazinak egun gortatik Urriaren zorzigarrenean, baize bere jaiteguna. Bere Seme Jaun Jesu Kristo ilas geros, bizitu zituenak izan zire *oge ta bat urte, laur ilabete, ta emeretzi egun*. Iruzkia egun gartan eklipsatu ze, ta lutoaren señaletan altxatu zue bere argia zenbait ordus. Jerusalem guzia mogitu ze admiraturik, batzuk konfesatus Jangoikoaren podorea, berze batzuk lotsarritus agitzen zenas.



Apostoluak, Diszipuloak, ta berze fielak desegiten zire penas eta negarres. Heri akuditu zuten guziak sendatu zire, ta libratu purgatoriokoak. Irur iltzirenak denbora berean Jangoikoaren desgrazian ta kondenatu bear zirenak, itzuli zire bizitzara Maria Santisimaren medios, ta gero emendaturik salbatu zire. Tratatu zute Apostoluek depositatzeas gorputz birjinala obia berri batean: nai zute balsamatu berzeenak bekala: Etzue permititu Jangoikoak alakorik: Eta ala zegon bekala paraturik S. Pedrok ta S. Juanek anda batean sentitu gabe pixurik, zeren Aingiruek lagundu zuten: eraman zute obiarat akonpañatus infinizio bat jendeketak lurretik, ta Zerutik infinizio bat Aingiruek segitus musikaren armonia admiragarria, aditzen zutena Apostoluek, ta berze asko fielek, ta iraundu zuena irur egunes, agitus bateo infinizio bat milagro, ala arimen, nola gorputzen onetan... Eta gauza prodijioso ebeki zeude guziak admiraturik klamatzen Jangoikoaren podorea ta amorea bere onetsiareki. Ellegaturik Josafatko zelaiera, non baizego obia, an depositatu zute, ta ertxi zute ar-lauza andi bateki. Jendea joan ze itzulis beren etxeetara, ta Apostoluak beren erretiro gartara ezin konsolatus lanze gartan... Iltzen etxean urte batez iraundu zue atxon gozo garrek, ta bere Oratorioan anitz urtez: eta etxe gura izan ze ala nola errefujio ta erremedio bear guzien; ta iraunen zue, ezpalute estorbatu bekaturek ta gaix-takeriek. Destinatu zuzte zenbait Apostolu, asistitzeko obian, atertu artaño an aditzen zen musika Zerukoa, eta guziek akuditzen zute maiz arara. Iru-garren egunean atertu ze musika gura, ta idikirik obia, etzute aurkitu gorputza, baizik tunika ta oialak, zeñeki egon zen estalirik: Entendatu zute klaro, bere Seme Jaun Jesu Kristok biztu zuela, ta eraman gorputz ta ari-man gloriara bere Ama Santisima. Ala sinesten du piadosoki Elizak, ta ala ze arrazio konserba zezan Jangoikoak sagrario obena... Nork erran errezi-bimentu ta akonpañamentu in ziotena zerukoek? Nork entenda, nola bete zuen glorias Jangoiko andiak bere maite bakarra guzien gañetik? Korona-tuzue Trintate Jaun poderosoak Maria Santisima bere koronas, izateko erregina ta enperadora Jangoikoaren inperio ta erreinu guzian: mana dezan, egin ta desegin, nola duen plazer Zeruetan, airean, lurrean, infer-nuan, ta unibersoan mugarik ta neurririk gabe... Jangoiko beraren mana-menduz proklamatu ta adoratu zute orduan, ta adoratzen dute beti Zeruan direnek: Eta lurretik ere bear dugu adoratu fedes ta karidades; aziko digu esperanza sano gozoa, ararako gaituela gu ere, ezi Ama da ta amantea, nai duena gure salbazioa obeki ezi geurek. Ea bada gure Abogada, itzulizkizu zeure begi miseriakordiasoko goiek guregana & Amen.

Zenbait doktrina Maria Santisimak emanak sor Maria de Jesus Agredakoari

Beldur ta amorearen

Kondizio gau dute Jangoikoaren faboreek, seguratzen baitute humillatus, ta humillatzen deskonfianzarik gabe: emateunte konfianza kuida-doreki, ta kuida-doa sosegu ta bakereki... zuk izazu beldur bere neurrian, ta amorea iago: bi egalebeki egatu lurreko guziaren gain, eta utzi beldur geiegia, zure kausa utzis Jangoikoai, ta berarena artus zeure bekala P. 1. 1. 1. n. 324.

Trabajuen gain

Lenbiziko iten duen bekatuagatik gizonak galdus Jangoikoaren grazia, galtzen du bateo kriptura guzien amistanza: eta ezpalezki detenitu Jaun berak, guziak itzuli leizke mendekatzer agrabioa & Zuk artu besarka trabajuak, ta tribulazioak, zeren merejitu zunas landara zeure kulpas, dire ari-maren adornua, ta zeure esposo dibinoaren joia preziosoak. ib. n. 357.

Aingiru guardiakoan

Lenbizikoa agradezimentua orgatik: bigarrena amore ta reberenzia leku guzietan: irugarrena atenzioa eta obediencia Aingiruen inspirazioei & n. 374.

Silenzioaren

Estima tesoro bat bekala ixiltzearen birtutea... Jardukitzea neurririk ta pizurik gabe da bi agotako kanibeta bat heritzen duena jardukizalea ta adizalea... Jangoikoareki ta Sandueki daike jarduki seguroki, ta ortan ere bear da neurri ta diskrezio. Kriatureki da txoil neke guardatzea erdia pasatu gabe geiegira. Erremedio da arrimatzea extremo kontrakora baita ixiltzea geiegi, aisago ala & n. 385.

Graziaren auxilioen

Ezaumentura datorreneko bat, itxekitzen du artan Jangoikoak argi bat kidatzen duena onera, ta apartarazten gaizkitik & Pasioneak ta Demo-



nioak iluntzen du ezaumentua, ta altxatzen gauza gustosoan benenoa... & Baña eztu orgatik berla desanparatzen Jangoikoak, bai berritzen bere deiak, ta errespondatzen bazaio lenbizikoei, añaaditzentu andiagoak, kendus indarrak kontrarioei. Kontra berriz errenditzen bada & 410.

Modestiaren

Beñere ez nua beiratu aurpegira gizonai, ezta S. Josefi ere, ezta Aingiruei ere, agertzen zirelaik gizonen idurian: baña Jangoikoan ikusi ta ezaundu nitue guziak: eta lurreko kreaturei ez nua izan afekto edo inklinazio humanorik & p. 1. 1. 2. c. 2. n. 439.

Kulpaen eta penaen

Oraiko bizitzan lotsatzentu agitz mortalak edozein penak edo tribulaziok, zeren daukaten presente sentidoari, ta ukitzentuen artan: baña ez titu aldatzen kulpak, zeren enbarazaturik ikusten denareki, ez tire pasatzen kulpai darraionera, baita infernuko pena eternoa. Eta dagolaik uniturik au bekatuareki, da ain pizu biotz humanoa, ezi uzten da orditzera kulpas, ta ez tu ukitzen penan, zeren ez tuen senti infernua sentidoas: ta zukelaik on fedeas, uzten du au alfer ta ilik, nola ez palu. O itsutasuna & n. 447.

Kastidadearen

Kastidadeak dio arima ta gorputzaren garbitasuna: da aisa galzea; neke ta imposible ere erreko bratzea & Tesoro andi gau dago depositaturik anitz atari ta leiotako kastelu batean, zein ez padire guardatzen &. Mintzatzean prezisios trata seberidade, modestia ta errekatoreki... Pensa ez tela zuretakeo kriaturarik & 457.

Gauza lebeen

Gure naturalea da floxo obratzean birtutea, ta aisa fallotzeko, zeren inklinatua da deskansura, ta errepugnatzen du trabajua. eta arimak obeditzen diolarik parte animaleai, ta esku bat ematen diolarik, artzen du berak de manera ezi zerbitzuan paratzen du & n. 475.

Fedearen

Fedearen tesoro ezin daikena aski estima dago altxaturik aragisko begiak solamente tuztenei. Beira nola zegon mundua federik gabe. Zenbat

jakintsu famatuak erori dire abominazioetan & Fedea da margarita preziosa, ta arha desposorioaren Kristoreki & Fedea erakusten du bidea bizitza sekulakora: argitzen du ilunbetan: guzietako da poderosa & nobletzen du entendamentua, kentzen dio bere billautasuna & ib. n. 501 &.

Esperanzaren

Esperanza firme goneki bazaizke prometitu Jesusen merejimentuengatik ellegatuko zarela izatera zerukoetarik bat, ikustera Jangoikoaren aurpegia: ta ala emengo guzia idurituko zaizu pizu & n. 512.

Amorearen

Ebek dire señaile ta efekto amorearen, pensatzea kontino Jangoikoan: kunplitzea bere manamenduak ta konsejuak: beldur izatea ofenditzeas: ta ofenditurik bereala kuidatzea palakatzeas: penatzea izateas ofenditua, alegratzea izateas zerbitzatua... ekarraraztea berzeak arren amorera & n. 527.

Trabajuen

Ene alaba, berritu anitz aldis zeure sekretoan estimazio in bear duzuna trabajuen faboreas Jangoikoaganik. Ebek dire juizio justifikatuak beren baitan, ta iago estimatzeko, ezi urre ta arri preziosoak, ta gozoago ezi ez tia duenarendako arrazioaren gustoa ongi konzertaturik. Adberti ezi trabajuak kulparik gabe direla benefizio zeñen digna etzaren miseriordia andia gabe: ta kulpareki du anitz parte justiziaren, naiz den miseriordia. Urrea ez pada laberatzen, burriña limatzen, grano a eultzizen, matsa ixtikatzen... & ib. n. 670. Jangoikoaren amorearen prenda &. Beira an ederki agitz.

Injurien

Mendekatzea da billautasuna: barkatzea da nobletasuna, berze alde Jesu Kristoren konforme & n. 706. Barkatzen duenaren ta mendekosoaren diferenzia da nola hume bakar herederoaren, ta etsai mortalaren. Barkatzea ta sufritzea da duadrableago Jangoikoai ezi egitea anitz penitentzia, ta odol iuxrtzea. Humildus ta onetis persegizaleak errendituko duzu Jangoikoaren biotza zure amorera, iganen zara santidadean gora, ta garaituko duzu infernua. Ni, nekielaik nor bait mogitzen zela ene kontra, ez nitze baratzen itzuli arteo ordaña logratu arren salbazioa & ib. 708.



Probidenziaren

Bota seguro Jangoikoaren probidenzian amaten baizaitu iago ezi zuk zeuroi & beira n. 722 &

Trabajuen

Errepetituko dizut jakinde andienaren lekzioa, baitago ezauntzean gurutzearen ona & 736.

Jangoikoaren juizioen

Errenditu bear dela Jangoikoaren dispoziziora, naiz ez entenda, konfatus, nola Ama Birjina ezkontzeko & n. 750.

Humiltasunaren

Etzazula errepugna egitean ta padezitzean guzia ellegatzeagatik izatera mansa ta humila biotzez. Attendi nola au izan zen zimendu firmea miragarri in zituenen eneki Jangoikoak, ta adberti & p. 2. n. 14.

Zeloaren

Ezauntzen nue nor zen Jangoikoa gizonendako, ta nor ebek Jangoikoarendako. Emen erretzen ze ene biotza amorez eta dolorez & Konsiderazio gontan ilen nitza askotan, ezpanindu konfortatu Jangoikoak & n. 35.

Karidadearen

Zure anaia batek ofendi balez grabeki zure Aita, etzinazke hume agradezitua, ta ez arreba ona, ezpazindez senti ofensa, ta penatu erordias zeureas bekala. Aitai zor erreberenzia, anaiai amorea & n. 68.

Ama Birjinaren planta gorputzarena

Ze adin gartan (14 urte terditan) gorago berzeak baño komunki, txoil ongi egin proportione ta perfekzione guziareki: aurpegia luze iago ezi borobil: baña agraziatu, ez flako ta ez gizen: kolore klaro, ta zerbaitto moreno: kopeta zabal: begiak andi ta grabe edertasun ezin explika daikenareki, ta kuadrable guzis: naturalearen donoetan ain ederra perfekta, ezi ezta izan personarik ainberze. n. 115.

Orazioaren

Quiero que deprehendas la ciencia, cuio objeto es el ser de Dios de manera que ninguna cosa criada se interponga entre tu espiritu y alma, y entre el verdadero y sumo bien. En todo tiempo, lugar, ocupacion, y operaciones le has de tener a la vista, sin soltarte de aquel intimo abrazo de tu corazon. Y para esto te advierto y mando, que le trates con magnificencia, con decoro, con reverencia y temor intimo & n. 188.

Errekatoaren

Beti zaude oroiturik atzendu gabe beñere doktrina gontas, edozein azare edo trabaju naiz agi, etzazula billa alibio, ta ez admiti dibersio kria-tura humanoeki, ta gutiago gizoneki, zeren zure naturale beratx ta inklinatuan ez ematera pena dezakezu izan peligro exzesaren, sar daien gusto sensiblea: ezi ematen bazaio soltura naturale frajilai, onek ezta atenditzen arrazioa & 189.

Graziaren, ta bekatuaren

Ezta itzik explikatzeko bardin Jaunaren partizipazio gura ta perfekzio graziarenak & ib. 229.

Humiltasunaren

Eman zida Jangoikoak ainberze ezaumentu kuadratzen zaionas humiltasuna, ezi iteagatik onen akto bat, nola garbitzea lurra, apatzea oñak pobre bati, pasa nezazke munduko tormenturik erruenak & n. 252.

Zeloaren

Bi puntutan bear da inguratu zure potenzien ta kuidoaren armoma, au da zeuroi bizitzean Jangoikoaren amistanza, ta prokuratzean datoizin ortara berzeak. Ontan & n. 259.

Sazerdoteen

Ainberze estimazio iten du Jangoikoak Sazerdoteen dignidadeas, ezi aietan aurkitzen badu dispozizio, goratzentu, ta ematen diote bere Espiritua, benera dezkiende munduak... & Eta korrespondi balezate beren dignidadeari, aien obrak bear lirazke izan Serafinenak, aien aurpegiak aingirue-nak ta bear lukete istargitu nola Moisesena & n. 300.



Banidadearen

Eta Jauna da ain zeloso arimaeki, ongi maite tueneki, ezi bereala erretiratzen da, admititzen baitute aiek jendeen laudarioak, ta pagatzen badire aien loxentxues. Eta imposible da juntatzea arima batean munduaren loxentxuak, ta Jangoikoaren erregaloak & Mystika Ciudad, p. 2. n. 302.

Tentazioen

Mortalak daude komunkiro ilundurik, atzendurik bere bizitza eter-noas, ta etsaien persekuzioas galarazteko. Ala daude lo sosegaturik, nola ezpalitz etsaiik & Beira p. 2. 1. 3. n. 331. Naiz dragonaren arroganzia den andia, baña bere flakeza da andiagokoa, ta eztu suponitzen iago ezi atomo batek Jangoikoaren birtutearen aldean. Baña nola arren astuzia ta maliziak pasatzen baitu ainberze mortalak, etzaio konbeni arimai paratzea arrazio-tan ta platikatan arreki & Aparta urrun adi ez dezazun gisan, al badaike & brindatzen du benenoa urresko basoan, ez lotsatzeagatik & n. 355 &.) Egon oroat adbertiturik, baliatzen delaik jendeas zure kontra, paratus sobra amore, edo sobra odio. Senti duzulaik sobra amore tratatzen zaitu-tenetan, iges egin oroat nola Demonioaganik, baña aborrezitus Demo-nioa, ta onetsis Jangoikoaren kriatura. Sobra odio dizutelaik, zuk ama manso eskatus aien fabore & beira n. 358.

Probidenziaren

Eta mortaleek ezaun balezate kuido amoroso duena miserikor-dien Aitak aien eramateas, deskuida leizke beren burues, ta ez leizke entrega alako kuido molesto, inutil, peligrusoetara, zeñeki bizi diren afanaturik & n. 384. &.

Bake ta soseguaren

Zeure gobernuaren, ta tratuaen Jangoikoareki, tori adbertenzia on bat: au da kuida zazula konserbatzeas beti tran-til bake barnekoan, admi-titu gabe turbaziorik batere oraiko biziaren edozein lanzeagatik & Eztunai Jangoikoak turba daien bat traba J uareki, baizik mereji dezan; S. Josef exenplu zeloetan & n. 405.

Odio ta suberbiaren

Bekatu guzietaik batere ezta ain aborrezigarria nola ebek anaien kontra & beira n. 415. &

Humiltasunaren

Ene humea, humiltasunaren eskolan nai zaitut aplikatua ta dilijenta, nola erakutsiko dizun ene bizitzaren prozesok: ta au bear da izan zure kuidoaren lenbizikoa ta azkena, baldin nai bazara prebenitu zure Jauna-ren besarka dulceetara, ta seguratu beraren faboreak, ta gozatu tesoro argiarenak altxatzen denarenak suberboei, zeren ezi humiltasunaren fia-dorea gabe niori eztakiozke fia & n. 426.

Kodiziaren, ta kuido prudentearen

Nor da eztenik enredatzen kodizian? & n. 435. &.

Ornamenta Sagratuen

Nai dut adberti zazun dezenia, zeñeki bear diren tratatu gauza kon-sagratuak Jangoikoaren kultora: ta erreprehenditu irreberenzia, zeñeki bere Ministroek Jauna ofenditzen duten & n. 445.

Korporaleak zikin daudelaik, Aingiruak asistitzen dutenak mezan daude alketurik bekala, ta apartatzen begiak alako Ministroenganik, ta admiratzen nola Jaunak duen pazienza sufritzeko & ib. Eta errelijosaren ofizio propioa dela korporaleak & 446. &

Injurien sufritzearen

Errazu, ene maitea, baldin mundukoen desprezio sufrituaren erre-kompensan paratzen baitu Jangoikoak zure baitan bere begiak ta amorea, zergatik eztuzu erosiko ain merke balio duena infinito? Zer emanen dizu-te jendeek, naiz zelebra ta estima zaizaten? Zer galduko duzu, desprezia-tzen baduzu? Ezta guzia gezurra ta banidade? Ezta itzal bat doakiotena eskuetaik & n. 464.

Utzazu guzia, ta biotzez, eta ezpazaitu despreziatzen munduak, des-prezia zazu zuk bera, ta geldi zaite libre, desenbarazaturik & ibid.

Eukaristiaren

Ene exenplutik ikasazu reberenzia, beldurtasun, ta respetoa, zeñeki tratatu bear duzun, nola nik egiten nuen, neukalaik nere besotan: exeku-tatuko duzu doktrina gau, errezipitzen duzulaik zeure petxora Eukaristia-ren sakramentu benerablean, non dagon Jangoiko ta gizon egiaskoa bera ene entrañetaik jaio zena. Eta sakramentu gontan artzen duzu ta iduki-



tzen duzu errealki ain urbil, ezi dago zeure barnean egiaz, nola nik neukan, naiz berze modus. 487. &

Kristoren Pasioaren

Zeruko Aingiru ta Sandu guziak admiratzen dire krueldade biotze-ko dutenas lurrekoek beren kontra, ta beren Kriadore ta Salbadorearen kontra, ezpaitute niores konpasionerik, ez gure Jaunak padezitu zuenas, eztare berek padezitzeko dutenas. Eta gero erremedia eztaikelaik ezauntzea atzadura gau izanen da konfusio ta desesperazio, ta pena &. n. 539.

Itzulazu zeure biotz ta gogo guzia Erredenzionearen misterio ta benefizioetara. Guziori eman zaite aietara; pensa, errepensa, pizatu, ta estimazkizu, nola zu bazina bakarrik, ta aiek zuretako sollik. Aietan aurkituko duzu bizitza, egia, ta badea eternidaderako; ta au segitus ez deza-kezu uts egin, baizik aurkituko duzu argia ta bakea. ib.

Graziaren auxilioen

Errege Magoei agituan enzerratzten da egia bat agitz prezisoa arimen salbazioaren, agitz gutiek ezauntzen dutena, ta gutiagoei adbertitzen. Au da, Jangoikoaren inspirazio ta deiek komunki segitzen dutela orden gau: lenbizikoek mogitzen dutela obratzera zenbait birtute: eta ebei errespon-datzen badiote arimak, Jangoikoak bialtzentiola andiagokoak; eta ebetas baliatus disponitzen dela & n. 563.

Limosnaren

Zein krudel berekoi egin den naturaleza humanoa, ezi ainberze bear-tsu izanik, ain guti baitire erremediatzen direnak abratsenganik! Gizonen inpiedade desatento gonek ofenditzentu Aingiruak, ta tristatzen Espiritu Sandua, beiratus arimen nobletasuna ain txar billauturik, zerbitzatus guziek kodizia itsusiari & &. n. 571. eta zuketelaik erosi bizitza sekulakoa haziendareki, oneki erosten baitute beren perdizioa &.

Amoresko obrak urre: orazioa inzensu: sufrimentua ta mortifikazioa mirra. ibid. 572.

Beñere eztakioke deus fia naturaleza kutsatuai, ezi beti nai du iago duen baño, ta beñere ezti, aski da; ta zenbatenas iago artzen duen, egarri iago du. 582.

Pereza, edo epeltasunaren

Miserietaik bat da kontentatzea egiteas obra birtuteskoak nagi ferboreik gabe, nola iten balitz gauza guti inporta dena. Biotzaren ignoran-

zia ta billautasun gonengatik ellegatzen dire guti Jangoikoaren tratu ta amistanza ertxira, zein erdexten baita solamente amore ferborosoareki: Deizen da ferboroso, zeren nola ura irakiten den suareki, ala amoreak Espiritu Sanduaren su dibinoareki goratzen du arima bere gañetik, ta gauza guzien gañetik: ezi amatus itxekitzen da iago; ta azitzen da afekto ase eztaiken bat, zeñeki ez solamente mespreziatzen du lurreko guzia, baita on guziak ere ez dezake ase & 594.

Pazienziaren

Konfusio andia da, ta atrebimentua ere, aborrezitzea fielek pasatzea trabaju, pasatu ondoan aiengatik ene Seme Santisimoak; bada bera il baño len, pasatu zute asko Sanduek gurutzea & n. 603.

Au guziau ezta baratu bear solamente afektoetan, ta erratean anitz aldis Jauna, Jauna: eta gero ellegatzen delaik kaliza edo gurutzearen txas-tatzeko eskalda, tristatu, aflijitu, ta igeska ibili penaetaik... ez dezakezu segi Kristo, ezpauzu besarkatzen gurutzea, ta alegratzen orreki. Faltatzenbadi-zute kreaturek, meatxatzen tentazioak, aflijitzen tribulazioak, ertxitzen eriotzeko doloreek, etzara turbatu bear, ta ez mostratu bear kobarde, ezi on da gure desplacer & 604.

Trabaju ta pena emengoak admititzen badiire biotz alegre ta serenoareki, espiritualizatzen dute gizona, elebatzen dute, ta ematen diote jakin-de dibinoa: ta bereala aurkitzen du konsolu & Au da erredentorearen eskolako jakindea eztutena entendatzen Babilonian bizi direnek, ta bani-dadearen amazaleek. 605.

Zeloaren

Beñere eztuzu errehusatu bear nekerik, difikultaderik, amar gura ta dolorerik, al badezakezu alakoen medios irabazi Jangoikoarendako arima-ren bat, edo lagundu atratzeko bekatutik, ta obetzeko bizia. Eta ez kobar-deatu izateas inutil, ta ain pobre, ta eztela logratuko zure deseoa ta traba-jua: ezi eztakizu nola admitituko duen Jaunak, ta artuko duen zerbitzuta-ko. Bentzait zuk bear duzu trabajatu dilijent, ta ez jan ogia alfer bere etxean n. 618.

Jangoikoaren amorearen

Lenbiziko instantetik ni paratu nindue testigo, ta diot etzela baratu eskatzetik salbazioa gizonen aurzututik artu zue gurutzea & ib. n. 700.



Konformidadearen

Personaren errendimentuan ezta billatu bear berze arraziorik, baizik ala manatzen duela Jaunak, ta berak disponitzen duela guzia... Jakinde gontan nai dut alzina zaiten, ta ar zazun fortunak ta desfortunak, onak eta gaitzak aurpegi berareki, arimoaren bardin ta serenidadereki, ez bata tris-ta zaizan, ta ez berzeak alegra sobra, baizik solamente atendi ala ordena-tzen duela Jangoikoak, ala dela bere plazera. n. 710.

Kristoren doktrinaren

Nai duzu izan Kristoren Diszipulo: Beti bere Majestadea dago egi-ten Maestruaren ofizioa. Disposizio bear duzuna tori: lenik konzienzia garbi, sereno sosegatua, ta erne beti ez deskuidatzeko kulparen batean munduko edozein goraberagatik. Gero aparta ta despei lurreko gauzetaik, eztaien geldi ez memoriaik ta ez errestorik ere, baizik biotza senzill sere-no klaro. Gero atendi inspiratzen dizuna erreberenzia, estimazio ta agra-dezimentu onareki. Ezi delarik bat eskergaitz deskuidatu, erretiratzten da Jauna disgustaturik: ezi eztuzu pensatu bear dela erretiro goi amorez, bai penatako & ib. n. 724.

Lenbiziko pausua: peregrinazio emengoan kunplitzea Mankamen-tuak, nola zimendu on guziaren: baña kunplitzea ez epelki, baizik debo-toki: gero añadi borondatezko obra onak, irabazteko Jaunaren boronda-tea. Pensa bidea emengo bizitzatik eternora dela luze, nekoso, ta peligro-so, etsaiengatik ta gure frajilidadeagatik. Denbora labur: fina inzierto: eta au edo guzis ditxoso, edo guzis desdixatu, ta ezin aldatu & beira moti-boak nekearen n. 744.

Ezta galtzen penarik gabe zeukana amore ta gustoreki: Egia gonek progatzen du mundukoen desamorea Jaunagana, bada ainberzeek gal-tzen, ain gutik negar iten. Ezta bardin ausentatzea edo okultatzea Jangoi-koa arimari amorearen progutan, nola kulpen kastigotan. Ura da Jangoi-koaren amorearen injenioa, ta medioa komunikatzeko ago arimareki mereji duenareki. Berzea da kastigo justoa: lenbizikoa da non humillatzen den arima beldur sandu, ta humearen amoreareki: eta naiz ez dezon erre-prehendi konzienziak, biotz amorosoak ezaunzen du peligroa, senti du galzea, du beldur & n. 755.

Sakramentuen

Arritzen dire Aingiruak gizonen desagradezimentuas ez estimatzean Sakramentuen erremedioak. Nai dut eztakizun pasa egunik eman gabe

graziak, zeren ordenatu zituen Sakramentuak, ta sufritzen duen aien usa-tzea gaizki. Errezibizkizu zuk erreberenzia, fede, ta esperanza firmeareki: Eta amore duzunagatik penitenziaren Sakramentura, ellega disposizio erakusten duenareki Elizak: elega maiz ta egunoro: ta aurkitzen zarelaik kulpan, ez utzi gerora. Garbi zaite & ib. p. 2. 1. 5. n. 844.

Berexki nai dut entenda zazun Jangoikoaren indignazioa errezibi-tzentuztenen kontra indignoki, espezialki Eukaristia & ib. n. 845.

Ona ongi egiteko

Asenta zeure biotzean adbertenzia gau, ezi in bear duzulaik obraren bat, in baño len, konsidera zazun zeure baitan, itera zoazin gura inen gin-duen ene Seme dibinoak, eta nik, eta nola inen ginduen & n. 854.

Karidadearen

Irur birtuteetan nai dut imita nazazun, prudenzian, karidadean, jus-tizian. Prudenziareki bear zara alzinatu proximoen bearrei: karidadeareki mogitu dilijent amorosa erremediatzera: ta justiziak erakutsiko dizu dela obligazio ala egitea, nola nai zinduken zeuretako, ta nola nai duen bear-tsuak. Begirik eztuenai zure begiak biz & n. 861.

Trabajatzearen

Faltaturik indarrak S. Josefi, nik suplitzen nue. Mundukoetan sartu da perbersidade bat inklinatzen duena Jangoikoa kastigatzera, baita ezi guziok jaio direlaik trabajatzeko, ezpaita errepartitzen trabajua, baizik poderoso deitzen direnak nai dire dispensatu lege komun gontaik: erori daien karga pobreen gain, ta ebek sustenta dezaten aien ponpa beren izer-dias & n. 862. beira an konseju &.

Herien kuidatzea

Obra kuadrableenetaik Jangoikoai, ta protxugarrienetaik bat da kari-dadea herieki & n. 871. Herizai izatea da ofizio estimagarria ainberze, ezi Jangoikoaren etxean da andia. Kunplitzeko au, ez enkargatu berzeeri in dezakezuna zeurorrek. Beira an exzelent. 872 &.

Eriotzearen

Eriotzean pasatzentuzte arimek trabaju sinetsi eztaizkenak, Dea-bruen, naturalezaren... Aiek ikusias geros eritasun mortala, prebenitzen



dire beren malizia ta astuzia guziareki akometitzeko heri pobrei & Amaten dutenei sopra bizi gau, sinestarazten diote eztela peligro ainberze, edo estorbatzen dute ez dezkiendesengaña niork. Izan direnei deskuidatuak Sakramentuen usoan paratzentiote difikultade andiagokoak, il daitzen gabe edo gaizki errezibiturik. Berze batzuei ematen diote konfusio-ne, ez dezaten agertu konzienzia &. Berze batzuei, ez dezaten agertu obligazioak. Berze batzuei, ordena dezaten asko banidade il ondoreko ere. Berze batzuei ondasunen amorea & Guziei beren kostunbreeki gerra 881.

Agitz guti dire Sanduak, zeñei azken gartan eztioten akometitzen ira erruareki. Eta Sandu andienak eroriarazi nai baditu orduan, zer esperatzen dute biziosoek, epelek, ta bekatus bete direnek? &.

Emendik entendatuko duzu eriotzearen peligro sumoa, ta zenbat arima galtzen den ordu gartan, noiz merejimentuak ta bekatuak asten diren obratzen. Eztizut deklaratzan anitz galtzen direnak ta kondenatzen, etzai zen il penaren utses, barin badakizu, ta barin baduzu Jaunaren amore egiasako: baña erregla jenerala da, bizi onari darraiola eriotze ona: gañarakoa da dudasko, argal, ta agiasako. Erremedio seguroa & 883.

Laguntzeko zuk, nola nauzun, daudenei larize arriskatu gartan, lenik konseja guziei nik errana: gero egin orazio egunoro iltzen direnengatik, nola iten nuen nik. Errezibiarazi mugonez Sakramentuak: mintzatu Jan-goikoaren gauzak: animatu &. n. 885.

Ama Birjinaren ta S. Josefén &

Munduko guziek ignoratu dute ene esposo sanduaren pribilejioak ta abantallak, ta zenbat dezaken Jangoikoaren presenzian... Zeure bear guzietan baliatu bear zara beraren interzesioas, ta inarazi anitz deboto: ezi ene esposoak eskatzen duena Zeruan, ematen du Jangoikoak lurrean; ta beraren itzera & n. 894.

Adorazioaren

En el retiro puedes hacer muchas genuflexiones, como yo lo hacia, y postrada y pegada con la tierra podrás humillarte adorando â la Suprema Magestad del Altissimo, para que el cuerpo mortal, que agrava al alma, sea ofrecido como en sacrificio aceptable, para satisfacer &. n. 907.

Konfianzaren

Aunque tu amor con mi Hijo y Señor ha de ser libre, como de hija fidelissima y esposa muy amorosa, y no de esclava, con todo quiero para

aliénto de la humana flaqueza y de la esperanza, eranza, que tengas memoria de la suavidad del amor divino, y quan dulce es este señor para los que con amor filial le temen. O hija carissima, si no impidieran los pecados de los hombres, y si no resistieran â la inclinacion de aquella bondad infinita, como gustarían de sus delicias, y favóres sin medida? De tal manera lo hacen, que no solo se acostumbran â ser indignos de gustar del Señor, sino â no creer que otros participan de esta suavidad que quisiera comunicar â todos &. n. 918.

Zeloaren

Si este beneficio se tomara â peso, y los mortales no fueran tan ingratos, ninguno perdiera la ocasion de su remedio, ni se entregara â la condenacion eterna. Otras veces te he dicho que el numero de estos infelices prescitas es tan grande, y el de los que se salvan, tan pequeño, que no es conveniente declararlo mas en particular, porque si lo entendieras, y eres hija verdadera de la Iglesia y esposa de Christo, havias de morir con el dolor de tal desdicha. Lo que puedes saber, es que toda esta perdicion & todo redundo del olvido y desprecio que tienen de la vida y redencion de Christo n. 931.

Beira an nola Kristioen bekatuak diren gaixtoago Judioenak baño, ta orgatik azoteak &.

Zer ofrezitzen duen Jesu Kristok, zer Luziferek, nola ala ere garen geuren kontra & 939.

Trabajuen sufritzearen balioa, ta nola nai zuen Ama Santisimak, nola bear den & beira n. 960.

Jakindearen

Aragiaren jakindeak egintu gizonak ignorante, zoro, ta Jangoikoaren kontrario, zeren baita ura Deabruarena, ta eztena sujetatu nai legeari: Eta zenbatenas iago estudiantzen ta trabajatzen duten Adanen humeek beren estudioetan, iago ignoratzentute Jangoikoarenak. Zer titulos mundu gontako humeak nai dire deitu Jangoikoaren hume, Kristoren Anai, ta here-dero? hume adoptiboa bear da iduritu hume naturalai daiken diña & ib. n. 972.

Pazienziaren

Bere Kriadore ta Erredentorea ofenditu duenik niork ere ez dezake erran egiaz, iten zaiola agrabio edo injustizia, naiz agi dakizkion munduko tribulazio ta aflikzio guziak 984.



Penitenziaren

Gorputzaren obra penalak dire ain proprio ta dagozkionak kriatura mortalai, ezi onen ignoranziak, ta gurutzearen artzeko atzendurak dauka galdurik asko arima. Lenbiziko tituloa mortifikatzeko aragia, da zeren garen konzebituak bekatuan & Bigarrena in dugun sobra bekatu Jangoikoaren kontra, ta bear zaio eman satisfakzio, eta kulpari darraio pena & Irugarrena imitatzeagatik Jesu Kristo gurutifikatua padezitu zuena guregatik & n. 992.

Ama Birjinaren debozioaren

Zierto da nik maitatu nuela S. Juan Ebanjelaria, zeren baize agitz puro ta kandido. Badakizu nai zela ni Ama piadosa, ta errezibitzentutela Amaren entrañeki nautenak izan ene humeak afekto fiñareki, eta Jaunak komunikatu zidan karidadeareki besoak zabaldurik besarka artukotut, ta izanen naiz aien Abogada. Zu izanez pobre inutil & izanen zara & n. 1031.

Inspirazio onen

Eta ala ordenatzen dizut, ezi ezauntzen duzulaik zure Artzai ta Esposo gonon argia ta boza, belaurika zaitela erreberente, atenditzeko, esker millaeki adora zazu, ta eskribizkizu beraren itzak zure petxoan & 1051.

Humildadearen

Bere maldade ta astuzia enpleatu du serpiente zarrak, borratzeko biotzetaik humildadearen jakindea eraiki zuena Kriadoreak, ta onen lekuan eraiki du arrek suberbiaren zizaña. Onen atratzeko zañetaik ta arren itzultzeko, da preziso nai dezan batek izatea humillatua jendeenganik, ta eskatzea Jangoikoai & n. 1063.

Humiltasun ta desprezioaren bidea ta aflikzioena da erakutsi zuena ene Semeak eta nik. Au da biziaren bide erreala ibiligin duena guk lenik, ta ingina aflijituen ta trabajutan direnen anparazale & 1078.

Ama Birjinaren debozioaren

Ene Seme dibinoak S. Juani azken afarian errebelatu zition sekretoetaik bat ze, logratu zuela beraren amorea amore zidanagatik niri, eta Judas erori zela, zeren despreziatu zuen ene piedadea & n. 1097.

Karidadea justoei

Berze sekreto bat da, bekatu itsusi ta Jangoikoak guzis aborrezitzen-tuenetaik dela ez estimatzea justoak ta Jangoikoaren adiskideak, espezialki Maria Santisima: ezi ez onestea etsaiak ere barin bada ain odioso Jangoikoai, zer da on egitea bere adiskideeki? Au da erreprobazioaren seña-le bat & 1098.

Trabajuen

Bada egunoro zoazi entendatus iago ta deklaratus amore fiña, zeñe-ki ene Semeak eta nik artugin duen gurutzearen bidea, arrazio da imita zazu. Zor gau doakizu aumentatus, ta ez dezakezu paga, ezpaituzu artzen ta amatzen trabajuak alako afektoareki, ezi zuretake daien penarik andiena ez padezitzea. Berritu egunoro deseo gau, ezi nai zaitut jakintsu jakinde gontan, zein ignoratzen ta aborrezitzen baitu munduak & beira n. 1113.

Bekatuaren

Emanik arima bekatura, ezta podoreik lurrean dezakenik itzuli ta deteni, eztaien erori ondarreraño: bere naturale gaixtoaren izua nola arria beitirat, pasioneak, kostunbreak, Deabrua & Dezake libra sollik podore dibinoak, sollik erremedia bere eskuak n. 1139.

Karidadearen etsaieki

Direnak beratx ta suabe ofenditzen ta persegiztentuteneki dire zerbait idurituak Jangoiko-gizonari, zein baizebila beti billatzen, barkatzen, ongi egiten bekatariei. 1140.

Eukaristiaren

Zer deskargu emanen dute juizioan gizonek izanas bereki Jangoikoa bera sakramentaturik Elizan etxideten doakizkion errezibitzera, betetzeko bere donoes, ta aiek despreziatu amore ta fabore infinito gau, dibertitzeagatik munduko gusto, banidade & 1155.

O ene humea, baldin katolikoek idiki balezkite beren biotzak errezi-bitzeko Eukaristiako benefizioen ezaumentua! O! desagoaturik lurreko afektoetaik aplika balezate fede bizia entendatzeko fortuna & beira 1200 guzia.



Ene merejimentu guzi guziak uste nue pagatzen zirela abasto solamente komunione bateki, ta oraño ere ez nitza uste digna & ib. 1203.

Kristoren pasioaren

Gauta egun pensatzea Kristoren pasio, ta eriotzean da Sandaen jakindea, mundukoek eztakitena; da biziaren ta entendamentuaren ogia asetzen ta erakustentuen txipitoak, utzis uts munduko banoak. Jakinde gontan nai zaitut aplikatua, ezi oneki etorriko zaizkizu on guziak & n. 1236.

Nai dute ignoranteek ellegatu Aitagana pasatu gabe Kristoganik: Padezitu ta konpadezitu gabe naute erreinatu & naute balia dakioten gozatzeko emen ta an. Ezta hume ona eztuena imitatzen bere Aita, ez Diszipulo ona eztuena segitzen & Baña amoreak, zeñeki nai dugun salba daitzen, obligatzen gaitu bialtzera trabajuak, nai ez dituzte borondatez, bentzait admiti ta sufri dezkiten nezesidatez, eta ala sar daitzen bidean deskansurako & n. 1238. &.

Justiziaren

Lo que te advierto, es que no solo los tormentos que padéce judas traidor, sino tambien los de muchos Christianos, que con el se condenan, y bajan al mismo lugar señalado para ellos desde el principio, exceden â los de muchos Demonios; porque mi hijo santissimo no murió por los Angeles malos, sino por los hombres &. 1254.

Kristoren pasioaren

Llora y afligete de que tantos vivan en este olvido de la redencion, y que tantos trabájen con todo su conato, por perder lo que costó sangre y muerte del mismo Dios, y lo que yo & n. 1266.

Pazienziaren ta penitenziaren

Recompensa tus faltas y culpas con la paciencia en las adversidades: reci elas con alegre semblánte, sin turbacion y sin diferencia sean las que fueren, assi de enfermedad, como de molestias de criaturas. En todo esto puedes padecer, y lo debes tolerar con fee, esperanza y magnanimidad, y te advierto que no hay exercicio mas provechoso para el alma, que el padecer, porque dá luz &. n. 1267.

Zeloaren

Despues de estas penas (de Christo) fueron las mayores por conocer, que con haver padecido su Magestad tal muerte y passion por los hombres, se havian de condenar tantos â vista de de aquel infinito valor. En este dolor tambien quiero que me acompañes, y te lastimes de tan lamentable desdicha, que entre los mortales no hay otra dina de ser llorada con llanto lastimoso, ni door que se compare â este. Pocos hay que adviertan &

Pero mi Hijo y yo admitimos con es ecial agrado â los que nos imitan en este door, y se affligen por la perdicion de tantos & 1296.

Generalmente todos estan entumecidos con el mortal veneno de la antigua serpiente, y mas sedientos de beberle, quanto mas heridos, y dolientes de este lamentable achaque. El camino de la cruz é imitacion de Christo por la humildad y sinceridad christiana está desierto, porque son pocos los que caminan por el. Para quebrantar esta cabeza de Lucifer, fue la paciencia y silencio de mi hijo santissimo en su passion & 1313.

Silenzioaren

Infinitos son los comprehendidos en este peligroso error (de ostentar) y deseando parecer sabios, hablan mucho, y vienen â perder lo mismo que pretenden, porque son conocidos por ignorantes. Todos estos vicios nacen de la soberbia radicada en la naturaleza. Pero tu conserva en tu corazon la doctrina de mi hijo santissimo mia, aborrece la ostentacion humana; sufre, cala, y dexa al mundo que te repute por ignorante, pues él no conoce en que lugar vive la verdadera sabiduría. n. 1313.

Bekatuen gaixtoaren

Sanguis eius super nos &. O itsutasun kruela! Inozentearen odola nai duzie kargatu zeuren gain &. Badute beren mia Kristioen bekatuek ere gure Jaunaren odol ta eriotzearen kontra diotela: Biz Kristo afrentatua, lix-tukatua, azotatua, guruzifikatua &. Padezi bez ta il bedi Jangoikoa bera humano, ta guk goza geuren gustoak. Balia gaitzen okasioas &. n. 1326. &.

On izanen, ta gora egonen bekatuen gaitza zein gaixto, ta zergatik & n. 1332. &

Peligro gau da klaro sazerdote epeletan, beldur ta errespetorik gabe artzentutenetan Eukaristia ta berze sakramentuak... nekez korrejitzen baitire, zeren galdu duten Elizako erremedioen aprezioa: eta medizina ebeki,



zeñeki sendatzen diren ignoranteak, heritzen dire aiek direnak osasun espiritualaren medikuak. ib.

Eta nola baitago señalaturik bekaturen numero sufrituko diotena, numero gau ezta kontatzen kantidadeas solamente, baitare kalidadeas: ala agi daike izan daitzen alakoak desanparatuak bekatu gutiagoreki, ezi iago-reki berze batzuk & 1333. Beira an faboratuen &

Legearen

Zuretake zeure estadoa bear da izan gurutzea, non zauden josirik & Au da Babilonia ta Adanen humeen engañua, prokuratzen baitute billatzea zabal edo lazadurak legean nork bere estadoan, ta errekatetzen beren arimen salbazioa erosteko zerua merkeegi edo arrixkatzeko galtzera, kostatu bear bazaiote ajustatzea legearen errigoreari. Emendik datorz billatzea doktrina eta opinione lazatzentutenak sendak & 1410.

Jesu Kristoren

Jendamende gaixto gontan bizi zara zu, eta etzai zan konprehendi ainberze arimen galmendeak, negar egizu orgatik, ta beñere ez atzen ene seme santisimoaren enkarnazioa, pasioa, ta eriotzea, nai baitut agradezidez kizun zuk asko despreziaztentutenengatik. Seguratzan dizut, memoria ta meditazio gau sollik ere dela lotsamentu andia infernuaren & 1435.

Graziaren

Seguratzan dizut eztela obra onik intenzio onareki iten denik gelditzen premiorik gabe berladanik, ezi eztu suak itxekitzen istupa idorra ain laster, ez arria jausten zentrora ain fite, nola Jangoikoaren ona ta grazia komunikatzen baita arimei disponitzen badire. Egia gonek admirazio ematen diote bienabenturatuei ezauntzen dutenei &. 1494.

Exerzitzatzeko Jangoikoaren laudarioetan errepeti ene izenean Magnifikat anitz aldis: eta zaudelaik bakarrik, errazu lurrean kurturik ta biotzaren afekto osoareki &. 1507.

Geldi zaite ongi adbertiturik ta erakutsirik Jangoikoaren amorearen suabidade ta liberalidade inmensoas, ezpadiote inpeditzen. Beraren inklinazioaren konforme da erregalazea kriaturak iago ezi aflijitzea; premia-tzea iago ezi kastigatzea; konsolatzea & Makurtzen dute gizonek naies konsolazio lurrekoak; errore gau korrejitzen du bialis tribulazioak ta kastigoak, baitire preziso disponitzeko lur gaixtoa & n. 1529.

Jangoikoaren karidadearen

Adberti, ezi nola on sumoan baita natural komunikatu naia bere kriaturaei, baña jendamende presentean nai du manifestatu iago bere klemenzia liberala mortaleeki, zeren akabatzen zaiote denbora, ta guti dire nai direnak disponitu errezibitzeko bere eskuaren donoak. p. 3. n. 9.

Ama Birjinaren

Da Jangoikoaren borondatea manifesta daien munduari egin nuena nik Elizagatik, ta duten deseoas sokorritzeko baliatzen direnei ene anparoas, nola Jaunak enkargatu zidan, ta nik ofrezitzen dioteten Amaren afektoareki. Ia da denbora entenda dezaten Elizako humeek benefizioen goratasuna, nora goratu ninduen guzis poderosoak; ta gora daitzen berak esperanzan, ezaundus obeki zenbat nauten ta dezoketen faboratu, ezi lastimatzen naiz Ama amorosa bekala ikustean ene humeak ain engañatuak Demonioaganik. n. 37.

Jangoikoaren beldurtasunaren

Beldur izatearen jakindea da efekto propioa Jangoikoak arimai itention faboreen, ta ematen du suabidade, dulzetasun, bake, ta trankilidade-reki, jakin dezan estimatzen Jangoikoaren donoa & ib. p. 3. n. 72.

Ama Birjinaren

Jangoikoak eman zidalaik Zeruan Elizako Amaren tituloa, komunikatu zida bere karidadearen partizipazio bat ezin erran daikena... Baña noiz desmaiatzen bekala nitzan afektoetan ze, noiz ezkatzen nuen bekatarien konbersioea, ta noiz fieletaik norbait galtzen zen. Okasio alakoe-tan, gozoaren ta dolorearen ermean, padezitu nue iago ezi Martirek beren tormentuetan, zeren arima bakotxagatik obratzen nuen indar sobrenaturalareki & p. 3. n. 115.

Eukaristiaren

Gozatzen duten glorian al baleike izan doloreik, andien eman lezadakena litzake gizonen desaten zio ta atrebimentua ellegatzean errezibitzera gorputz dibinoa, batzuek zikin, berze batzuek desatento, ta kasi guziek erreparatu gabe zenbat pizatzen ta balio duen amen garrek, ezpai-ta gutiago Jangoikoa baño &. 116.



Zeloaren

Eznezake errepugna tormenturik ta ez eriotzea ere, preziso balitz, erremediatzeagatik edozein kondenatzen direnetaik, ta konta nezake ene deskansutako. Zu ezpazara iltzen, bentzait ez exkusa padezitzea arimengatik &. Eska, trabaja, exkusatzegatik edozein kulpaa zeure anaiaetan &. Prosegi, naiz ez berla & Eztunai Jangoikoak bekataiaren galmendea, eta etzue berez izan borondate absoluto antezedente galzeko bere kriaturak, baizik guziak nai luzke salbatu, ezpaleizdue gal berak: eta permititzen badu ere, permititzen du beraren desplazer dena gizonen libertadeagatik. 177.

Nai dizut konsejatu Amak bekala, tentazioak edo pasioneak inklinatzen zaituelaik admititzera kulparen bat, den lebeena, oroi zaiten dolore ta negar kostatu zekizkidana jakitea mortaleen bekatuak inpeditu naiez. n. 178.

Fedearen

Apostoluek ordenatuas geros Kredoa, nai dut jakin dezazun, errepetitzen nuela nik egunoro anitz aldis belauriko kurturik erreberente. & n. 219. Doktrina Kristioari duzun kariñoa Jangoikoak emana kuadratzen zaio berai ta niri, ta erman dezazun zeureki, ta lei dezazun maiz, ta berriro enkargatzen dizut: ta enkarga zazu berzeeri, ezi da joia adornatzentuen arimak... & 220.

Zeloaren

Konplazentzia artzen duena bere Majestadeak laguntzean arimen salbazioan eztaik ezaun bizi mortalean. Orgatik da ain gora ofizioa 241. Beira Sazerdoteendako an miragarriak. 243.

Ama Birjinaren

Ainberzekoa da ene karidadea bekataieki, ezi mugonez ta egiaz dei banindezate, nior ezleike galdu. Baña eztute egiten erreproboek & 301.

Konfesioaren

Justifikatzen direlaik arimak sakramentueki, espezialki konfesioareki, agitzen da askotan eztirela Demonioak trebe agertzera penitentearen alzinean, ez beiratzera ere &. 304.

Zeruan posible balitz tristura, ezlizake baizik itzultzeas erorzeraz & Ain poderoso da bekatua komogitzeko Zerua, nola penitencia tormentatzeko infernua. n. 305.

Konfesazkizu egunoro zure faltak &. 477.

Prokura zazu ellegatzea beti konfesioko sakramentura ferborereki, aprezio, ta beneraziereki, ta zeure kulpen dolore sinareki: ezi erremedio gau da lotsamentu andi dragonaren: ta erne dabila inpeditzeko arimak, ta engañatzeko astutoki, errezibi dezaten sakramentu gau epelki, kostunbres, dolorerik ta bear diren kondiziorik gabe. Au prokuratzen du Demonioak ez solamente galzeagatik arimak, baitare exkusatzegatik bere tormentua errezibitzen duena ikusteas penitente bat egiaskoa ta justifikatua oprimitzen ta konfunditzen duena bere suberbiaren malignidadean. p. 3. n. 305.

Zeloaren

Oroi zaite kontino nola ene Seme dibinoa eta ni bizi mortalean gindeuden beti anhelatzen ta suspiratzen Adanen hume guzien salbazioagatik, ta negar egiten galmende eternoas prokuratzen dutenas ainberzeek alegria falsuareki berendako. Karidade ta zelo gontan nai dut seinalazaiten &. 333.

Ama Birjinaren

Nola Ama Birjinak asistitu zion S. Tiagori martirioan, nola Jangoikoak ofrezitu zuen anitz grazia inbokatzen dutenei Ama dibina iltzerakotan &. n. 410.

Zeloaren

Seguratzten dizut bizi zarela denboretan, noiz negar odolesko in bear zinduken Adanen humeen kalamidadeengatik & beira kausak. n. 427.

Humildade ta obedienziaren S. Pedrori exenpl. 460.

Legen latatzeas opinione ta injenioeki 476.

Tentazioen gain ta frajilidadearen gain doktrina n. 500 &.

Pelea kontinoaren Kristoren ta Luziferen & n. 529.

Arima zenbait espezialki deitzen & n. 552.

Sazerdoteen errespetoaren, Zerutik ere & n. 572.

Kristoren pasioaren memoria, ta komunionearen n. 591.

Ama Birjinaren pribilegioen, eskritura,

konzeptzio n. 620...